

HIZKUNTZA, HEZKUNTZA
ETA
ELEBIDUNTASUNA

*Hizkuntzen arteko Ukipen Egoeraren Teoria
eta Metodologia Aplikatua*

Lore Erriondo
Xabier Isasi
Fito Rodriguez

© Lore Erriondo, Xabier Isasi, Fito Rodriguez

© Udako Euskal Unibertsitatea

General Concha 25, 6. 48010 BILBO

ISBN: 84-86967-56-2

Lege-gordailua: BI-2435-93

Inprimategia: BOAN S.A. Aita Larramendi 2, BILBO

Azala: Arturo Rodriguez

Banatzaileak: ZABALTZEN Igara bidea 88, DONOSTIA

U.E.U. General Concha 25, 6. 48010 BILBO

AURKIBIDE OROKORRA

Elebitasunaren ahulezia kontzeptualaz eta ikerketa honen oinarri teorikoaz	9
Kultur gutxiagotuak eta pentsakeraren independentzia	13
1.- Kultura eta ezagutza	16
2.- Ezagutza eta hizkuntza	17
3.- Hizkuntza eta pentsakera	21
4.- Gutxiengo kulturak, hizkuntza gutxiagotuak eta pentsakera dibergentea	23
5.- Kultur gutxiagotuak eta pentsakeraren independentzia	28
6.- Komunikazioa, mintzaira, hizkuntza eta hizkera	31
Giza-komunikazioa	33
1.-Mintzaira, hizkuntza, hizkera	33
2.-Pentsamentua eta mintzaira	37
3.-Mintzairaren garun-antolaketa	40
Elebitasuna: Arazoa eta aztergaia	45
1.- Elebitasuna, hizkuntzen arteko ukipen egoera eta elebiduntasuna	48
2.- Elebidun motak	52
3.- Elebiduntasuna eta lateralizazioa	55
3.1.-Eskuineko hemisferioaren partehartzea elebidun /elebidunaren hizkuntzen isladapen eta prozesamentuan	57
4.- Elebidun/elebidunaren hizkuntzen adierazpen modua garunean	59
Hizkuntz-oroimena elebidunongan	63
1.- Oroimena eta hizkuntzen irakaskuntza	68
2.- Itzulpena elebidun/elebidunengan	69

Hizkuntzen ikaskuntza	71
1.- Hizkuntzen ikaskuntza eta berezko garapena	71
2.- Bigarren hizkuntzaren ikaskuntza eta jabetza prozesua	76
3.- Hizkuntzen arteko ukipen egoerako irakaskuntza	81
3.1.-Hizkuntz murgiltze ereduak	91
3.1.1.-Adina	93
3.1.2.-Trinkotasuna	94
3.1.3.-Iharduera	94
Elebiduntasunaren neurketa	95
1.- Elebiduntasun indizea	96
2.- Elebiduntasunari buruzko testa	98
2.1.- Testaren fidagarritasuna	106
3.- Elebiduntasunari buruzko froga	107
4.- Emaidaren azterketa	114
4.1.- Adina eta ikasmailaren arabera garapena	115
5.- Emandako hiztegiaren azterketa.	122
6.- I. Eranskina: euskaraz eta gaztelera emandako hitz zerrendak.	124
7.- II. Eranskina: euskaraz eta gaztelera emandako aditzak, adjektiboak eta koloreak.	159
Azkenengo gogoetak eta ondorio bilduma	165
1.- Garapen psikolinguistikoaz	165
2.- Egoera soziolinguistikoaren eraginaz	167
3.- Ondorio bilduma	168
4.- Ondorioak miatuz	170
Bibliografia	175

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia: Mintzaira, Hizkuntza, Hizkera	36. or.
2. Irudia: Mintzaira eta Pentsamentuaren arteko erlazioak. Venn-en diagramak	39. or.
3. Irudia: Hizkuntzen arteko ukipen egoera	49. or.
4. Irudia: Enkodaketa mnemonikoa eta hizkuntz-dekodaketa	64. or.
5. Irudia: Barne-eragiketak elebidunengan	66. or.
6. Irudia: Ulermenerako prozesuen eskema logikoa	67. or.
7. Irudia: Hizkuntzaren berezko garapena. Eredu normalizatua	73. or.
8. Irudia: Berezko garapenaren bilakabideak (kurbak)	74. or.
9. Irudia: Berezko hizkuntz garapena	75. or.
10. Irudia: Hizkuntzaren berezko garapena/ kultura bidezko hizkuntz-garapena	78. or.
11. Irudia: 1986. urteko Erroldaren arabera E.A.E.ren azterketa demolinguistikoa	82. or.
12. Irudia: Hizkuntz ukipena. Euskararen egoera	84. or.
13. Irudia: Hizkuntz ereduak eta hiztun taldeak	89. or.
14. Irudia: Murgiltze ereduaren oinarritzko ardatzak	93. or.
15. Irudia: Hitztunen adin-banaketa	110. or.
16. Irudia: Laginaren hezkuntz-ereduen banaketa	110. or.
17. Irudia: Hitztunen banaketa jatorritzko hizkuntza eta bigarren hizkuntz ikastadinen arabera	112. or.
18. Irudia: Hitztun tipologiaren arabera banaketa	113. or.
19. Irudia: Ekoizpen tasen banaketa ikasmilaka	116. or.
20. Irudia: Hitztunen banaketa elebiduntasun indizearen arabera ..	119. or.

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: Elebitasunari buruzko zenbait ikerketa	47. or.
2. Taula: Elebidunen arteko bereizketak eragiten dituzten aldagaiak (Paradis, 1989)	55. or.
3. Taula: Euskararen hitzun taldeak jatorrizko hizkuntzaren arabera	81. or.
4. Taula: Elebiduntasunari Buruzko Testa (EBT), hitz kopuruen zenbaketa eta sailkapena	104. or.
5. Taula: EBTren hitz estimuluaren araberako sailkapena	106. or.
6. Taula: EBTren Elebiduntasun Indizeak eta kategoria semantikoen estatigrafoak	106. or.
7. Taula: EBTren fidagarritasun azterketa	107. or.
8. Taula: Urolako udalerrien deskripzioa	107. or.
9. Taula: Euskararen egoerari buruzko adierazle estatistikoak	108. or.
10. Taula: Urola-kosta eskualdeko euskal eredutako (D) eskolak. 4.O.H.O/ 8. O.H.O	109. or.
11. Taula: Hiztun eta elebidun tipologia	113. or.
12. Taula: Hizkuntz ekoizpenaren batzbestekoak hitz estimuluka eta ikasmilaka	114. or.
13. Taula: Batzbesteko ekoizpen tasakikas-mailaka	115. or.
14. Taula: Jatorrizko hizkuntzaren araberako hitzun taldeen arteko konparaketa	117. or.
15. Taula: Hizkuntzen ikastadina eta orotariko ekoizpen tasak	117. or.
16. Taula: Elebiduntasun Indizearen tarreak eta elebidun motak	118. or.
17. Taula: Elebiduntasun Indizearen garapena ikasmilaka	120. or.
18. Taula: Gertueneko hizkuntz-giroa eta ekoizpen tasak	121. or.
19. Taula: <i>Euskaldunak/ez-euskaldunak</i> , elebiduntasun indizeak eta haien arteko erkaketa	121. or.
20. Taula: Aditzak, adjektiboak eta koloreak euskaraz eta gazteleraz	123. or.

ELEBITASUNAREN AHULEZIA KONTZEPTUALAZ ETA IKERKETA HONEN OINARRI TEORIKOAZ

Fito Rodriguez Bornaetxea

Goian aipatutako ELEBITASUNA den hitz pottoloren eduki desberdinak zein, hezkuntza medio, egunerokotasunean bere eraginkortasuna eta operatibitatea azalaraztea litzateke orri hauen nahia.

Ikusiko dugunez, egun elebitasuna bezalako hitzek dagoeneko zehaztasuna galdu duten neurrian lanbrotzen, merketzen eta errealitatearen azterketarako galtzen joan dira. Merketzen diogu, zeren eta Euskal Herria bezalako hizkuntzen arteko ukipen egoeretatik sortutako gizarte-gatazken eraginez edo, jakintza merkantileko kontzeptu gisa erabilia izateagatik jadanik ez ohi du errealitatea definitzeko premiazkoa den trinkotasun epistemologikorik¹. Orokorregia bihurtu omen da.

Izan ere, gure gizarte garatuan ezagutza merkatal-jakintza bihurtuz doala Max Weberrengandik badakigu jakin². Hau da, merkatuak gizarte-zientzietako ezagutzaren beharra duenez salerosi daitezkeen azalezko jakintzak sortzen ditu, jakintza merkantilizatu egiten du, alegia. Eta azoka adierazten dugunean, Athenako *agoraren* antzera, politikaz ari gara, toki berean sortu baitziren merkatua eta mendebaldar politika. Bada, egungo gizarte-zientzietako kontzeptuek,

-
- 1- ULISES MOULINES, C. (1988). Epistemologia, *Terminologia Científico-Social*. Anthropos. Barcelona. 347-350 or.
 - 2- WEBER, M. (1964). *L'étiqúe protestante et l'esprit du capitalisme*. Plon. Paris.

berezkoa dute merkatuzko eta politikazko baloreak, baina egunerokotasunak, arlo haietan izan duten etengabeko erabileraz, goian esan bezala, merketu eta kamustu egiten dute. Ondorioz, gaur egun elebitasuna bezalako hitzak aipatzen direnean aldeztu aurretik pairatutako erabilera politikoak gailendu ohi du barneko eduki hertsia hastapenetatik eraginkortasun ezan ezinbestean murgiltzen garen bitartean. Beraz, gizarte honen botere-jakintzek eragindako gizarte-zientzietan³ elebitasun hitzak, errealitatea taxutu eta definitzeko maneiatzearen ordeztu, errealitatearen isladaz izaten dena nahasteko besterik ez du balio. Honetaz gain, egoera soziolinguistikoak horren desberdinak direnez⁴, zehazkizunen aldeko joerak guztiz beharrezkoak dauzkagu. Horrexegatik, erabat garrantzitsuak dira hizkuntz egoera jakin baten ikerketatik ateratako emaitzak plazaratzea. Izan ere, bai erreferentziazko azterketan baita antzerakotzat har litezkeen artean praktika zehatzak ahalbideratzeko baliogarria izan daitekelakoan.

Hizkuntzen arteko ukipen egoeretan, bada, errazkeri nahiz ekibozidatedetatik urrun lan egin ahal izateko, inoiz baino premiazkoagoa dirudi dauden teoria zein kontzeptuei birdefinizio eraginkor eta aplikagarriak egitearena. Horretarako eskeini nahi ditugu lerro hauek. Baina ez soilik, Hizkuntzaren inguruan sortutako ekarpenak behar beste zehazteko baizik eta, ildo honetatik, Euskal Herriko egungo gizartean hezkuntza mailan horren ondoriozko eredu aplikagarrien berri azalarazten eta zabaltzen joateko.

3- MUÑOZ, B. (1993). *Critica del saber aparente*. in *Critica del Lenguaje Ordinario* (Román Reyes Ed.) Libertarias. Madrid.

4- “Ikasleek ahalik eta hizkuntza gehien ezagut ditzaten baina elebitasun sozialak status quo linguistikoa mantentzeko bakarrik balio duela ikustarazi behar diegu”. Irakaskuntza, hizkuntza eta gizarte. T. Mollá eta C. Palanca. in *Jazten 2* zbk. 20. or. (Elebitasunaren mitoa agerian). Eta, adibide gisa, egile berberen *Curso de sociolingüísticaren 2. atalean* (Graella-Bromera. Valencia 1988) honako pasarte argi hauek:

“Hizkuntza gehienak beste batzuekiko ukipen-egoeran aurkitzen dira. Ukipen egoera honek, beste gauza batzuren artean, hizkuntz aldaketak eragiten ditu hala hizkuntzen egituran nola bere gizarte-esparruan, bere erabilera-esparruan(...)

(...) Hizkuntza minoritario guztiak ez dira minorizatuak, suediera bezala, status normaleko bederatzita milioi hiztun dituen hizkuntza edo daniera, bost milioi hiztunekin. Baina, alderantziz badira kuantitatiboki hizkuntza maioritarioa izanik, zirkunstantzia eta leku konkretuetan, minorizazio prozesoa jasaten ari direnak, zenbait kasutan beren existentzia mehatxatzen iristen dena. Pentsa dezagun zer gertatzen ari zaion gaztelaniari Puerto Ricon, frantsesari Kanadan, edo galegoari Galizian“.

Gizarte-ikerketak⁵ dateke hemen eskaintzen den ekarpena. Sapir eta Pike-rengandik erakarritako *etik/emik*⁶ pareta erabili nahi izan dugu guk hizkuntzen ukipena diren gizarte-egoera bereziak ikertzeko. Zehazkiago, hizkuntzen arteko ukipen egoera jakin eta zehatz baten ikerketa egiterakoan zertaz hitzegiten ari garen argitzeko. Horretarako geronek erabilitako ikerkuntz-sistema beste antzerako egoeretan aplikatzeko onuragarria delakoan plazaratu nahi dugu oraingo honetan. Baina ez bakarrik egindako azterketak ezagutarazteko, ez eta parekatsuak izan daitezten egoeretara ikerketa zabaltzeko bakarrik ere, baizik eta funtsean, **hizkuntz ukipen egoera desberdinetan hezkuntz-eredu aplikagarri bat** lantzen joateko. Hizkuntz-egoerak hobetuz joan ahal izateko, alegia. Halere, *etik/emik* pareta dela eta Pike- eta Harris-en artean sortutako polemikaz, gehiago azpimarratu nahiko genuke *emik* delakoaren eraginarena *etik*-arena baino. Hau da, gizarte-ikerketa hau euskalduntasunetik sortua da. Beraz, zehatza eta sozio-kulturala duzue, barne-aurkikuntzaren bila doa, integratzailea da eta, azkenik, lehen aipatu bezala, funtsean praktiketara zuzendua dago.

Ezin da, ordea, praktikara joan nahi izatea hastapenetan dagoen abiapuntua behar bezala argitu gabe. Esan dezagun, beraz, euskalduntasunetik egindako lan honek, euskalduna den kultura (Levi-Straussengandik Kultura = Komunikazioa), zein hizkuntzaren egoera gutxiagotuta bezala aztertzen duela, minorizatua beraz, eta hori bera dela bere abiapuntua. Baina adierazitakoak suposatzen duenez konturatzeko har dezagun beharrezko tartea.

5- MORIN, E. (1972). "L'événement-sphinx" in *Communications*, 18.

- LOURAU, R. (1975). *El análisis institucional*. Amorroutu. Buenos Aires.

6- PIKE, K.L. (1972). "Puntos de vista éticos y émicos para la descripción de la conducta" in *Comunicación y cultura*, Nueva Visión. Buenos Aires. 1. tomoa.

E.Sapir antropologoak egindako ikerketatik abiatuz eta hizkuntzalaritzan fonetikaz (*etik*) eta fonologiaz (fonemika-*emik*) aritzerakoan dauden datu mota desberdinei kasu eginez, gizarte-zientzien metodologian eztabaida emankorra sortu zen. Fonetikak hots fisikoaz aritzen den bitartean fonologiak hizkuntz-sistema jakin baten barruan adierazgarriak direnak soilik hartzen ditu kontutan (beti, adberbioa euskaraz, eta Betti izen propioa ingeleseraz, antzerakoak badira ere fonologikoki badago bereizterik adibidez). Ildo beretik joanda, etik ikuspegiak orokorrak, kanpotikoak, objetibotasunaren aldekoak, hastapenetatik analisisaleak, etab... lirarteke. *Emik*, berriz, kontrakoak. Pike-k azken ikuspegi hau defendituko luke M.Harris antropologoak lehenari ekingo liokeen bitartean (Harris, M. *El materialismo cultural*. Alianza. Madrid. 1982). Bion sintesi metodologikoa izango da Gizarte-ikerketa (Morin, Lapassade etab.) zeinak azterketa kuantitatiboaz gain ikertzailearen hurbilpen subjektibo eta inplikatu aldarrikatuko du. Kontzeptuen egokiera eta egoeren aldaketak eragiten dituen lan-aukera hau duzue, zehazkizunak zehazkizun, ikerketa honetarako hautatutakoa.

KULTUR GUTXIAGOTUAK ETA PENTSAKERAREN INDEPENDENTZIA

Fito Rodriguez Bornaetxea

Nekez uler daiteke izenburu honetan adierazi nahi izango genukeena alde zuzenetik kategorien moldaketaz hizkuntzek daukaten eragina behar bezala azaltzen ez den bitartean. Halere, guzti hori azalduta ere, ulermen egokiaren baitan disziplinarrekotasunaren premia dagoenez (ontologiaz, gizarte-hizkuntzalaritzaz zein ezagutzazko psikologiari buruzko zenbait erreferentzien jabe izan ahal izatearena hain zuzen) diskurtsoaren haria ez galtzarren erabiliko ditudan ezinbesteko aipamenak alboan agertzen saiatuko naiz. Horrela, pentsamentuaren bi prozedura desberdinak balira bezala, diskurtsoaren ildoak izango da alde batetik bilakatua oharretan oinarritzko errekurtsoak, exkurtsoetarako bidea, ematen diren bitartean. Mezuaz jabetzeko, ordea, aipatu bi erreferentziak osagarriak dira. Hona hemen.

Gizarte-zientzietan arazo honi buruzko planteamendu desberdinenen etorria:

Kultura eta, noski, gizarte edo gizaki desberdinen arteko desberdintasunaz aspaldidanik oharturik, gizarte-zientzietan planteaturiko galdera hauxe dugu: **zer-nolako erlazio mota dago kultura jakin batetan bertako gizartea eta bertako gizakien pentsamoldeen artean?**; edota beste era batez adierazia: **kultura bakoitzak zer-nolako baldintzak ezartzen dizkio bere baitan ekoizten den pentsakerari?...**

Honi erantzuteko, gizakia ulertu ahal izateko hain zuzen ere, gizarteaz zein kulturaz aritzeko, aurreko mendearen bukaeran antropologoek egindako ikerketa taxonomikoak ditugu. E.B.Taylor-ek (1871) lan egiten zuen naturalisten antzera, hau da, kulturen ezaugarriak sailkatu besterik ez zuen egiten. Izan ere, kultur fenomenoak biltzea eta taxutzea zen helburua, inola ere fenomeno haien artean inongo barne batasunik bilatu nahirik. L.Morgan (1877), berriz, gizarte antolakuntzaz aritu bazen ere, ez zen kultur ezaugarri fenomenikoetaz gehiegi saiatu. Aitzitik, Tayloregandik bereizturik, giza egituraketak zein eraldaketak ikertzea zuen helburutzat. Ikuspegi batean zein bestean, kulturen arteko konparaketa egin arren, **ez zen aintzakotzat hartzen kultura eta pentsamentuen arteko harremana**, ezta hizkuntza, hezkuntza edota hirigintza bezalako fenomenoek kultur-azterketa ere¹.

Baina gizakia isolaturik, gizaki gisa ulertzerik ez dagoen era berean, gizarte eta kultur sostengurik gabeko intelektua antzematea ere ez da erraza. Izan ere, ezagutzazko funtziotan kultur oinarriaren garrantziaz ohartzea dateke mende honetako gizarte-antropologiak ireki duen ate emankorrenetariko bat².

Hasiera batetan, aipatutako Taylor, G. Stanley Hall (1865) edo H.Spenceren eraginez (1888), ezagutzazko muga herri basatien eta garatuen artean (mendebaldarrak) ezartzen bazen ere, sasi-”darwinismo” hura gairatutako geratu zen mende honen hastapenetatik. F.Boas-en “Gizaki primitiboaren adimena” izenburuko ikerketa kaleratu zenetik (1911) kultura eta arrazaren artean zeuden gaizkiulertze eta nahasteak erabat argiturik agertu ziren. Garai hartatik aurrera kultur bereizketak genetikaren arabera ulertzerik ez ohi da onartu. Ez eta kultur-aldaketaz jabetzeko helerazketa genetikoaren eraginkortasunik, jakina. Areago, F.Boas-i buruzko aditua den Herskovitsi berari so eginez “arrazak kontzeptua zientziari ezarritako oztipoa besterik ez dela” esan beharko genuke guk geuk ere³.

Pentsamoldeen arteko bereizketaz aritzean hurbilketa biologizisten aurrean gizarteak duen garrantzia hasi zen azpimarratzen. Horrela E. Durkheimen itzalpean sortu ziren L.Lévi-Brühl-ek ikerketak eta “gizarte irudikapenak”

-
- 1- RDGZ. BORNAETXEA, F. (1992). "Kultur Etxeak egungo Gizarte Pedagogiaren eremuan". *Eusko Ikaskuntzaren XI. Kongresua*. Kultur Formulazio berriak. Euskal Herria eta Europa. Donostia. 503-506 or.
 - 2- IBÁÑEZ, J. (1988). "Cuantitativo/Cualitativo" in *Terminología Científico-Social*. Antrophos. Barcelona 218-232 or.
 - 3- HERSKOVITS, M. eta besteak (1965). *The Mind of Primitive Man*. The Free Press. N. York 10. or.
Kultur ekoizpenak aztertu ahal izateko arrazaren kontzeptuen antzutasunaz Georges Lapassaderen ekarpenak azpimarratzekoak dira. Gehiago jakin nahian ikus Rdgz. Bornaetxea, F. (1992) "Rap, trikitrixa zein bertsoaritzak G. Lapassaderen esku" in *Bertsolari* 7.zbk. Urria, 13-18. or.

kontzeptua. Honen arabera kultur mota bakoitzak mundu fisikoa era desberdinez irudikatu bide du, eta ondorioz, sortutako kultur emaitzak behar bezala ulertu ahal izateko baldintzagarriak diren aipatutako “gizarte-irudikapen” haiek aldeaz aurretik ezagutarazi egin behar dira⁴.

Ikuspegi soziologikoa honi kritikatu psikologiaren planteamenduak datozkigu, bai garapen psikologia baita “Gestalt” deritzana ere. Kritikak antzerakoak izan arren (gizarte basatietan sortutako gizakiak, desberdinak eta aldagaiak diren neurrian, zeren arabera eraldatzen diren jakin behar da...) oinarri desberdinetakoak dauzkagu. Garapen psikologikoa tokian tokiko hizkuntzei kasu egin behar izatearena azpimarratzen duen bitartean⁵ Gestaltetik hautemate (perzepzioa) prozedurei soilik garrantzia eman behar aldarrikatuko digu.

Adierazitako gizarte zientzien bilakera hau dela medio badugu gaur egun ezagueraren eraikuntzaz aritzerik kulturaren baitan biltzen diren osagarri desberdin bakoitzari behar den arreta eskainiz. Sintesi honetan iharduten aurkitzen dira, besteak beste, M. Cole edo J. Bruner⁶. Ildo honi atxekituz, eta hizkuntz gutxiagotutakoen kasu jakin batetaz (euskarari buruz alegia), ibili gara Euskal Herriko egoeraz gure ikerketa-ekarpenetara arakatzeko bertako E.H.U.ko irakasle batzuek⁷, honako hau aipatutako azterketa zati baten azalpena duzuelarik.

-
- 4- AMERIO, P. (1987). “Groupes, representations et identites sociales” in Perspectives cognitives et conduites sociales. Del Val. Fribourg.
Descamps, J.C. (1977). *L'Attribution et la catégorisation sociale*. Peter. Berne.
Moscovici, S. (1987). “Ideologie et representations sociales” in Sur Ideologies et Rep. Soc. Paris X. Nanterre.
- 5- Ikus “Garapen Psikologiaz”:
Vygotski, L.S. (1934). *Pensamiento y Lenguaje*. La Pléyade. Buenos Aires. 1983.ko argitarapeneko 93.or. eta
Wernwe, H. (1948). *Comparative psychology of mental development*. Science Ed. N. York. 1961ko argitarapeneko 225. or.
Ikus “Gestalt buruzko jarreraz”:
Kohler, W. (1925). *The mentality of apes*. Harcourt Brace. N. York
- 6- COLE, M.; MEANS, B. (1986). *Cognición y Pensamiento*. Cómo pensamos. Estudios comparados. Paidós. Buenos Aires.
BRUNER, J. (1991). *Actos de significado*. Más allá de la revolución cognitiva. Alianza. Madrid.
- 7- ISASI, X.; ERRIONDO, L.; RDGZ. BORNAETXEA, F. "El contexto de contacto de lenguas en las vías de aprendizaje de las formas de simbolización". Euskal Herriko Unibertsitateak finantziaturiko ikerketa (UPV 096.230-H053/91).

1. KULTURA ETA EZAGUTZA

Psikologiaren hastapenetatik, zehazkiagoak izatekotan W.Wundten lehenengo ikerketatik (1916), bikoiztasun oso nabarmenen aurrean aurkitzen ginen. Alde batetik gizakia genuen psikologiarako ikergai, zeharo bestetik berriz, gizarte jakin baten emaitza kulturalak (hizkuntza barne) hizkuntzalaritza zein antropologiaren azterketarako. Muga antzu hura gainditu nahian Michael Colek argitaratu zuen 1981an “ Garapen hurbilaren arloa, zeinean kulturak eta ezagutzak elkar eragiten duten”⁸. Bertan alde aurretiko saikera ugariak bilduz⁹ eta A.R. Luriak jorratutako bideari atxekiz¹⁰ tokian tokiko gizartearen hizkuntzak nahiz hezkuntza motak bertan ekoizten diren ezaguera moten ulerkuntzarako ezinbesteko gakoak bihurtzen dira. Ikuspegi honen arabera gizakiaren ezagutzazko garapena bertako kulturaz jabetzeko jorratu behar den prozeduren ondorio gisa antzematen da. Lehen aipaturiko gestaltzaleen antzera, aurretik biologiak ezarritako hautemate sistema orokorrak aurkitzearen ordez kultur aniztasunaren bidez hurbiltzen dira aipatu hautemate-oinarrietara. Pentsakera aniztasun haiek gainera, kulturak baldintzaturiko elkarren-eraginekin loturik azalduko lirateke. Ildo honek osatzen du Vygotskyk Uzbekistan hasitako ikerketak¹¹ antropologiaren “gertaera” edota “gizarte-espazioa” kontzeptuekin harremanetan ezartzen duen bitartean¹².

Ezagutzaren garapena gizakiengan, bada, norbera bere kultur testuinguruaz jabetzeko erabilitako prozeduren arabera ulertu behar izango da ezinbestean. Honela, hizkuntza/hezkuntza binomioak baldintzatuko luke pentsakeraren eraikuntza, eta zehazkiago izanik, pentsamentuaren oinarrian dauzkagun datuak prozesatzeko moldeak (kategoria) ere bai. Izan ere, errealitate fenomenoak sailkatu ahal izateko erabilitako erizpide ontologiko, semantiko edota gnoseologikoa eraginduak azalduko litzazkiguke alde aurretik bideratutako heziketaren arabera. Baina M.Colek baieztatutako honek duen garrantziaz behar bezain beste ohartzeko pausoz-pauso segi dezagun bere barne eduki guztia azalerazi arte.

8- COLE, M. (1981). “Where Culture and Cognition Create Each Other”, espainolez “La zona de desarrollo próximo: donde cultura y conocimiento se generan mutuamente” in *Infancia y Aprendizaje* 25. zbk (1984), 3-17. or.

9- COLE, M. (1977). *Cultura y Pensamiento*. Relación de los procesos cognitivos con la cultura. Limusa. Mexico.

10- LURIA, A.R. (1974). *Los Procesos Cognitivos*. Análisis Socio-históricos. Fontanella. Barcelona (1980)

11- Ikus Leontiev, A.N. in Wertsch, J.V. (ed.) (1981). *The concept of activity in Soviet psychology*. Sharpe. White Plains, 47 eta 61. or.

12- FORTES, M. (1977) “From child to adult: Studies in the anthropology of education. Natural History Press. N.York, 27-28. or.

2. EZAGUTZA ETA HIZKUNTZA

Euskaldunen artean ezaguna dugu oso B.Whorfen hizkuntz teoriak¹³. Beraien arabera Hizkuntz komunitate bakoitzak mundua era desberdin batez eskuratzen omen du (Hizkuntz erlatibitatearen hastapena); erabiltzen den hizkuntzan datza, gainera, desberdintasun horren aurrebaldintza (hizkuntz determinismoa).

Mende honen erdian hedatutako planteamendu hauek saiatu ziren Ameriketako Colon aurreko indiar hizkuntzen arteko konparaketa egiten eta, funtsean, kultur bereizketak hizkuntzen egitura diferentei leporatu zizkieten¹⁴. B. Whorf indiar hizkuntzaz aditua zen bitartean E. Sapir mende honetako bigarren hamarkadatik ari zen fonetika sinbolikoa lantzen eta ikerketa konparatua egiten munduan zehar.

Gaur egun, dudarik gabe, hipotesi honek adierazitakoari ezin zaio zentzu hertsian eutsi. Nekez onar daiteke hizkuntza eta esperientziaren artean inolako harreman eredugarritasunik dagoenik, ezta ezagutzaren garapena bera hizkuntzak soilik mugatzen duenik. Horrela balitz elkarren arteko edonongo ulermenik galerazi egin beharko genuke hastapenetatik, baita mota guztietako itzulpenaren ahaltsuna bera ezinbestean alboratu ere. Ezin da izan honako hau, beraz, lan honetarako aldarrikatu beharko genukeen bide teorikoa. Halere, planteamendu hauek atea ireki dizkiote gizarte zientzia berri bati: gizarte-hizkuntzalaritzari hain zuzen, zeren aipatutako ezintasunak agerian utzita ere, hizkuntzen erabilerak ezagutzako prozeduren aurrean duen garrantzia azpimarratu egin digute. Ildo honetatik zabaltzen den bide horri ekinez aurkituko dugu lagungarri beranduxeago, besteak beste, W. Labov eta M. Stubbs.¹⁵

Dena den, edozein unetan eta edozein eratan ere, tokian tokiko ezagueraren aldarrikapen honen aurka mota desberdinetako egiturazaleen eraso eta etorri ohi da ulergarritasun orokorraren defentsan. Gehienetan C. Lévy-Straussen itzalpetik¹⁶ hizkuntzek azaleratzen dituzten kultur-bereizgarritasunak, esan bezala, azalpentzat

13- Berriena Patziku Perurenak kaleratutako koloreei buruzko saiakera bada ere (Erein, Donostia 1992) erroek Txillardegiengana garamatzate (*Hizkuntza eta Pentsakera*. Etor. Donostia hamabost urte lehenago). Izan ere, Sapir-Whorf zaleek alegia, hizkuntz errealitatea aldarrikatu dutenek, koloreei buruzko kultur hautematea jorratu bide dute gehien. Ikus:

Heider, E.R. (1972). "Universals in color naming and memory" *Journal of Experimental Psychology*, 18. zbk, 10-20 or.

14- WHORF, B.L. (1956). *Language, thought and reality*. Wiley. N.York
BROWN, R. (1958). "Words and things". The Free Press. N. York

15- STUBBS, M. (1984). *Lenguaje y Escuela*. Cincel-Kapelusz. Madrid 64-81. or eta 133-142. or.
HUDSON, R.A. (1980). *La Sociolingüística*. Anagrama. Barcelona (1981) 25-28. or.

16- LEVI-STRAUSS, C. (1861). *Arte, Lenguaje, Etnología*. Siglo XXI. Mexico (1971) 130-138. or.

bestarik ez dute jotzen, hau da, beren aburuz, gizaki guztiei ezagutzazko egitura amankomun berberak legozkieke.

Hizkuntzalaritzaren eremuan N. Chomskyren ekarpena dugu emankorrena¹⁷. Honen arabera hizkuntza guztiek eduki badituzte egiturazko ezaugarri berdinak. Honetaz gain, esaera orok osagarri zehatz batzuetatik eta askotariko sistema arautzailearen bidez sort daitezken ezin da pentsatu ere egin hizkuntzak aipatutako sistema arautzaileak baino aberatsagorik izan daitezkeenik. Era berean, ezingo litzateke esan ezaguera mailak aurrekoiago ala sinpleagorik direnik.

Halere, ikusiko dugunez, gizakiek sistema haiek erabiltzen dituztenean egitura arautzaileak nola eskuratu eta beren funtzionamenduan nola aurreraten diren oraingoz ikergai den neurrian, kulturazte prozeduren azterketak jorragai duen gizarte eta gizakien arteko elkar eragiketaren prozeduren premia ezin da, ez eta planteamendu teoriko honetatik, inola ere baztertu. Aitzitik, gizarte zientzietan kultur gutxiagotuen ikerketarako ulergarritasun orokorraren esanahi hertsiaz lanegiteak bertako gizarte zein gizakien berezko aldagaiaz ez jabetzea ekar dezakenez, eta ondorioz, ustekabeen bada ere, horrek kultur zein hizkuntz normalizatuen bideak besterik gabe azpimarratzea dakarkigunez, planteamendu hauek adierazitako kultur minorizatuetatik sortutako praktika nahiz teoriaren galbae kritikotik pasatzeari ezinbestekoa deritzogu. Bestela, nahitanahiez, egindako iharduna kultur txikietako ordezkatzaren aldeko lana izan liteke.

Ildo hau, ordea, ez da atzo goizetik sortua¹⁸ eta etengabe saiatu gara azaltzen gizarte zientzietako foru desberdinen artean arlo honi ekiten dioten ekitaldietan¹⁹ baina, behar bada, oraingo honetan bere arlo teorikoan gehixeago azaltzeari onuragarri deritzogu.

18- RDGZ. BORNAETXEA, F. (1983). "Hezkuntzaren Iker-Tresnak" I.P.E.S. Formazio Koadernoak. Bilbo

19- ISASI BALANZATEGI, X.; RDGZ. BORNAETXEA, F. (1991) "Euskararen Herritik Erdal Mundura" in *Elebitasuna eta Hizkuntz Jabekuntza*. XI. Congreso de la Sociedad Española de Lingüística Aplicada.

RDGZ. BORNAETXEA, F. (1991). "La référence spatiale (symbolique et physique) dans l'apprentissage scolaire de la deuxième langue" in 19. Congrès annuel S.P.A.Q. Montréal, Québec.

RDGZ. BORNAETXEA, F. (1992). "Euskal-Herriko zenbait kasu ezagutzazko psikologiaren historiak jorratutako ildo klasikoen arabera ikerturik" in V Symposium de la Sociedad Española de Historia de la Psicología. Donostia.

RDGZ. BORNAETXEA, F. (1992). "La importancia del espacio simbólico en la recuperación de las lenguas minorizadas" in O uso das línguas na perspectiva da Europa Comunitaria Seminario coordinado Departamento de Filología, Teoría da literatura e linguística galega da Universidade de Vigo e Associacimto galeda ga Lingua. Ourense.

RDGZ. BORNAETXEA, F. (1992). "El contexto de contacto de lenguas en las vías de aprendizaje de las formas de simbolización" in X. Congreso Nacional de Pedagogía. Salamanca.

Goian adierazi bezala, ezagutzazko eraikuntzan tokian tokiko kultur zein hizkuntzen garrantzia azpimarratu nahi dutenen aurka jotzen du estrukturalismoaren ikuspegiak. Azken bide honetatik eratorria dugu F. Saussureren ekarpena (1916) zeinean hizkuntzaren ikerketarako eredu teoriko eta orokor baten premia aldarrikatzen den. Horretarako sortzen digu hizkuntza/hizkera binomioa. Funtsean, beraz, dagoen guztia sailkatu ahal izateko baina, “malgré-lui”, era estatikoegi batez.

N. Chomskyk (1967) ordea, ildo beretik joanez, eredu dinamikoagoa asmatuko du, izan ere, sortzaile/eraldatzailea; gaitasun hutsa (barne egiturari dagokiona)/ekoizpen-gaitasuna (azaleko egitura) binomioa. Horrela antzemango da arau multzo mugatu batetik abiatuz esaera multzo mugagabea sortzeko, ulertzeko eta eragiteko hiztun batek duen ahalmena. Horixe adieraziko digu gaitasuna kontzeptuak (competence). Ekoizpen-gaitasunak (preformance) berriz, hiztunaren jokaera enpirikoa azalduko du.

Gaitasun hutsari dagokio, bada, barne eta azalekoaren arteko egituren kontraesana: Gramatika. Honen arabera uler daitezke esanahiak eta ikurren arteko erlazioa; ulermen semantikoa/barne egitura eta irudikapen fonetikoa/azaleko egitura. Azken hauek, ondorioz, desberdinak izan arren ulermen semantiko berdinez eduki dezaketenez, ezin da barne egituretara heldu azaleko egituretatik soilik. Aitzitik, ezinbestekoa dateke eredu teorikoa (abstraktu/hipotetikoa) izatea ulermena behar bezala ziurtatzeko. Ezinezkoa dugu ekoizpen-gaitasunatik gaitasun hutsara, besterik gabe, pasa. Gaitasuna ezin da induzitu ekoizpen-gaitasunatik baizik eta ekoizpen-gaitasuna gaitasun ahalmenetik abiatu deduzitu egiten dela. Horrexegatik deritzogu Chomskyren teoriari “sortzailea”, eragiketa praktikoak alde aurreko gaitasun teoriko jakin batetik nola sortzen duen azaldu egiten baitigu. Horrexegatik, era berean, “eraldatzailea” dela diote, barne egiturak azaleko egituren forma nola hartzen duten argitu egiten duelako, hain zuzen.

Halere, Saussurentzat hizkuntza gizarte osoari bazegokion ere (nolabaiteko erakunde mota bat izanik), Chomskyrengan gaitasuna gizakiari dagokiola antzematen da. Azken honen teoria dinamikoagoa izan arren (sortzaile eta eraldatzailea izateagatik) gizarte hizkuntzalaritzaren ikuspegitik ordea, oraindik mugatuegia dirudi bere “sortze prozeduretan”. Hau da, matematikaren prozeduren antzera barnearen azalpenaren berri ematen digu besterik ez. Eraikuntzak nola eragiten diren alegia, baina inola ez ekoizpen prozeduren ardatzak zertan datzaten.

Bide induktibista hutsak agerian uzten baditu ere. Berari esker teoriaren premia inoiz baino garbiago aldarrikatzeko beharra izan arren, bere ereduak balio digu sistema noologikoak (ideietakoak, hain zuzen) ikertzeko, ez ordea sistema

soziologikoak ulertarazteko. Chomsky dela medio argiagoa daukagu semantikaren ardatzak, ez pragmatikarenak. Informazioaren tratamendua azalerazten digu, eta ez da gutxi gero!, baina gizarteratze zein kulturatze prozeduraz apenas ez digu berririk eskaitzen. Izan ere, hizkuntzalaritza hutsean goi mailakoa dugu, ez noski gizarte hizkuntzalari gisa.

Esanahia hizkuntza jakin batek dioena baldin badugu eta zentzua, hizkuntza horrek, bere testuinguruan, adierazten diguna, Chomskyren teoriak lehenengoari ekingo lioke besterik ez. Baina zentzua izendatu dugun bigarren kontzeptu horretaz jabetzeko beste bide bat jorratu behar izango dugu. Hauxe litzateke bere ekarpenaren muina eta, jakina, bere teoriaren muga ere bai. Bide honetatik joanda Chomskyren teoriaren kritikalako beste galdera orokorrak irekitzerik badago ere²⁰, oraingoz, gure ikerketaren atzean dagoena ulertu ahal izateko puntu honetan bertan geratzea dirudi egokiena.

Izan ere, ezagutzazko ekoizpen prozedurak aztertzerakoan guri gehien interesatzen zaiguna zentzua/ esanahia eta hizkuntza ezarria/ hizkuntza abstraktoaren arteko binomioekin lanegitea denez²¹ (eta ez Chomskyrenagan ez eta egiturazaleengana horretarako inolako ekarpenik aurkitzen denik) beste bide bat jorratzeari ekin behar izango diogu. Horretarako, eta orain arte azalduakoa berriro gogoratu, “Garapen hurbilaren arloa” hona erakartzeari ezinbestekoa deritzogu.

Lehen esan bezala, gizarte bakoitzak sortzen duen ikur-espazioaren kulturatze prozeduren bereganatzean datza bertako kidearen ezagutzazko ekoizpena. Hau da, horrelako bakoitzaren hizkuntz/hezkuntzaren binomioaren arabera sortuko da ezaguera mota bat ala bestea. Mundua kategorizatze informatzioen sailkapen mota batean besteetan baino gaiagoa ibiltzearena eta ondorioz, egokitutako hori eta ez besteak garatzearena. Beraz, ezagutzaren ekoizpenak ez dira guztiz askeak baizik eta kulturak garatzen duen leku-sozialaren menpekoak.

20- KRISTEVA, J. (1969.) *Semeiotiké*. Seuil. Paris. Sistema noologikoen ikerketarako biologiaren eredu aldarrikatzen du Chomskyren bezalako sistema itxiegietatik ihes egin nahian mundu fisikoak berak ezartzen dituen moduen arabera.

PASK, G. (1976). *Conversation Theory*. Elsevier. N.York. Vygotskiren teoriaren baliatze eta matematika garaikidearen laguntzaz (Spencer-Brown 1971) hizkuntzaren ikerketarako hemen proposatzen den bideak pragmatikaren arloa jorratzen du gehien mota guztietako gramatikaren kaltetan.

21- COLL, C. “Significado y sentido en el aprendizaje escolar” in *Infancia y Aprendizaje*, 48. zbk. 121-135. or.

Menpeko ezagutzazko ekoizpen hauexek, gainera, Vygotskyk ongi asko adierazten duenez²², bi ardatzen arabera garatuz doaz: Testuinguruan oinarritutako hizkuntz zehatz batetik destestuinguratzerara doan arloan alde batetik, eta tokiko hizkeratik mintzaira abstraktuetarako garatzen den bidean bestetik. Edo beste modu batez esanda, zentzuaren ulerkuntza hertsitik esanahi orokorraren konkistatzerara.

Guzti hau, ordea, ezin da antzeman hizkuntza bakoitzatik at, edota gure kasuan bezala, hizkuntz ukipen egoera jakin batetik at. Izan ere, aipatu bezala, hizkuntz gizarte egoerak moldatu eta, neurri handi batetan ere, baldintzatu egiten baitigu kulturazte prozeduren menpekota den ezagutzaren ekoizpena bera²³.

Horrexegatik, pentsakeraren heterogeneitateaz eta hizkuntz aniztasunen artean dauden harremanak behar bezala aritu ahal izateko, har dezagun beharrezkoa zaigun tartea. Jarraian duzue...

3. HIZKUNTZA ETA PENTSAKERA

Goian adierazi bezala ez dugu hemendik aldarrikatzen, Sapir-Whorfen antzera, hizkuntzak pentsamoldeak bideratzen dituenik. Aitzitik, luzez esplikatu dugunez, ontzat hartzen ditugu estrukturalisten aldetik nahiz Chomskyzaleen partetik horri buruz datozen kritikak. Alegia, hizkuntz determinismo mekanikoaren ahulezia teorikoa bistan denez ezin dela esan inongo hizkuntza besteren bat baino “garatuagoa” edota “egokia” izan daitekeenik. Bai ordea, Vygostky, Luria eta Leontievek frogatu zuten bezala, pentsamentu eskema unibersalistak gaintitu behar direla beren garapenerako oinarrian dauden ezagutzazko prozedurak kultur baldintzatzearen menpekotasuna onartuz²⁴.

Hauxe dela eta, egun garatzerik badugu bere garaian ez Vygostkyk ezta Luriak berak ere ondorioztatzerik izan ez zutena²⁵. Hizkuntzak ez ditu zuzenean

22- VYGOTSKY, L.S. (1934). *La imaginación y el arte en la infancia*. Akal. Madrid. 1982

23- HAUGEN, E. (1972). *The ecology of language*. Stanford University Press. California.

Sanchez Carrión, J.M. “La nueva sociolingüística y la ecología de las lenguas” *Eusko Ikaskuntza* (Aingeru Irigarairi omenaldia) Donostia 327-349. or.

24- LURIA, LEONTIEV, VYGOTSKY (1979). *Psicología y Pedagogía*. Akal. Madrid

25- TULVISTE, P. (1992). “Diversidad cultura y heterogeneidad en el pensamiento” *Apuntes de Psicología*. Sevilla 35. zbk. 7. or. “En los primeros años, Luria no pudo publicar estos datos recogidos entre 1931 y 1932, ya que se trataba de un momento difícil para la Psicología en Rusia, y en general para todas las áreas del pensamiento. En concreto, Luria tuvo problemas al ser acusado de buscar un tipo de pensamiento primitivo en el colectivo de campesinos soviéticos de Asia Central, así como de otros tipos de estúpidas críticas ideológicas. Por estas razones, Luria se vió obligado a abandonar la publicación de sus datos durante treinta años”.

pentsamoldeak baldintzatzen, jakina, baina kulturak bai, eta zehazkiago gizartearen egoera soziolinguistikoak berak. Hortxe dugu gakoa. Baina hobeto ulertarazteko, hona ekar ditzagun guztiz lagungarriak diren Peeter Tulviste irakaslearen ikerketak²⁶.

Jakina denez, Luriak eta Vygotskyk pentsamentuaren garapena baldintza sozio-historikopean kokatu ohi dute. Garapen psikologia klasikoaren arabera, Piageten teoriaren arabera esate baterako, ezagutza subjektu eta objekturen arteko elkarren eraginez eraikiz doan bitartean, sobietar psikologiak tartekatzen ditu harreman hartan bertako gizartea zein kulturen aurrebaldintzak²⁷, eta funtsean hizkuntzaren erabilera. Hau da, eskolatze zein alfabetatze edota hizkuntz normalizazioari buruzko bertako egoera medio hurbilduko dira ezagutzazko prozeduren bilakaera hartara. Piagetentzat ezagutza ekintzetan eta eragiketetan oinarritu bide da bere desarroilorako. Sobietarrek, kultur baldintzaren barnean hizkuntzaren egoera (gehienetan beren ikerketetan ikusi denez, hizkuntz ukipen egoera diglosikoa besterik ez dena) aipatzen dute ezinbezteko tartekari gisa. Piageten eraginez alde batetik eta, Stalinismoaren ondorioz bestetik (ikus 25. oharra), hizkuntz ukipen kultur egoera diglosiko horrek nola baldintzatzen duen pentsakeren ekoizpena ez da behar bezala aintzakotzat hartu. Ondorioz, ikertu ahal izateko Peeter Tulvisteren bezalako laguntzak eduki arte itxaron behar izan omen dugu.

Tulviste Luriaren ikaslea eta lankidea izan zen Moskuko Psikologia Fakultateko lehenengo promoziotik (hirurogeigarren hamarkadatik hain zuzen). Ezagutzaren garapenari buruz Uzbekistanen egindako antzerako ikerketak jarraitzerik izan zuen Siberiako Taimurreko Ganasanz herritarren artean, eta egun Estoniako Tartu Unibertsitatean dugu irakasle nahiz eta, era berean, EE.BB.etako Clark Unibertsitateko ikertzaile taldearekin aritu eta, horrexegatik besteak beste, M. Cole eta J. Brumerrekin harremanetan egon.

Tartuko Unibertsitatean aspaldidanik kultur semiotikari buruzko ikerketen tradizioa egonik²⁸ alde batetik, eta Ganasanztarrekin pasatutako egonaldiek bestetik eragiten zuten Tulvistengana aurreko sobietar psikologiaren ekarpena gizarte hizkuntzalaritzaren arabera birformulatuz²⁹. Horrela, bere ikerketek

26- TULVISTE, P. (1987). "The cultural-historical developement of verbal thinking". A psychological study. Valgus. Tallin

27- Gogoratu ezazue Vygotskiren lehengoetariko itzulpenak J.Piaget-en eranskin kritikoak eta guzti mendebaldartu zirela (ikus besteak beste, *Pensamiento y Lenguaje* 5. oharra).

28- LOTMAN, J. (1979). *Semiótica de la cultura*. (La escuela de Tartu) Cátedra. Madrid.

29- "Un pequeño grupo llamado Ganasanz que quizá debido a que tienen una alta estima sobre ellos mismos han preservado su propio lenguaje, cultura, etc.... La comunicación fué bastante fluida con este grupo étnico ya que los hombres, a diferencia de las mujeres que únicamente hablaban su lengua nativa, hablaban además el ruso". (op. cit. 25. oharra)

erabiltzen duten ikuspegi berri honen arabera, egun esan dezakegu kultur eta gizarte hizkuntzen egoerak baldintzatzen duela bertan ekoizten den pentsakera mota. Hau da, ildo honetatik, pentsamentuaren heterogeneitatearekin topo egiten dugunean gizarte ikertzailearen galderak izan beharko lirateke:

- Nola sortzen dira pentsakera aniztasun haiek?
- Zertan dira bereziak?
- Nola antzeman daitezke berezitasun haiek?
- Nola pasatzen da pentsakera batetik bestera?
- Nola hautatzen da pentsakera mota bat ala bestea erabiltzearena? (“metaezagutza”ren deskripzioa, hau da ezagutu ahal izatea zer-nolako ezaguera erabili beharra dagoen testuinguru bakoitzean...)

Izan ere, pentsakera desberdinak ekoizten direla ez hizkuntzaren eraginez egoera soziolinguistikoa onduz baizik, argitu ondoren irekitzen diren galdera berriei erantzuteko gizarte hizkuntz egoeraren deskripzioaz ulertu dena, eta ulertzen dena azaltzeari ezinbestekoa bihurtu zaigu. Hori bera zehazten saiatuko gara hurrengo ataltxoan.

4. GUTXIENGOEN KULTURAK, HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAK ETA PENTSAKERA DIBERGENTEAK

Beraz, pentsamentua sortu, eraiki, garatu eta ekoiztu egiten baldin bada dagoen kulturaren arabera, eta era berean, baldintzagarriztat jotzen den kultura jakin batetat jabetzeko bertako egoera soziolinguistikoa nola ekoiztu zein birrekoizten den jakin behar baldin bada, ahal den neurrian, hori bera argitzea eta azaltzea ezinbestekoa daukagunez, kultura hitz horren atzean dagoen kontzeptu zehaztetik abiatzea litzateke oraingo honetan egokiena. Horretarako, eta kontzeptuari duen garrantzia aitortuz premiazkoa zaigun zehazkizuna lortuz saiatzen garen bitartean,

“...Estilos de habla y modos de pensamiento: todo lo que venimos diciendo se encuentra estrechamente relacionado con aspectos que han sido estudiados en la llamada lingüística social” (ibidem 13. or.)

Herriaren autokontzeptua dugu, hain zuzen ere, gizarte hizkuntzalaritza garaikideak gehien azpimarratzen duen faktoretariko bat (“hizkuntz komunitatearen trinkotasuna”). Ikus Sanchez Carrion, J.M. (1990) “Los espacios de la desigualdad: Patología social y conciencia lingüística” in Hizkuntza/Hezkuntza. UPV/EHU. Bilbo 15-44. or.

lehen aipatutako Lévi-Straussek (*La pensée sauvage*-1962) honetaz zioena gogoratu egingo dugu: “Kultura, funtsean, komunikazio era bat da”³⁰.

Baina antropologo guztiek azpimarratzen dutenez munduan komunikazio era desberdinak izanik³¹ gizarteetan zabalduena dugun egoera komunikazio ukipenarena dugu. Aipatutako egoera haiek deskribatu eta ulertarazteko erabili ohi da gizarte-zientzietan eredu ekologikoa³². Horren arabera, eta mota guztietako glotofagiak ekiditu nahian ukipen kulturetan komunikaziorako erabiltzen diren hizkuntzak definitzen dira minoritario/minorizatu binomioaz baliaturik³³.

Pare hori dela eta, gutxiengo baten hizkuntza erabat normalizaturik egon daiteke, eta berarekin ukipen egoeran aurkitzen dena baino txikiagoa izan arren (suomiera eta suediera adibidez) horrek ez luke esan nahi inolako ordezkapen prozeduran sarturik egon daitekeenik. Hizkuntza minoritarioa litzateke hori, besterik gabe. Alderantziz balitz, ordezkapenen zein atzerapen prozeduraz jota egongo balitz, hizkuntza eta kultura hori gutxiagotzen ari dela esango genuke. Hizkuntz gutxiagotua dela, minorizatu alegia. Eta hau hizkuntzari dagokion hiztun kopuruari so egin gabe, zeren hizkuntz handiak gaur egun gutxiagotuak dauden era berean (frantsesera Kanadan edota espainolera Puerto Rico...), arrazoi gehiagoz hizkuntz txiki asko minorizatuak dauzkagu ere bai.

Planteamendu honek hizkuntz ukipen egoeran aurkitzen diren gizarteak era dinamiko batez ulertzea erraztuko digu. Baita haietan pentsamentuaren ekoizpenerako erabiltzen den funtsezko tresna, hizkuntza/hezkuntza binomioa, antzematen eta operatibizatzen lagunduko ere.

30- Ez gara inolako sinplismotan ibili nahi. Badakigu jakin, kulturaz ulertzen dena zabala dela oso, Kroeber-Klueklon (1952) arakatu zuten bere definizioa (*Culture: A Critical Review of Concept and definition*) eta lan luzea egin behar izan zuten horretarako. Egun, ordea, kulturaren definiziorako hurbilpen orokorrak eginda ere, adibidez J. Azconak (1988) burututako lanak (*Para comprender la Antropología* 2. tomo, La Cultura. Verbo Divino, Estella.) Lévi-Straussek erabiltzen duen komunikazioaren zentzua dugu onartuena. Antzekoa gertatzen zaigu kultur ekoizpen definizioa argitzerakoan (Savranski, I. (1973) *La cultura y sus funciones*. Progreso. Moscu. 1983, 80. or.) zeinean berriro ere komunikazioarekin topo egiten dugun.

31- LEACH, E. (1981). *Cultura y Comunicación*. Siglo XXI. Madrid.

32- JANER MANILA, G. (1982) a *Cultura popular i ecologia del llenguatge*. Ceac. Barcelona.

33- MOLLA, T.; PALANCA, C.; VIANA, A. (1987). *Curs de Sociolingüística*. Bromera. Valencia. Euskaraz badago honetaz zenbait itzulpen “Munduko hizkuntzak” (J.L. Ormaetxea) “Irakaskuntza, hizkuntza eta gizarte” (E. Agirre) Jazten, Arrasateko aldizkarian argitaraturik. Aly, J. eta beste batzuk (1992). “Educations dans une langue minorisée”. Cahiers de Recherche Langues et cultures opprimées et minorisées. Université Paris VIII. Saint-Denis.

Halere, azken hauxe lortzeko oraindik gehiago zehaztu behar izango dugu hizkuntz ukipen egoeretan gizarte hizkuntzalaritzak eskaintzen dizkigun kontzeptuak. Besteak beste, elebiduntasun gehikorra nahiz kenkorra eta elebiduntasunaren kontzeptua bera.

Hizkuntz ukipenetan bertako hiztun batzuk hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko gai direnean elebitasun egoera dagoela esan ohi da³⁴. Halere, bistan denez eta goian aipaturikoaren arabera, elebitasun egoerak oso diferentek direnez, batipat bigarren hizkuntzak ikasteko Kanadako “Murgiltze” deritzaneko metodoa zabaldu zenetik, elebitasun egoerak sailkatu ahal izateko “kenkorra” eta “gehikorra” hitzak erabili dira³⁵.

Bigarren hizkuntza ikasteak ez baldin badu lehenengoa galtzea erakartzen, lortutako elebiduntasuna “gehikorra” dela esaten dute. Hau da, jatorrizko hizkuntza galdu gabe bigarren batekin gehitu egiten da ondare kulturala. Portaera hau gizarte prozeduraren bidez eskuratzen denean, eskolatzean hain zuzen, hiztunen jatorrizko hizkuntza ezin da gutxiagotua izan, bestela hizkuntz ordezkatzeari garatuz doa elebiduntasuna “kenkorra” bihurtuz. Hau da, hiztuna jatorrizko hizkuntza minorizatua galduz doa.

Guzti honek, noski, harreman zuzenean dago gizarte jakin hartan hizkuntza bakoitzak duen normalizazio statusarekin. Horrela hizkuntz ez-minorizatutako hiztunek eraman dezakete bere eskolatzeko prozedura bigarren hizkuntz gutxiagotutako batez (Quebec-en anglofonoak frantseseraz eskolarizaturik, esate baterako). Ez dute berea galduko eta bestea, ordea, ondo asko izango dute hartzerik. Alderantziz ordea, hizkuntz gutxiagotutakoak hizkuntz indartsuan eskolarizaturik berea galtzen dute eta bestea eskuratzeko zailtasunez ibiliko dira³⁶.

Beraz, hizkuntz ukipen egoeretan elebiduntasun gehikorra lortzeko eskolaratze prozedurak (alfabetatzea nahiz matematiken oinarriak eskuratzeari) gutxiagotutako hizkuntza ardatza delarik, eraman behar dira aurrera. Hau da, hizkuntza ez-minorizatuak hiztunek hizkuntza minorizatuak ikasi beharko lukete eta hizkuntz minorizatuak hiztunek baita hizkuntz gutxiagotuan ere lehenengo

34- MACKAY, W.F.; SIGUAN, M. (1986). *Education et bilinguisme*. Unesco/ Deauchaux- Niestlé. Lausanne, 11-14. or.

35- LAMBERT, W.E. (1975) “Culture and language as factors in learning education” in *Education of immigrants students*. A. Wolfgang. OISE. Toronto.

Rdgz. Bornaetxea, F. (1992) “Gaztelaren irakaskuntza euskal eskolan” in *Isilik* 15. zbk. 37. or.

36- SANCHEZ CARRION, J.M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia, 158-164. or.

ikur eragiketak ikasi. Horrela, nahiz eta prozedura desberdinez, abiapuntua desberdina baita, lortutako hitzunek elebiduntasun gehikorren egoeran aurkituko lirarteke.

Baina zer-nolako onik ala txarrik dakarkio elebiduntasun gehikorra delako honek subjektu hauei? Izan ere, Kanadako “murgiltze” metodoa medio Hezkuntz zein Gizarte zientzietan, elebiduntasunari buruzko ikerketak era berri batez ikustatzerik badago³⁷ ere elebiduntasunak pentsamentuaren ekoizpenarekin duen harremana behar bezala zehazteko alde zuretik hurrerango binomio baten edukiaz jabetu behar izango gara: Elebitasun/Elebiduntasuna³⁸.

Horrela, Elebitasuna gizarte egoeraz aritzeko erabiltzen dugun bitartean, Elebiduntasun gisa ezagutuko dugu subjektuak informazioa prozesatzeko (egoera elebidunetan hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko gai den hitzuna, alegia) duen egitura kognitibo berezia. Elebiduntasuna, elebitasunaren antzera, beti hizkuntz gutxiagotuaren erreferentziatik ikustaturik, gehikorra ala kenkorra izan daiteke. Horren operatibizazio zehatza egin ahal izateko lantzen ibili gara X. Isasi irakasleak sortutako “elebiduntasunaren indizea” eta “elebiduntasunaren testa”³⁹.

Aipatutako ikerketaz behin baino gehiago ihardungo badugu ere, oraingo honetarako subjektu elebidunen pentsakeraren ekoizpenaz aritzeko bereziki erakarri nahi esango genuke hona. Izan ere, L. Balkanen ikerlanak kaleratu zirenetik⁴⁰ (1979) elebitasun egoeretan eskolarizatutako subjektuen pentsamentu ekoizpena bereziaz jabeturik gaude. Hau da, hizkuntz gutxiagotu batetan (elebiduntasun gehikorrean, noski) ikasteak ez dakar soilik ondoriozko hizkuntza bat gehiago jakitea, errealitatetik jasotako datuen barne antolaketarako malgutasun handiagoa edukitzea baizik.

Jakina denez, gauzak izendatzeko kode bat baino gehiago aukeratzeko erabili baldin badaiteke, mundu fisikoa eta hizkuntzaren artean elebarkarrek daukaten harreman hertsia ordez, erlazio plastikoagoa da elebidun gehikorrek egunerokotasunean etengabe lantzen duena.

37- CALVE, P. (1991) “Vingt ans d’immersion au Canada (1956-1990)”. *E.L.A.*, 82. zbk, 7-23. or.

38- HAMMERS, J. F. ; Blanc, M. (1983). *Bilinguisme et Bilinguisme*. Mardaga. Bruxelles

38- ISASI, X.; YENES, F.; LOPEZ JAUREGI, A.; ELOSUA, P. (1992) Elebiduntasunaz. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila. UPV/EHUko Psikologia Fakultatea, Donostia.

40- BALKAN, L. (1979) *Los efectos del bilinguismo en las actitudes intelectuales*. Marova, Madrid, 1984.

Elebiduntasunaren indizea neurtzen denean⁴¹ gainera, adierazitako malgutasuna elebidun positiboaren pentsamentu dibergenterako joeraren berri ematen digu. Baina azken hau gehixeago azaltzea merezi duelakoan, hurrengo lerrotan honetaz arituko gara era zehatzago batez.

Ohizko testetan Adimen Koefizientea inferitzeko erabilitako pentsakera mota murriztegia behin baino gehiago izan da salaturik⁴².

Adimena pentsamentu konbergentez nahiz ezaguera sintetikoarekin parekatu ohi da. Hau da galdera jakin bati erantzun bat soilik bilatzen diona⁴³. Gure ikerketetan, ordea, joera kontrakoa azaltzen zaigu, hau da, elebiduntasun indizea zenbat eta positiboagoa den neurrian, emandako hitz zerrendetan normaltasun estatistikotik hainbat eta haratago aurkitzen diren subjektuak⁴⁴.

Beste hitzetan esanda, elebidun gehikorrak (+) pentsakera sortzaileagoa ekoizten dutela dirudi. Honek, mota desberdinetako ondorioak ateratzera garamatza, eta saiatuko gara ateraerazten behar denean eta beharko diren lekuetan dudarik ez, baina dagoeneko finka ditzagun pentsakera dibergentearen erabilera subjektu elebidunen aldetik ekoizpen berezia antzematen dela alde batetik, eta bestetik, horrek estimulu jakin baten aurrean informazio antolaketarako ohizkoak ez diren kategorizazioak eskatzen dituela.

Aipatutako guzti hau, noski, bai egiten ibili garen ikerketa aplikatuaren arabera (ikus 7. oharra), baita orain arte jorratutako ildo teorikoaren arabera ere ulerturik, zeren elebiduntasun indize positiboetan(+), elebiduntasun gehikorretan eskolatutakoen artean. Hau da, hizkuntz ukipen egoera jakin batean gutxiagotutako hizkuntzen hiztunengan izango genuke aurkitzerik adierazitako kategorizazio, edota pentsakeraren ekoizpen berezi hura. Halere, baldintzak eta

41- 91/92 ikasturtean zehar X.Isasi, L. Erriondo eta hirurok Elebiduntasunari buruzko mintegia zuzendu genuen Urola Bailaran eta Zarautzko Pedagogia Aholkularitegiarekin batera bertako eskola guztietan (Publiko, pribatu zein ikastola) 4., 5., 6., 7. eta 8. mailako D ereduko ikasleei "Elebiduntasunaren Testa" pasa genien norberaren subjektuaren Eleb. indizea hitz-jarriotasun oinarrituriko zenbait froga bidez kalkulatzeko asmoz..

$$\text{Eleb. Indizea} = \frac{\text{Euskararen hitz kopurua} - \text{Espainolezko hitz kopurua}}{\text{Euskararen hitz kopurua} + \text{Espainolezko hitz kopurua}}$$

42- BAKER, C. (1988). *Key Issues in Bilingualism and Bilingual Education*. Multilingual Matters, Clevedon. Euskaraz liburu honen bigarren atala itzulita dago, Baker, C. "Elebitasuna eta funtzionamendu kognitiboak" in Tantak, 5. zbk. 25-50. or

43- GILFORD, J.P. (1982). "Cognitive Psychology's Ambiguities" in *Psychological Review*, 89. zbk. 48-59.

44- TORRANCE, E.P. (1974). *Torrance Test of Creativitate Thinking*. Lexington Mass. Ginn

guzti, jaurtikitutako baieztapen honen ondorioak zehatz-mehatz argitzen saiatzea merezi duelakoan, oraingo honetako azken atalean aipatutako horri ekingo diogu.

5. KULTUR GUTXIAGOTUAK ETA PENTSAKERAREN INDEPENDENTZIA

Hasiera batetan, logikoa dirudi kultur ukipen egoeretan normalizatu gabeko hizkuntzetako (hizk. gutxiagotuetako) hitzunen emaitzak normalitate estadistikotik at egotearena. Izan ere, hizkuntza indartsuaren hitzunek moldatzen baitute estatistikaren normaltasuna izango dena eta.

Bestalde, baieztatutako honek azpimarratu eta frogatu egiten du lan honetan zehar orain arte azaldutakoa. Alegia, Kulturak, eta zehazkiago komunikazio egoera zehatzak, baldintzatzen badu ekoiztutako pentsakera, ezaguera bera antzemateko erabilitako iker-tresnak subjektuen emaitzetan isladatuko digu dagoen hizkuntz ukipen egoera eta, jakina, hizkuntz gutxiagotako hitzunen, beraien hizkuntzaren antzera, normalizatu gabeak bezala azalduko zaizkigu. Azken hau, era arrunt batez ulertzen bada ez gabiltza gaizki, zeren eta honek dituen ondorio kognitiboak ondorioztaraztea izango da gure hurrengo saiakera. Espero dezagun, gutxienez, aurrekoaren adina argia gera dadila.

Horretarako gogoratu behar izango dugu hastapenetan pentsamentua ekoizteko aurrebaldintza dugula datuak prozesatzeko sistema⁴⁵, informazioen sailkapenerako zirkuitoa⁴⁶ edota errealitatearen fenomenoak klasifikatzeko erabilitako kategorizazioa⁴⁷, eta hauxe dela hain zuzen, kulturaren galbaetik datorkigun eragina⁴⁸.

Metaezagutzaren historian aspaldidaniko erreferentziak dauzkagu Aristotelek, kategoriei buruz, bai logika baita metafisikan ere, maneiatu zituenak. Logikan kontzeptuak klasifikatu ahal izateko alde batetik, eta ontologian izaeraren eraikuntzaz zein ulerkuntzaz aritzeko bestetik. Bere eskemaren araberrako hamar kategoriak (berezkotasuna, kantitatea, kualitatea, harremana, lekua, denbora, egoera, jabekuntza, eragiketetasuna eta pasioa) eskolastikaren bidez helduko dira modernitatera Kantek birsailkatu arte (kantitatea, kualitatea, harremana eta

45- ARBID, M.A. (1976). *Cerebros, máquinas y matemáticas*. Alianza. Madrid.

Changeaux, J.P. (1983). *L'homme neuronal*. A. Fayard. Paris.

46- LURIA, A.R. (198). *Lenguaje y Pensamiento*. Fontanella, Barcelona.

47- BRUNER, J. (1986). *Realidad mental y mundos posibles*. Gedisa, Barcelona, 1989

48- LURIA, A.R.; YUDOVICH, F.I.A. (1978). *Lenguaje y desarrollo intelectual en el niño*. Pablo del Río. Madrid.

moduaren arabera). Bai Fichte, bai Hegel baita Marx edota Hartmann saiatuko dira birmoldatzen ezagueraren oinarriak ikertzeko egokienak izan zitezken errealtatea klasifikatzeko erizpide hauek, baina edozein eratan ere, kategorizazioaren garrantzia pentsamentuaren ekoizpenean etengabe izan dugu azpimarkaturik.

Izan ere, errealtatearen datuak ezaugarri fisikoen arabera multzokatzearen orde (hautemateari legokiokkeen sistema) beste motako ezaugarrien arabera (funtzionalitateaz adibidez...) bildu eta sailkatu egiten direnean, kategorien bidez ari dela kontzeptuak sortzen esan daiteke.

Bereizketa hau medio jakina denez, bai Luriak baita Vygostkik ere, pentsamentu ezarria eta abstraktuaren arteko bereizketa egiten zuten. Egun, ezagutzaren garapeneko teoriak, ordea, ez luke baieztapen hori horren erraz egingo⁴⁹. Kultur ikerketa erkaketan jorratutako bide honek klasifikatzeko erizpideen sorrera zein bilakaera aztertuz, hautematean oinarritutako sailkapenetatik eragiketasunean fondatutako multzokatzera nola pasatzen den argitu bide du⁵⁰. Horrela ustezko bi pentsamentu desberdinen arteko sasimuga ezabatuz, kategorizatzearen ekoizpenaren berri ematen digu. Funtsean, irizpide funtzionalen sorkuntza azalduz eta beren praktiketan hautatutako ikuspegi araberako klasifikazioetan alegia, errealtate berberaz aritzeko zenbat irizpide-mota diren erabilitakoak agertzen digute⁵¹.

Honek, aurreko garapen psikologiarekin alderatuaz, ikaragarriko aurrerapen teorikoa ekartzeaz aparte bideak irekitzen dizkigu kognitiboki behatzeko zer-nolako pentsakeraren ekoizpenak egiten diren sailkapenetan erabilitako irizpideen arabera.

Gure ikerketarako berebiziko garrantzia eduki badu honek, zeren, ikusiko dugunez, hizkuntz ukipen egoeretan elebakarrak (hizkuntz indartsuen hiztunak) eta elebidun negatiboek (-) errealtatea sailkatzean irizpide bakar bat erabiltzeko joera azalduko digute (txirotasun kognitiboa/iker-tresnaren menpekotasuna) elebidun gehikorrek (+) beren multzokatzetan irizpide bat baino gehiago erabilerarako portaera erakusten diguten bitartean (aberastasun kognitiboa/iker-tresnatik askeak).

49- BRUNER, J. (1990). *Actos de significado*. op. cit. Ikus 6. oharra 47-76. or.

50- BRUNER, J.S.; OLVER, R.; GREENFIELD, P. (1966). *Studies in cognitive growth*. Wiley, N.York, 286-316. or.

51- Ikus in Cole, M. *Cultura y pensamiento* op. cit. (9. oharra) Sharp/Colek Yucatanen egindako ikerketak, 103-120. or.

Kultur gutxiagotutako subjektu hauen portaera kognitiboa erabat lotuta agertzen da eguneroko komunikazio estrategietan erabili behar izaten duten joerarekin. Hau da, testuinguru bakoitzean eta edozeinen aurrean erabili beharreko hizkuntza hautatu behar izatea eta, bere kasuan berehalako autozuzenketa eta kode/hizkuntzaren aldaketa egin behar izatearena ere. Komunikaziorako landu behar izateko aukerazko gaitasun hau ongi asko ikertu du Kanadako adibideetan Mc.Gilleko irakaslea den Fred Genessek⁵². Hauxe medio, esan genezake bai afektiboki, bai hizkuntz pragmatikan baita ezagutzazko arloan ere elebidun gehikorrek(+) jorratu behar izan dituen portaeren bidez hain zuzen, gaitasun kognitibo malguagoa eta joriagoaren jabe egiten dela.

Izan ere, eta Vygostkik irekitako biderei atxekituz, hizkuntz ukipen egoeretan elebidun positiboak eguneroko komunikazio praktiketara (kultur pragmatikan) jarrera analitikoagoa landu behar izaten du elebakarrak edota elebidun negatiboak baino⁵³. Are gehiago, aipatutako portaera haiek direla medio, kultur gutxiagotutako subjektuek tankera kognitibo askeagoa eta sortzaileagoa ekoizten dutelakoan gaude⁵⁴. Horixe bera frogatu du “irudi sarkorraren” testa elebitasun egoera desberdinetan aplikatzeak –Witkin,H-1971–⁵⁵. Besteak beste, hori frogatzeko ere erabiltzen ari gara “elebiduntasun indizea” eta elebiduntasunaren testa” Euskal Herrian⁵⁶. Izan ere, geure eguneroko praktikaz teorizatu ahal izateak geu ere askeagoak eta sortzaileagoak egiten gaituelakoan gaude. Horregatik, eta ez da arrazoi gutxi, gero!, ekiten diegu mota hauetako ikerketei. Horregatik, guzti hori komunikatu ahal izateko hain zuzen ere, idazten dugu hau.

52- Baieztapen honen garrantziaz duela gutxi jabetu baginen ere, 1991ko udazkenean Montraleko Mc. Gill Unibertsitatean pasatutako egonaldia batetan hain zuzen (ikus *Isilik* 15. ean “Fred Geneserekin solasean”) eta 1992.an zehar horretaz sakontzeko Geneserekin bi alditan bildu baginen ere (Donostian zein Salamancan) honi buruzko lehenengo behapenak aspaldidanik argitaraturik zeuden:

Genesse, F; Tucker, G.; Lambert, W.D. (1975) “Communication Skills in Bilingual Children” *Child Development*, 46. zbk. 10-14. or.

53- IANCO-WORRAL, A.D. (1972) “Bilingualism and Cognitive Development”. *Child Development* 43., 390-400. or

54- CUMMINS, J. (1978) “Bilingualism and the Development of Metalinguistics Awareness” IANCO-WORRAL, A.D. (1972) “Bilingualism and Cognitive Development. *Child Development* 43., 390-400. or *Journal of Cross Cultural Psychology*, 9. zbk., 131-149. or.

PARADIS, M. (1978) “Metalinguistic Development of Children in Bilingual Education Programms: Data from Irish and Canadian Ukrainian-English Programs”. *Aspects of Bilingualism*, Hornbeam Press, Columbia.

55- Ikus Baker, C. “Elebitasuna eta funtzionamendu kognitiboa” op. cit. (42. ohar) 39-40. or.

Ikus Cole (9. oharra) 65-91. or.

Witkin, H. eta besteak (1971) “A manual for the Embedded figures Test”. *Consulting Psychologist Press*, California (Palo Alto).

56- Ikus 41. oharra.

6. KOMUNIKAZIOA, MINTZAIRA, HIZKUNTZA ETA HIZKERA

Informazioaren elkartrukaketa komunikazioa bada ere, ezin da esan bete-betean Mintzaira denik. Platonen *Cratylon* honi heltzen zion zuzen-zuzenean. Aristotelen *Poetika*, berriz, hizkuntza eta pentsamentuen arteko loturak aztertzen saiatu zen. Gure garaian, Saussure, Jakobson, Chomsky eta abar luze bat saiatu da aipatutako kontzeptuen arteko elkarloturak argitzen. Asko dago idatzita. Lan honen ulergarritasuna errazteko garrantzitsuena izan daitekeena, laburki esanda, azalduko dizuegu jarraian.

Greziarrentzat Mintzaira gizakiei zegokion ahalmena zen. Ez da, ordea, beti horrela uste izan pentsamentuaren historian. Montaignek, adibidez (*Essais*, II,12) animaliek, gizakiok bezala, hitzegin zezaketela zioen. Joera hau landuz Karl Von Frichek erleen “mintzaira” aztertzen saiatu zen. Berak jorratutako ildoari jarraituz, mende honetan etologian murgildutako zientzilariek animali desberdinen “mintzaira”ri buruzko datuak biltzen eta egituratzen ibili ziren Buffon zenari kontra egin nahiean. Jakina denez, Biologiaren aintzindariak animaliek ezin zutela hitzegin pentsatzekorik ez zutelako uste zuen.

Datu bilketa haiek medio ikerlari batzuek animalien artean nolabaiteko gizartea, kultura, berezko ikasketarako ahalmena bai eta mintzaira ere badagoela zioten.⁵⁷ Izan ere, animaleien artean komunikatzeko zeinu sistema adierazgarriak aurkitzerik bazegoela eta hori, berez, mintzaira ba omen zela baieztatzen zuten.

Ez du ematen, ordea, egun guzti hori horren erraz adieraz daitekeenik. Aitzitik, Homonimiaz ariko ginatke nolabaiteko “mintzaira” hori **animaliengan** antzeman nahi izatean zeren beren **kodeak mugatuak dira ez baitute historiarik**, hau da **heredentziaz jasotako sistemak** dira, funtsezko **elkarrizketarik gabekoak**. Beraz, mintzairarik ez.⁵⁸

Pentsamentuaren historian gai honi buruz jorraketa ugariak badaude ere⁵⁹ sailkatzerakoan ezarritako galdera honako hau izan da:

57- TINBERGEN, N. *Conducta social de los animales*.UTEHA.Mexico.1964.

- LORENZ, K. *Essais sur le comportement animal et humaine*.Seuil.Paris.1970.

- KORTLANDT, A. *Prothominid behavior in primates*.Symp.Zool. Soc.London.1963.

- KAWAMURA, S. *Cultural behavior in japanesse Monkkeys*. Biol Sc, 10.gehigarria.

58- HYPOLITE, J. "Information et Communication", in *Figures de la pensée philosophique*. P.U.F.2.tomoa.Paris.1971.

59- JAKOBSON, R. *Essais de linguistique générale*, Minuit. Paris. 1972.

- *Mintzairaren sorrera naturala ala artifiziala al da ?*

Artifizialtasunaren alde aintzinako Aristotele, modernitateko Descarte edota Chomsky garaikidea aurkituko genituzke. Naturalismoaren defendatzaileak izan dira, bestalde, Leibniz edo Condillac. Hirugarren bide bat, Enpirismo logikoa (L. Rougier, adibidez), galdera honetatik ihesi nahian, ez du mintzairaren sorreraz, ez eta, bere garapenaz arduratuko, berari dagozkion zereginetaz baizik.

Halere, eta orain arte aipatutako zehaztasuna gordez, defini dezagun Mintzairaz, Hizkuntzaz eta Hizkeraz ulertzen duguna.

GIZA-KOMUNIKAZIOA

Lore Erriondo Korostola

1. MINTZAIRA, HIZKUNTZA, HIZKERA

Orokorrean hizkuntzari buruz mintzo garenean gizatalde jakin batek elkarren arteko komunikaziorako darabilen kodeari esaten diogu. Egia esan, beste aldetik, mintzaira esan genezaiokela horri ere, baina, bereizketa nonbait bilatu behar eta, mintzaira guretzat, eta, ondorioz hau irakurtzen duenarentzat ere, modurik zabalenean ulertu behar da; mintzaira, besteak beste, errealitatea sinbolizatzeko gaitasuna izango litzateke, hizkuntza batean edo bestean edo norbanakoaren hizkeran eman daitekeena.

Mintzaira, zeinu eta ikurren bitartez, gizakiok errealitatea kodifikatzeko dugun sistema konplexuen ekoizpen ahalmena da. Honen helburua, berari buruzko ereduak sortzea litzateke batetik -errealitate kulturala-, eta sozialki kosmobisio horrekin bat datozen norbanakoen arteko komunikazioa eraikitzea bestetik¹.

Mintzaira, funtzio psikosozial modura ere defini daiteke, helburua komunikazioa izanik, modu bereziko (hitzegina, idatzia, keinuzkoa) sistema linguistikoa erabiltzen duena².

1- BUXO, M. J. (1983). Cuadernos de Antropología. Antropología Lingüística 3. Barcelona. 5. or.
2- RONDAL, J.A.; COMBLAIN, A. (1991). "L'apprentissage des langues étrangères: aspects psycholinguistiques". *Les Langues Modernes*. 85. zkia. 10. or.

Hona hemen Lecours eta lankideek 1.979.ean eginiko hizkuntzaren definizioa³:

“Hizkuntza, egoera psikikoen indibiduoarteko komunikazioa bideratzen duen nerbio-iharduera konplexuaren ondorioa da, hizkuntz komunitate bakoitzak berea duen konbentzioarekin bat datozen modu anitzeko zeinuen materialkuntzaren bidez egoera hauek sinbolizatzen dituelarik.”

Hizkuntza, sakonean aztertu izan den eite/esanahi arteko erlazio sistema modura ere defini izan da. Hizkuntzak, idatzia izan zein hitzezkoa edo keinuzkoa izan, esanahi unitateak, “kontzeptuak”, eite unitateekin uztartzen ditu arbitrarioki. Honela bada, unitate linguistiko sailak, “oinarrizkoenetatik” “konplexuenetara”, elkarren artean konbinatzen dira, maila fonetikotik hasi rasgo semantiko eta maila sintaktiko artean, modu jakin batean, kontsentsu inplizitoaren bitartez, komunikazioa ulergarria gerta dadin gizatalde batetarako, baina ulergaitza aldiz besteentzako⁴.

Zientzi desberdinen arabera, ez da akordiorik lortu, lehenengo hizkuntza edo lehen aztarna idatziak noizkoak eta nolakoak izan zirenari buruz. Era berean, lehenengo hizkuntza zer eta nolakoa izan zitekeen argitu dezakeen gizarte primitibo adierazgarririk ez da aurkitu. Onartuena den ikuspegia, hizkuntza piskanaka piskanaka sortu zenarena da, gauzak izendatzeko, emozioak adierazteko, denbora eta espazio harremanak kodifikatzeko, kausa eta ondorioaren logika azaltzeko eta iragana eta orainaren arteko harremanak azaltzeko bai eta etorkizuna planifikatzeko gertakizunen sekuentzia eraikitze⁵.

W. Von Humboldt, 60. hamarkadako hizkuntzalariak, hizkuntzaren azterketaren bitartez, pentsamentuaren prozesuak beha zitezkeela proposatu zuen. Honen oinarrian dagoen ideia, hizkuntza, antolaketa sinboliko sortzailea dela da.

Beranduago Tylor bilakaerazaleak, munduko hizkuntza guztiak oinarrian trebetasun intelektual bera adierazten dutela dio, nahiz eta maila gorena duten herriek gainontzekoak baino adierazpen ahalmen handiagoa lortu.

Hizkuntza, ikur sistema jakin bat barneratze⁶ko ohizko bitartekoa da; kultura ikasteko alegia, eta aritu ondoren, mundua irudikatze⁷ko modu hau, ezaugarri bereziaz jabetzen da. Aipatu ezaugarri hauek, ez dira mugigaitzak, baizik eta

3- LECOURE, R.; LHERMITTE, F. (1979). *L'aphasie*. Flammarion, Paris.

4- RONDAL, J.A.; COMBLAIN, A. (1991). "L'apprentissage des langues étrangères: aspects psycholinguistiques". *Les Langues Modernes*. 85. zkia. 10. or.

5- BUXO, M. J. (1983). Cuadernos de Antropología. Antropología Lingüística 3. Barcelona. 7. or.

denboraren poderioz aldatzen doazenak, egokitze beharren eta kultura zehatzen konplexotasunaren arabera. Hau dela eta hizkuntza, pentsamentu berriaren bitarteko nagusi bilakatzen da, beraren bitartez adierazten bait da gizakiaren konplexotasun kognitiboa bai eta errealitatea bera sozialki bizi; hau da, elkarren artean komunikatu⁶.

Kultura eta hizkuntzak garrantzi izugarria izan dute eta dute aintzinako eta egungo garunaren funtzioen aldaketan. Lehen esan bezala, gizakion hizkuntza giza-komunikazioa eta errealitatearen kognizioa hobetzeko garatzen da; hau da, ezagutza bilakatu eta gizarte konplexotasuna antolatu.

Kultura sistema, ikasia dena, garunean programatzen baldin bada, hizkuntzak, oinarritzkoa den bitarteko papera jokatzeko du garun eta kulturaren arteko harremanetan.

Chomskyk 1972.ean zioenaren arabera, hizkuntza, biologikoa, psikologikoa eta kulturazkoa den prozesu batek itxuratzen du, gizaki normal guztientzat berdinak diren berezko gramatikazko eta sintaktiko egituratan oinarriturik. Honela bada, berak dioenari jarraiki, hizkuntzak, garunaren kortexean eta beste leku batzuetan ematen diren neuronen arteko lotura mailan espezieak genetikoki zehaztua duen sistemaren agerpen funtzionalak besterik ez dira.


Honi jarraikiz, Lennenbergekek 1967an, zera zioen: ez dagoela aldaketarik gizakiengan, hizkuntzaren oinarritzko ezaugarri mailan, nahiz eta eredu fonetiko eta sintaktiko mailan aniztasun handia izan noski.

Lennenbergekek dioenarekin jarraituaz, mintzairaren biologiaren azken ikerketen arabera, hizkuntzaz jabetu ahal izatea adimena deritzogunetik nahiko aske dagoen garapen biologikoa da zeren eta haurra adibidez, arrazoinamendu ahalmena oraindik gutxi garatua duen garaiean egiten da hizkuntzaren jabe. Era berean, adimen eskasa izateak ez dakar berarekin hizkuntza eza. Bestetik, hizkuntza ezak, ez ditu trebetasun kognitiboak gutxitzen.

Honen arabera badirudi hizkuntza eta adimena, maila batean elkarrengandik askeak izan daitezkeela, baina honek ez du esan nahi konplexotasun kognitiboaren garapenean elkarrekiko erabat osagarriak ez direnik.

6- BUXO, M. J. (1983). Cuadernos de Antropología. Antropología Lingüística 3. Barcelona. 10 or.

Ondorengo diagramaren bitartez, mintzaira, hizkuntza eta hizkera kontzeptuen artean egiten ditugun bereizketak isladatzen saiatu gara.



1. Irudia: Mintzaira, Hizkuntza, Hizkera

Hizkuntza definitzerakoan Marine Yaguello-k⁷ dioskuna ekartzeari egoki deritzogu⁸. Horrek bost eremu diferentetan definitzen du hizkuntza: Hizkuntza

7- YAGUELLO, M. (1988). *Catalogue des idées reçues sur la langue*. Paris, 155. or.

8- Langue: 1) artificielle: par opposition à une langue naturelle, langue fabriquée (type espéranto), souvent à visée de communication internationale ou bien langage formel de l'informatique (fortran basic, etc.); 2) nationale: ayant un statut national, c'est à dire reconnue comme expression d'une ethnie faisant partie de la nation; 3) naturelle: dont la transmission, dans un cadre culturel donné, se fait dans des conditions qui semblent "naturelles"; elle n'est pas pour autant donnée par la nature; au sens le plus courant de ce mot, langue veut toujours dire langue naturelle: le français, le turc, etc.; 4) officielle: ayant un statut qui en fait le mode d'expression du gouvernement, de l'administration et souvent de l'école; ce n'est pas nécessairement une langue nationale; elle est souvent parlée par une minorité comme c'est le cas du français en Afrique. La coincidence de la langue officielle avec la langue nationale suppose une nation unifié de longue date; 5) véhiculaire: dont la diffusion est limitée à ses locuteurs natifs; c'est le cas des dialectes non standardisés et des petites langues (en nombre de locuteurs).

artifiziala, Hizkuntza nazionala, Hizkuntza naturala, Hizkuntza ofiziala, Ihardueneko hizkuntza eta hizkuntza gutxiagotua⁹. Emandako definizioen artean hedatuena eta onartuena hizkuntza naturalarena izango litzateke; kultura jakin baten eremuan belaunaldiz belaunaldi ohizko usadioan ematen eta irauten duen komunikaziorako kode amankomuna.

Beste esanahietatik, azkena azpimarratu dugu; izan ere, gaur egungo euskararen egoerari dagokiolakoan bait gaude. Hizkuntza gutxiagotua, jatorrizko hiztun multzoari dagokio eta mugatua den hizkuntza. Dena dela, emandako definizio guztietan bi ñabardura aipatu nahi genituzke:

- Definizio guztietan hizkuntz funtzioaren kontzeptua soma daiteke, eta
- Ez da agertzen inondik ere norbanakoaren aipamenik, eta ondorioz, hizkuntzak bete dezakeen barne-funtziorik.

Hizkuntzaren alderdi soziala oso da garrantzitsua, funtsezkoa esan genezake, baina hizkuntzaren betekizuna norbanakoaren garapenean erabakiorra da; hots, hizkuntzaren ikaskuntzak garapenean aldaketa kualitatiboa dakar. Azken hori da, hain zuzen ere, lan honetan gehien interesatzen zaiguna. Ondorengo pasarteetan hori aztertzeari lotuko gaitzaizkio.

2. PENTSAMENTUA ETA MINTZAIRA

Vygotsky-k *Pensamiento y lenguaje* liburuan¹⁰, mintzaira, pentsamentuaren bitarteko bezala azaltzen du, subjektuaren garapenean pentsamentu eta hizkuntzaren artean bilgunea ematen delarik, zeinen bitartez, pentsamentua mintzaira bilakatzen den eta mintzaira pentsamentu. Pentsamentua mintzaira bilakatzeko urratsa, ez da zuzenean ematen, baizik eta tartekoa den barne-mintzairak¹¹ bideratuko luke;

9- Jatorrizko testua irakurtzerakoan ikus daiteke gure erara euskaratu dugula. Literaltasuna baino edukiari ahalik eta estuen atxekirik izatea nahiago izan dugu.

10- VYGOTSKY, L.S. (1964). *Pensamiento y lenguaje*. Lautaro, Buenos Aires.

11- Barne-mintzaira ez da kanpoko mintzairaren barruko ikuspegia baizik eta funtzio berezia. Mintzaira izaten jarraitzen du, pentsamentua hitzekin uztartua dagoelako, baina kanpoko mintzaira hitzen bitartez adierazten den bezala, barne mintzairan hitzak pentsamentua bideratu hala hiltzen dira. Maila handi batean barne-mintzaira esanahien pentsamentua da. Pentsamentu bat komunikatu nahi denean, buruan dugu etengabe ideia, bere osotasunean, ez dago hizkuntza bezala unitate desberdinez osatuta. Hizketan ari denak minutu batzu behar ditu pentsatzen ari dena esateko, modu jarraian garatu behar bait du hizkuntza baina hontan ez bezala pentsamentua buruan daduka bere osotasunean. Pentsamentu eta hitzaren arteko erlazioa bizia da; pentsamentua hitzen bitartez jaiotzen da. pentsamenturik gabeko hitza ezereza da, eta hitzik gabeko pentsamentua itzalean dago, ez da ezagutarazten (Vygotsky-k, 1934ean).

nolabait ere, gramatikazko egiturarik ez duen pentsamentuaren eta artikulatutako adierazpenaren arteko bitarteko bilakatzen da. Vygotsky-ren arabera beraz, barne-mintzaira legoke eta hau da hain zuzen ere bere lanaren ideia nagusia. Gizakiaren garapenean barne-mintzaira haurra bere buruarekin hizketan hasten denean gertatzen da. Bere buruarekin hizketan hasten denean gainera, pertsonarteko arauak birsortzeari ekiten ari da; hau da, bere konzientziaren sorrerari hasera ematen.

Oso interesgarria deritzogu Vygotsky-ren ekarpenari (izan ere hauetatik abiatuko bait zen bere heriotzaren ondorengo 30-40 urtetan egun psikolinguistika deritzoguna).

Luria-ren ikuspegitik, giza-mintzaira eta konzientzia (hau da, errealitatea aktiboki aztertzeo gaitasuna) erabat uztarturik daude. Maila honetan Luria-rentzat hitzak bi funtzio ditu: bata, erreferentziala; hau da hitzak, objektua, ekintza, ezaugarri edo erlazio bat ordezkatzan du eta honen bitartez ezaguera belaunaldiz belaunaldi iragan daiteke. Bestea, hitzen esanahiari buruzkoa da¹².

Guzti honen inguruan, Benveniste-k ere¹³, pentsatzea eta hitzegitea berez ekintza desberdinak direla dio, baina uztarturik daudela behar praktikoa dela eta, nahiz eta bakoitzak eduki berezko aukera eta eremua. Mintzaira, hizkera den mailan, guk esan nahi duguna laguntzeko erabiltzen dugu bere ustetan. Esanahi hau, aipatzerakoan bakarrik itxuratzen da, hizkuntzaren bitartez, beste edozein espresio modura. Pentsamentuaren garapena, gizakien ahalmenei, kulturaren baldintza orokorrei, gizartearen antolaketari eta hizkuntzaren natura bereziari dago lotuta Benveniste-ren ustetan; baina pentsamentuaren aukera, mintzairaren ahalmenari lotzen zaio.

Europear neuropsikologian kokatuz gero, Lecours eta Lhermitte ditugu¹⁴. Hauen ustetan, gizakia mintzairaz jabetzeko arrazoia, beraien pentsamentuak komunikatu eta gainontzekoenak (hitzen bitartez adierazten direnean behintzat) ulertzea da. Oinarrizko motibapen honi erantzuten dio mintzairaren beharrak.






Mintzaira eta Pentsamentua elkar eraginda daudela gartsuki defendatzen dugu. Vygotsky-k esandakoari lotzen gatzazkio eta elebidunongan antzeman daitekelakoan gaude. Dena den Juan Mayor Sánchez-ek¹⁵ honi lotuta idatzikoari oso interesgarri deritzogu, *bereziki* lan horretan agertu zituen taulei. Ikus dezagun.

12- MANNING, L. (1992) *Introducción a la neuropsicología clásica y cognitiva del lenguaje*. Teoría, evaluación y rehabilitación de la afasia. Trotta, Madrid.

13- BENVENISTE, E. (1958). "Catégories de pensée et catégories de langue". *Rev. Etudes Philosophiques*, 4, 419-429.

14- LECOURE, R.; LHERMITTE, F. (1979). *L'aphasie*. Flammarion, Paris.

15- MAYOR SANCHEZ, J. (1980). "Pensamiento y Lenguaje". *Psicología General II*, 2. liburukia, 288-289. or.

1	2	3	4	5
				
$P \cap M = M = P$	$P \cap M = \emptyset$	$P \cap M = M$	$P \cap M = P$	$P \cap M = X$
$P \in M$ $M \in P$	$P \notin M$ $M \notin P$	$P \notin M$ $M \in P$	$P \in M$ $M \notin P$	$P \notin M$ $M \notin P$

2. Irudia: Mintzaira eta Pentsamentuaren arteko erlazioak. Venn-en diagramak.

Venn-en diagramak erabiliaz Mintzaira eta Pentsamentuaren arteko erlazioak bost era diferentetan ager daitezke:

Hortik abiatuta ondorengo bost proposamen hauek egin ditzakegu:

a) Pentsamentu eta Mintzairaren arteko *bateratasuna* -identitatea-. Diagraman lehenengo egoera.

b) Pentsamentu eta Mintzairaren arteko *erabateko bereiztasuna* -esklusioa-. Diagramako bigarren egoera.

c) Mintzaira Pentsamentuari dagokio, *Pentsamentuaren azpimultzo* bat da. Hirugarren egoera.

d) Pentsamentua Mintzairari dagokio, *Mintzairaren azpimultzo* bat da. Diagraman laugarren egoera.

eta e) Mintzaira eta Pentsamentuaren arteko ebakidura -X-; bati zein besteari dagokiona, Mintzaira eta Pentsamentuaren alderdi batzuk elkarrekiko lotura gabekoak direlarik. Diagramako bosgarren egoera.

Honela, bosgarren proposamenari atxekiz ondorengo esan dezakegu:

1. *Mintzairaren zerbait Pentsamentuari dagokio.*
2. *Pentsamentuaren zerbait Mintzairari dagokio.*
3. *Mintzairaren zerbait EZ dagokio Pentsamentuari.*
4. *Pentsamentuaren zerbait EZ dagokio Mintzairari.*

Pertsona batengan bi hizkuntza erroturik daudenean, elebiduna denean eta berorren haserako *hizkuntz-garapena* zein hizkuntzatan eman den ezagutzen dugunean, pertsona horren hizkuntz-portaeran *barne-eragiketak* zein hizkuntzatan egiten dituen edo mintzairarik gabeko funtzioak diren antzeman dezakegu.

Jatorrizko euskaldunen artean honako hau entzun ohi da: Nik hurrei, ezezaguneei ere, beti euskaraz egiten diet, besterik ez zait ateratzen. Haserraldietan, gaizki esaka paratzen denean, beti euskaraz, besterik ez daki eta.

Euskaldunberrien artean, nortzu linguistikoki jatorrizko euskaldunen osagarriak diren, beste hauek entzun daitezke: Aspaldidaniko lagun erdaldunekin egun euskaldunak izan arren gaztelaniaz egiten dut, euskaraz ezin dezaket. Badira zenbait gauza gaztelaniaz esan behar ditudanak horrela pentsatzen ditudalako, finean gaztelania nere lehenengo hizkuntza da.

Mintzaira, hizkuntza zehatzago, zenbait kasutan Pentsamentuaren euskarria dela frogatu daiteke. Hau da, hizkuntz-ukipeneko elebidunen artean Hizkuntzen eta Pentsamentuaren arteko erlazioak diferenteak dira bizi izaniko hizkuntz-garapenaren arabera. Elebidun tipologia bakoitzean hizkuntzen eta barne-eragiketen arteko erlazioak diferenteak dira.

3. MINTZAIRAREN GARUN-ANTOLAKETA

Garun-hemisferioen egitura fisikoki banatuta dago. XIX. mendeko fisiologoek hipotesien arabera, ahalmek (oinazea, atsegina, borondatea, etab.) garunaren kortexean kokatzen dira. Egundak, kokapen kontzeptu honek, egitura eragile konplexu sarea proposatzen du.

Dagoeneko Marc Daxek (1770-1837) eta Gustave Daxek (1815-1893), hizkuntz ekintzen erdigunea, ezkerreko hemisferioan kokaturik zegoenaren hipotesia aurkezten zuten. Ideia hau bera hartu eta berradierazi zuen Brocax (1824-1880). Honek, hizkuntza ezkerreko hemisferioak arautzen zuela baieztatu zuen, baina ekoizpena, hemisferio hontako lobulu frontalen mende dagoela zehatzago ere.

Neurolinguistikazko azterketek, hizkuntza eta hizkera funtzioekin zuzenean uztartuak dauden elkarketa eremu batzu zehaztu dituzte.

Mintzairaren eremuak, garun hemisferio jakin batean daude lateralizaturik¹⁶ eta hau gutxienez kasuen %95ean, ezkerrean izaten da. Subjektu eskumatien %99ak, ezkerreko hemisferioa du nagusi mintzairarako eta ezkertien artean %60ak, %15ak eskuinekoan lateralizaturik duelarik mintzaira eta gainontzeko %15ak, bi aldetan izanik¹⁷.

Garunaren eremu guztiak fibra sare elkarketa sendo batez lotuta daude. Garuna, guzti bat da, eta honela dabil; eremu zehatz batean lesio bat gertatuz gero, ondorioz, multzoak dituen potentzialitate funtzionalen eraldaketa gertatzen da.

Aitortu beharra dago era guztietara, azalaren multzoaren funtzionatze-konplexotasunaz gauza handirik ez dakigula, eta dakiguna baino gehiago dela ez dakiguna. Lesio berberak ez dituzte beti sintoma berdinak eragiten. Hizkuntzaren jabetzak zehazten ditu azalean eta azpiazalean funtzio desberdintasunak, eta ezin esan daiteke desberdintasun hauek berdin berdinak direnik lagun batetik bestera¹⁸.

Egun jakin badakigu, ezkerreko hemisferio barruan ere, komunikazio jokabideen antolaketa eta eguneratzean zati bakoitzaren ekarpen funtzionala ez dela bera inolaz ere. Garun-egitura batzu, eta batez ere garun-azaleko zenbait eremu, beste batzu baino garrantzitsuago agertzen zaizkigu funtzio linguistikoaren alderdi berezi batzu eusteko orduan. Aipatu eremu hauek, mintzairaren eremu modura izendatzen dira.

16- Lateralizazio hitza aipatzen dugunean, garunaren ezkerreko eta eskuineko hemisferioen funtzioen desberdinketaz ari gara.

17- DEUS YELA, J. (1992). "Localización neuroanatómica de la lesión en las afasias corticales y subcorticales mediante tomografía computerizada (TC)". *Rev. Logop. Fon. Audiol.*, XII, 3, 152-161.

18- BOUTON, Ch. (1976). *El desarrollo del lenguaje. Aspectos normales y patológicos*. Ed. de la Unesco. Paris.

Antolaketa honetan badute eraginik batetik subjektuaren ezaugarri berezkoa den esku-nagusitasuna eta bestetik kulturazkoak diren ikasketa maila, bigarren hizkuntza/en ezagutza, hauen kode idatzia...(Joanette-k; Lecours-ek, 1984ean).

Laburtuz esanda, ezker hemisferioak, hitzegiteko, irakurtzeko, idazteko, kalkulu matematiko eta hitzak ideiatzeko trebetasunak goberna litzake. Eskuineko hemisferioak bestalde, ikusitako irudiak, musikalitatea, arrazoinamendu holistikoa, kokapen espaziala, geometrikoki kopiatu eta marraztea eta emozioak sentitzea goberna litzake. Gorputz kailosoak berriz, bi hemisferioak aldi berean erabili ahal izatea bideratuko luke, bi aldeak lotzen bait ditu¹⁹.

Garun-banaketaren inguruan egindako azterketen emaitzek, garunaren erdialde bakoitzak bere kasa somatu, ikasi, oroitu eta sentitu dezakeela diote, baina badagoela desberdintasunik bien artean eta hau, iristen den informazioa bakoitzak duen jasotzeko moduan datza²⁰.

Mota honetako lanetatik, bi ikuspuntu desberdin azaltzen zaizkigu mintzairaren garapena azaltzerakoan: bata, hemisferioen *asimetria*²¹ haurren garapenari lotua dagoela diona; hau da jaio berritan bi hemisferioek ahalmen bera luketelarena. Bigarren iritzia, jaiotzeko unean bertan dagoeneko asimetria hau eraikia dagoenarena da²².

Ikuspegi kliniko kontutan harturik, Lenneberg (1964ean) da mintzairaren lateralizazioa piskanaka ezkerreko hemisferioan ematen dela diotenetatik adierazgarriena. Hauek lehen esan bezala, bi hemisferioek jaio berritan aukera berak dituztela proposatzen dute.

Gazzaniga²³ ere haurra garunaren alde bien ahalmen berekin jaiotzen denaren ustekoa da, eta eskuineko eskuaren erabilera nagusitzeak ezkerreko hemisferioak prozesamentu eremu garrantzitsuagoak eragiten dituela dio. Honek era berean, eskuineko eskuaren erabilera indartuko luke, modu honetan nagusitasun erlazioa eraikitzen delarik.

19- ESTEVEZ-GONZALEZ, A. (1992). "Lateralidad y asimetría funcional cerebral: fundamentos". *Rev. Logop. Fon. Audiol.*, XII, 3, 138-151.

20- SPRINGER, S.P.; DEUTSCH, G.(1990). *Cerebro izquierdo, cerebro derecho*. Gedisa, Barcelona.

21- Asimetria diogunean, garun-hemisferio bakoitzak gorputzaren beste aldea kontrolatzeaz ari gara.

22- MANNING, L. (1992). *Introducción a la neuropsicología clásica y cognitiva del lenguaje*. Teoría, evaluación y rehabilitación de la afasia. Trotta, Madrid.

23- GAZZANIGA, M. (1970). *The bisected brain*. Apleton, New York.

Hala ere badira iritzi hauen aurkako datuak non beha daiteken ezkerreko hemisferioa kaltetuta duten haurren artean, maizago agertzen direla hizkuntz nahasteak.

Badirudi sexuen artean ere desberdintasunak agertzen direla lateralizazioa dela eta. Honela askok diotenez, emakumezkoen trebetasun linguistikoen errepresentazioa, aldebikoagoa da gizonezkoena baino, nahiz eta hizkuntzaren jabetza eta erabileran ezkerreko hemisferioa nagusia izan.

Aitortu beharra dago, garun-azalaren multzoaren funtzionatze-komplexotasunaz gauza handirik ez dakigula, eta dakiguna baino gehiago dela ez dakiguna. Hizkuntzaren jabetzak zehazten ditu azalean eta azpiazalean funtzio desberdintasunak, eta ezin esan daiteke desberdintasun hauek berdin berdinak direnik batengandik bestearengana²⁴. Pentsa daiteke orduan norbanakoen artean badagoela desberdintasunik.

24- BOUTON, Ch. (1976). *El desarrollo del lenguaje. Aspectos normales y patológicos*. Ed. de la Unesco, Paris.

ELEBITASUNA: ARAZOA ETA AZTERGAIA

*Xabier Isasi Balanzategi
Lore Erriondo Korostola*

Hizkuntza da gizatalde baten ezaugarri nagusienetakoa; eta honen arabera, desberdina izan daiteke bakoitzak berarekin dakarren munduaren ikuspegia eta bera aztertzeko erizpideak. Honexegatik hizkuntzak, hiztunen arteko batasuna dakar eta beste hizkuntzetako hiztunen aurrean desberdintasuna. Hizkuntza bakoitza berari dagokion kulturaren oinarrian legoke kokatuta. Kultura hori sortu eta moldatzen duen herriak berak moldatzen du hizkuntza ere, egunerakotzen, hizkuntzari berezitasuna ematen. Hizkuntza da beraz herri-kontzientzia ematen duena.

Esan dezakegu *elebitasunaren arazoa* hizkuntzarekin batera agertu zela. Hizkuntzaren dohaia, adimenezko beste edozein gaitasun bezala, norbanakoaren ondare genetiko eta inguruaren eraginaren arteko ondorio bat da. Horrela gauzatzen da *norbanakoaren hizkera*, besteenarekiko desberdina eta, era berean amankomuna. Hizkuntzaren historia, garapenaren historia da; hots, munduko hizkuntza guztiak sorburu jakin batekoak omen dira, bilakaeraren kate horretan gaurko hizkuntza bat *hizkuntz-garapenaren* katenbegi bat baino ez da. Nonbait eta noizbait izan du bere aurrekoa eta, irautekotan, bere ostekoa ere izango du.

Kate berekoak izanagatik denbora eta usadioen jarioan elkarrengandik urruntzen dira eta zenbat eta urrunago orduan eta desberdinagoak dira. Etengabeko

aldatze prozesu horretan *hizkuntza berriak* hizkuntza zaharren garapena adierazten du, hizkuntza, azken buru, herriari lotzen zaio eta honek herria izateari eusten badio hizkuntzari eutsiko dio ere. Historian zehar desagerturiko hizkuntzek gure artean ez dauden herri eta kultura desagertuen berri ematen digute, hizkuntza horiek (*hizkuntza hilak*) ikastekotan gure aurreko denboraren jario jakin bat antzeman dezakegu, baina hizkuntza haien garapena *bizirik* dauden hizkuntzatan soma daiteke ere.

Hizkuntzen aniztasunak, bereizketak eta elkar ulertezinak ekarri ditu. Hizkuntzen arteko harremanak, ezinbestean, gatazkatsuak izan dira eta dira. Gatazka horiek maiz gizakiaren garapenaren ondorio bezala ulertu izan dira, hizkuntza bat inposatzea, besteekiko gailen izatea ezinbesteko *gertakizun naturala* bailitzan.

Herri edo gizatalde batek bere hizkuntza ahaztu eta beste bat hartzen badu, beste izakera bat nagusitzen zaio honekin batera; akulturazio prozesu batean sartzen da alegia. Zena izateari uzten dio eta beste hizkuntz honen izaera eta kultur ezaugarriez janzten da. Arrotza da bere buruarekiko.

Herri batean hizkuntza bat baino gehiago bizi direnean, herri horretan kultura zein hizkuntzetan egiten den markatuko du nagusitasun/menpekotasun harremana eta azken finean herri baten nortasun eta iraupena.

Mende honen hasieran, Luxemburgoko Bilkuraren ondorioz batipat, elebitasunari buruzko zenbait aurreritzi kaleratzen dira:

- *Elebiduntasunak elebidunaren hizkuntza batean edo bestean ondorio ezkorrak dakartza. Hiztegi urria, adierazpen-gaitasun eskasa edo eta hizkuntz-baliabide gutxiagotzea izan zitezkeen aurrekoaren adibide batzu.*

- *Eskolaldian elebiduntasunak atzerapen orokorra dakar.*

- *Elebiduntasunak ideien nahasketa sortzen du.*

- *Nortasunaren garapenean elebiduntasunaren eragina txarra da.*

Harez geroztik azterketa eta ikerketa asko egin izan dira, gehienak hizkuntzalari eta soziolinguisten eskutik. Baina azken hogeitako ikerlanak aztertzen baditugu, gero eta gehiago dira *elebiduntasuna* azal dezaketen *eredu teorikoak*. Ondoko taulan aipatzen ditugu bakan batzu adibide gisa.

1. Taula: Elebitasunari buruzko zenbait ikerketa.

URTEA	EGILEA	ZER
1928	Luxenburgoko Bilkura	<i>Elebitasuna/Elbiduntasunari</i> buruzko ikuspegi ezkorra.
1954	Ervin eta Osgood	<i>Elebidun konposatuak/elebidun koordinatuak.</i>
1963	Kolers	Hizkuntz sistema bereiztuak eta elkarren askeak elebidunengan.
1967	McNamara	
1968	Darlymple-Alford	
1970	Tulving eta Colotla	
1971	MacNamara eta Kushnirv	Ikerketa psikofisiologikoak.
	Genessee et al.	Hizkuntzen ikaskuntz hurrenkera eta garuneko hemisferioen betekizunak.
1978	Vaid eta Lambert	
1979		
1981	Soares eta Grosjean	
1973	Schank	Psikologia kognitiboa. <i>Kontzeptu menpekotasunari</i> buruzko teoria.
1976	MacLeod	Esanahaiaren irudikapena. Oroimenerako hizkuntza elebidunengan.

Orokorrean, urte luzez, *adituen* iritzia elebiduntasunarekiko oso ezkorra izan da. Azken buru, haien ustez, norbanakoaren garapenerako elebiduntasunak kalteak baino ez ditu ekartzen. Gaur egun ere soma daitezke gure artean elebiduntasunaren kontrako jarrerak eta joerak, bereziki, bi hizkuntzatako bat *hizkuntza gutxiagotua* denean. Are zehatzago, hizkuntz egoera edozelakoa izanda ere, oso hedatua den *eskola porrota* hizkuntzen arteko ukipen egoera ematen denean, *elebiduntasunaren* ondorio bezala aurkez daiteke.

Hau da, *hezkuntz eredu elebidunetan*, haur batengan ikaskuntzarako oztopoak somatzen direnean, oztopoen sorburua zein den jakin baino lehenago ereduaren

aldaketa aldarrikatzen da konponbide gisa. Hala ere orain artean ez da frogatu aldaketa horrek aipatu arazo horiek bideratzeko baliagarria denik.


Kanadan *hizkuntz murgiltze ereduaz* izaniko 25 urtetako esperientziak, beste alderditik, hizkuntza aldaketa Hezkuntz Sistemaren bitartez posible ezezik emankorra eta onuragarri izan daitekeela erakusten du. Dena den hizkuntz egoera guztiak ez dira parekagarriak, *murgiltze metodoa* zein bere hizkuntz egoerari atxeki behar zaio arrakastatsua izan dadin. Izan ere, hizkuntzen *statusa* aldagai erabakiorra bait da hizkuntz eredu pedagogikoa ezartzerakoan; *murgiltze sistemak* darabilen *iharduerako hizkuntza* ikaslegoarena ez den hizkuntza delako, finean, egoera *gutxiagotuan* dagoen hizkuntzari dagokio. *Murgiltze programak*, besteak beste, hizkuntza *gutxiagotuaren* eskolaz kanpoko gabeziak gainditu behar ditu, eta, hori da, hain zuzen ere, iharduera pedagogiko horretan atalik zailena eta korapilotsuena.

1. ELEBITASUNA, HIZKUNTZEN ARTEKO UKIPEN EGOERA ETA ELEBIDUNTASUNA

Jorratu nahi dugun gaia hiru ikuspegi diferenteetatik gara dezakegu, lehen *soziologikoa*, non hizkuntza giza-talde bati dagokion; bigarrena *psikologikoa*, zeinek subjektuaren hizkuntz-garapena azaltzen duen; eta, azkenik, *matematikoa* zeinek hizkuntz-sareak eta hizkuntzaren erabilpen-tasa azal ditzakeen. Lehenik eta behin hizkuntza alor guztietan *gertakizun* bezala definitu behar dugu, bereziki berari atxeki zaizkion ezaugarrien bitartez. Diziplinartekotasunak, gehienetan argigarria bada ere, zenbait kasutan argitu baino nahastu egiten gaitu. Izan ere, hitzak kasu askotan berak izanagatik ere, ez bait dute eduki bera adierazten. Adibidez: *elebitasuna*, hitz honen inguruan gutxienez hiru iritzi desberdin bil daitezke: bat, *bi hizkuntza lurralde jakin batean zein bere barrutian edo nahasturik*; bi, *bi hizkuntza jakitea eta maila batean edo bestean biak erabiltzeko gaitasuna izatea*; eta, hiru, *hizkuntz-egoera jakin bat non bi hizkuntza elkarren ondoan izanik elkarri eragiten dioten*. Hortaz *elebitasunaz* mintzo garenean zehaztu behar dugu *zertaz* ari garen, edo, beste era batera esanda zein da darabilgun ikuspegia.

Aurrekoa zertxobait gehiago argitzeko esan genezake *soziolinguistek* gehienbat lehenengo eritziari heltzen diotela, *psikolinguistek* bigarrenari eta, azkenik *hizkuntzalariak* hirugarrenari. Hau errealitatean ez da horrela eta *hizkuntzaren gertakizuna* aztertzen denean ikuspegi desberdinak bata besteari lotzen zaizkio eta, osatu barik, gainjartzen dira. Horrela bada, soziolinguistak *hizkuntz-gaitasunaz* mintzo dira, psikolinguistak *hiztunen banaketaz* eta hizkuntzalariak *hizkuntz-funtzioaz*. Azken buru, ez dakigu *elebitasuna zer den*, edo *gizatalde jakin baten*

hizkuntz-eraketa berezia, edo pertsona baten egoera psikologikoa zein bi hizkuntzen arteko erlazio jakin bat.



3. Irudia: Hizkuntzen arteko ukipen egoera. Bilakaeraren adierazpide grafikoa. **B** motako hiztunak *elebiduntzen* direnenean **C** motakoak bilakatzen dira; **B** hizkuntzaren erabilpenak *gertaera segurua* izateari uzten dio eta azkenik **A** motako hiztunen menpe egongo da **B** hizkuntzaren erabilpena.

Zaila badirudi ere errealtatean are zailagoa izaten da; izan ere, ez bait ditugu aipatu *hizkuntzaren gertakizunarekin* arduratzen diren diziplina mota guztiak, hala nola, *Zuzenbidea, Medikuntza, Pedagogia, Filosofia, Matematika, ...* Egia esan zerrenda amaigabea izan liteke eta kasu bakoitzean berarizko ñabardurak erabiltzen dira.

Dena den ez da gure helburua inor nahastea, ez eta gutxiago ere, aitzitik, nahastea alde zuzenetik emana dagoela jakinik nahi duguna argitzea da. Oso sinplea delakoan *hizkuntzaren gertakizun* gaiari haseratik heltzea proposatzen dizuegu. Kasu bakoitzean erabil dezakegun erizpidea argituz ez da inolako arazorik *hizkuntzaren gertakizuna* bere zabaltasunean eta sakontasunean ulertzeko. Gatoz bada, arestian esandako hariari berriz ere heltzera.

Esaten genuenez *gaia* hiru ikuspegi diferenteetatik gara genezake, lehena *soziologikoa*, non hizkuntza giza-talde bati dagokion; bigarrena *psikologikoa*, zeinek subjektuaren hizkuntz-garapena azaltzen duen; eta, azkenik, *matematikoa* zeinek hizkuntz-sareak eta hizkuntzaren erabilpen-tasa azal ditzakeen. Horrela, eta lehen jarritako adibideari jarraiki, *ikusmira soziologikoetatik* elebitasuna eremu geografiko jakin batean bi hizkuntza batera izateari esango diogu; *ikuspegi psikologikoetatik*, elebitasuna baino *elebiduntasuna* nahiago eta, *norbanakoaren hizkuntz-egoerari* esaten diogu; eta, azkenik, *ikuspegi matematikoan*, elebitasuna zehazten dugu *hizkuntzen arteko ukipen egoeraz* mintzatzerakoan.

Honetan aipatu hiru ikuspegi hoiak darabilzkigu baina *ikuspegi psikologikoari* lehentasuna ematen diogu. Izan ere, gure hizkuntz egoera honetan hori izan bait da gutxien jorratu izan dena.

Elebiduntasunaz hitzegiterakoan, ikus dezagun lehenik eta behin nola defini izan den. Elebiduntasunari buruzko zenbait definizio jaso ditu Lewis Balkanek¹, hala nola:

- Haugen: “*elebiduntasuna*, hizkuntza bat erabiltzen duen norbaitek beste hizkuntzean esanguratsusak diren esaldi osoak adieraz ditzakeenean hasten da”.

- Von Weiss: “*elebiduntasuna*, hitzun bakar batek aktiboki zein pasiboki bi hizkuntzetan egiten duen zuzeneko erabilpena da”.

- Christopherson: “*elebiduna*, bi hizkuntza, hizkuntza bakoitzeko hitzun elebakarraren antzeko gaitasun mailarekin ezagutzen dituen norbait da”.

Hizkuntzen arteko ukipen egoeran, bi hizkuntz-giroen murgilean bizi garen elebidunok gure hizkuntz izaera bitan banatzen dugu. Gure *hizkuntz gaitasuna* ikuspegi *alboratu* batetik aztertzen digutenean hizkuntza honetan edo horretan eman dezakegunaren berri antzeman diezaigukete baina, horrela ez dira gure *hizkuntz egoeraren osotasunarekin* jabetzen. Hizkuntza bateko edo besteko hitzun elebakarraren parean jartzen gaituzte horrelako azterketak egiten direnean eta GU EZ GARA ELEBAKARRAK.

Orain artean eginiko ikerketa gehienetan *hizkuntz-portaera gertakari sozialtzat* hartua izan da; *hizkuntz-ikaskuntza*, *hizkuntzarekiko atxekimendua* edota *hizkuntz-garapena* ordea, norbanakoari dagozkion gertakariak direlarik.

1- BALKAN, L. (1979). *Los efectos del bilingüismo en las aptitudes intelectuales*. Marova, Madrid.

Gizarte *elebidunetan*, jakina denez, ematen diren hizkuntz-egoerak ugari eta kontrajarriak izan daitezke. Hizkuntzen arteko ukipen egoera ematen denean ere egoera jakin bati dagozkion ezaugarriak zehaztu behar ditugu. Izan ere, batetik bestera izan daitezkeen aldaketak erabakiorrak izan baitaitezke.

Hizkuntza gutxiagotuaren erabilpenaz hitz egiterakoan bi maila diferentetan mintza gaitzke: *gizarte mailakoarena* eta *norbanakoarena*. Gizarte mailako *hizkuntza gutxiagotuaren erabilpena* egoeraren aldagai objektiboek mugatua da; hizkuntza gutxiagotuaren *bizitasun demofuntzionala* zein den jakinik, eta bereziki, hizkuntz-egoeraren aldagai demolinguistikoak ezaguturik *hizkuntza gutxiagotuaren erabilpen sozialaren* mugak zeintzu diren jakin ditzakegu.

Portaeraren azterketa *normaltasunaren parametroetatik* egiten badugu norbanakoaren jokabidea *egoerarekiko moldatzailea* dela onartu behar dugu ezinbestean. Subjektuak ezin dezake bere isolamendutik, egoera bere osotasunean aldatu; aldatzeko joera erakutsi badezake ere gehienetan bere portaera egoerari egokitzen zaio. Horregatik *norbanakoaren hizkuntza gutxiagotuaren erabilpenak* erabilpen sozialaren isladapena behar du izan. Subjektuari ezin diezaiokegu egoerarekiko portaera *desegokia* eska bere baitan kontraesanak sortu gabe. *Norberaren hizkuntza gutxiagotuaren erabilpenak* erabilpen sozialak ezarririko mugak hausten baditu gizartearen aurrean *portaera ez-moldatzailearen* –*arbuigarriaren*– eremuan sartzen da.

Gure aburuz testuingurua funtsezkoa delarik hizkuntza gutxiagotuaren erabilpena bi maila diferente horietan aztertu behar da; zein bere aldetik eta erkaketak egiterakoan biak kontutan hartu behar ditugu.

Egoerarekiko subjektuen *portaera moldatzaileak* zorigaitzoko hizkuntz-egoerari irunarazten dio eta honek ezinbestean hizkuntza gutxiagotuaren desagerpena dakar. Ikuspegi honetatik hizkuntza gutxiagotuaren iraupenak subjektuengandik *portaera ez moldatzaileak* eskatzen ditu.

Honexegatik, borondate oneko zenbait euskaltzalek jaurtikitako *euskaldunon axolagabekeriari* buruzko epaia funtsagabekoa da. Are gehiago, euskaldun gehienek hizkuntz portaera euskararen aldekoa da, *erabilpen sozialak* dituen mugak hausten bait dituzte harik eta *portaera ez-moldatzaileen* eremuan sartu arte.

Horra hor *gurpil zoroaren* bi alderdi: joaniko hamarkaden euskararen *gorakada* zeina *norbanakoaren hizkuntz-portaeran* oinarritu zen, eta gaurko *hizkuntz-erabilpen soziala* edo *hizkuntz-egokipena* non *gehiengoaren* gizarteak norbanakoaren hizkuntza gutxiagotuaren erabilpenari muga estuak ezartzen dizkion.

Michel Paradis-ek² elebiduntasuna orokorrean, aldizka bi hizkuntza erabil ahal izateko ahalmena bezala definitu zuen. Errealitatean ez dela hain argia ere azpimarratu zuen eta hau dela eta, elebidun mota desberdinak daudela oharterazi eta hauek sailkatu zituen.

Elebiduntasunaren garapenean eragiten duten aldagai nagusienak, honako hauek dira: hizkuntza bakoitzaren jabetze-adina; hizkuntza hortaz/horietaz jabetzeko arrazoiak (baldintza soziologikoak) eta jabetze-moduak (desberdina da aldi bereko ikaskuntza izan edo bata bestearen ondorengoa; desberdina den bezala ikaskuntza hitzezkoa, idatzia edo/eta irakurria izan); erabilera moduak (zein mailatan eta zertarako erabiltzen ditugun hizkuntza bakoitza: ulermena, hitzezko edo idatzizko adierazpena eta irakurketa maila); erabilitako hizkuntza bakoitzaren balio afektiboa eta honen bilakaera; ospea alegia³.

2. ELEBIDUN MOTAK

1954. urtean egin zuten lehenbizikoz Ervin eta Osgood-ek *elebidun konposatu* eta *elebidun koordinatuen* arteko bereizketa⁴ (Arnau; Sebastian; Sopena-k, 1982.ean). Elebidun konposatuak lirateke bigarren hizkuntzaz lehenengoaren ingurumari berean jabetu direnak eta koordinatuak berriz, desberdinetan.

Balkan-ek⁵, gehiago zehaztuko ditu bi elebidun mota hauek. Bere ustetan, elebidun konposatuak, H2ko hitz berri bakoitza H1eko beste bati lotuta ikasten du. Honela, bi hizkuntzetan *itzulpen baliokidea* izeneko hitzen inpresio semantiko sistema jartzen da martxan. Elebidun mota hau batez ere eskolan eta metodo “klasikoen” arabera ikasitakoan artean ikus daiteke.

Bigarren elebidun mota, “koordinatua” deiturikoa alegia, H2az berezko egoeratan jabetu da eta askotan garai desberdinetan. H1eko unitate lexikoen inpresio semantikoak, H2ko “itzulpen baliokideengandik” puntu batean bederen desberdinak dira.

2- PARADIS, M. (1987). *The assessment of bilingual aphasia*. LEA, London.

3- LHERMITTE, R.; HECAEN, H.; DUBOIS, J.; CULIOLI, A. et TABOURET-KELLER, A. (1966). "Le problème de l'aphasie des polyglottes: remarques sur quelques observations". *Neuropsychologia*, 4, 315-329.

4- ARNAU, J.; SEBASTIAN, N.; SOPENA, J.M. (1982). "Estudio experimental del bilingüismo: revisión histórica I". *Anuario de Psicología*. 26

5- BALKAN, L. (1979). *Los efectos del bilingüismo en las aptitudes intelectuales*. Marova, Madrid.

Osgood eta bere lankideek diotenaren arabera, bi aldetako etengabeko itzulpenak, sistema koordinatua konposatua bilakatzea eragiten du. Benetazko elebidun koordinatuak, banaketa argia egiten du bi hizkuntzen artean, ikur bakoitzak berari lotuta duelarik adierazle eta adierazi berezia. Konposatuengan aldiz, bi hizkuntza desberdinetako adierazle biak adierazi bakar bat dute.

Elebidun konposatuengan, bi kode desberdinetan adieraz daitekeen esanahi bakar bat dago eta elebidun koordinatuengan aldiz, bi esanahiak antzekoak dira baina ez berdinak.

Balkanen aburuz, ezinezkoa da erabateko elebiduntasuna zentzu zorrotzean. Ezin eska diezaiokegu hiztun bati berak bizitako esperientzia osoa bi hizkuntzatan zuzenean eta aldaketarik gabe adieraztea. Aukerak, sintaxi arauak etab., desberdinak dira hizkuntza bakoitzean; hitzen balio afektiboa bera, desberdina da kultura bakoitzaren arabera bai eta bakoitzari dagozkion kontzeptuen garrantziaren arabera ere.

Elebidunetaz ari garenean, *elebidun orekatuaren* kontzeptua agertzen zaigu maizen. Elebiduntasuna orekatua dela diogu, hiztun batek bi berezko hizkuntza dituenean, biak ere, prestakuntza urtetan ikasiak, etengabe erabili dituelako, bai eta pentsamentua eta intentzioak eta egoera emotiboak adierazteko tresna bilakatu direlako bai hizkuntza bat zein bestea. Gizarte egoera, ikasketa maila, pentsamentu eta intentzio bereko hizkuntza bakoitzeko elebarkarrekina parekatzerakoan, elebidunak ez luke honexegatik gutxiagotua egon behar⁶.

Rondal eta Comblain-ek⁷ diotenez, orokorrean hiru elebiduntasun egoera antzeman ditzakegu: batetik, *eleparekotasuna* genuke. Honek, bi hizkuntzak, bakoitzeko jatorrizko hiztunak erabiliko lituzkeen modura darabiltza. Bigarrenik, *ekilinguismoa* genuke. Honek ere, bi hizkuntzen ezagutza orekatua adierazten du, baina aurreko kasuan ez bezala, egoera honetan dagoen hiztunak ez ditu erabiltzen H1a eta H2a inoiz ere ez hizkuntz bakoitzeko jatorrizko hiztunak bezala. Hemendik aurrera abiatuta, hirugarren egoerarekin egingo genuke topo, *sasielebiduntasunarekin* hain zuzen ere. Honek, puntako egoera adierazten du hiztun honek derrigorrez erabili behar bait ditu bi hizkuntzak ideia bakar bat adieraz ahal izateko, gai ez delarik hizkuntza bakar batean (H1 edo H2an) osoki eta behar hainbatean adierazteko.

6- BALKAN, L. (1979). *Los efectos del bilingüismo en las aptitudes intelectuales*. Marova, Madrid.

7- RONDAL, J.A.; COMBLAIN, A. (1991). "L'apprentissage des langues étrangères: aspects psycholinguistiques". *Les Langues Modernes*, 85, 1, 10-22.

Orainarte ikusitako elebidun motak kontutan hartuta, ez dugu pentsatu behar, guztiak aipatu hauetakoren batean sailkatu ditzakegunik; beti ere, tarteko kasu ugari izan baitaitezke. Izan ere, elebidun jakin bat koordinatua izan daiteke maila sintaktiko eta semantikoan eta menpekoa aldiz maila fonologikoan adibidez.

Elebiduntasunaren garapena aztertzerakoan, adinari loturiko bereizketa hau egin dezakegu: **aldibereko** elebidunak, elebidun **goiztiarrak** (haurtzaroan) eta elebidun **berantiarrak** (nerabezaroan edo beranduago)⁸. Badirudi elebidun berantiarrek goiztiarrek baino gehiago erabiltzen dituztela eskuineko hemisferioarekin lotutako estrategiak (Genesse; Vaid-ek, 1982.ean) nahiz eta erabat ziurtatuta ez egon honako hipotesi hau.


Obler (1981.ean) izan zen eskuineko hemisferioa bigarren hizkuntzaren ikaskuntzaren haseran inplikaturik zegoela proposatu zuen lehena. Hala ere, eta aurreraxeago esan bezala, egindako azterketek ez dute hipotesi hau baieztatu ez haur ez eta helduetan ere.

Bigarren hizkuntzaz modu natural eta ez-formalean jabetuz gero, ez da lateralizazio desberdintasunik agertzen H1 eta H2ren artean Galloway-ren ustetan⁹.

Gure ustez, oro har, elebidunak bi hizkuntzaren jabe dira. Batean edo bestean hitzegin dezakete eta edozein momentutan biak ulertu. Elkarraldatu eta nahastu ditzakete egitura linguistiko mailan (fonetikoa, fonologikoa, morfologikoa, sintaktikoa, lexikoa, semantikoa). Honek, uste eta galdera asko sorrarazi ditu. Ondoren hauetako batzu aztertzen saiatuko gara. Baina ikus ditzagun lehenik laburbilduta ondoko taulan, orain arte atal honetan aipatutako aldagaiak:

-
- 8- GALLOWAY, L. (1983). "Etudes cliniques et expérimentales sur la repartition hémisphérique du traitement cérébral du langage chez les bilingues: modèles théoriques". *Langages*, 42, 79-113.
- 9- GALLOWAY, L. (1983). "Etudes cliniques et expérimentales sur la repartition hémisphérique du traitement cérébral du langage chez les bilingues: modèles théoriques". *Langages*, 42, 79-113.

2. TAULA: Elebidunen arteko bereizketak eragiten dituzten aldagaiak (Paradis, 1989)



3. ELEBIDUNTASUNA ETA LATERALIZAZIOA¹⁰

Elebiduntasunaren neuropsikologiaren oinarritzko galderetako bat, ea gizabanakoaren bi hizkuntzek garunean isladapen berdina duten ala ez da. Hipotesi asko dira proposatutakoak, eta hauetako gehienak oraindik ere ez dute baieztapen empirikorik izan.

10- Lateralizazio hitza aipatzen dugunean, garunaren ezkerreko eta eskuineko hemisferioen funtzio desberdinetaz ari gara.

Pentsa daiteke, hizkuntza bakoitza, bere gaitasunak berak zuzentzen duela; hau da, gramatika bakoitza bereizturik gorde edo/eta prozesa daitekeela. Gaitasunaren eraldaketa zehatzak hizkuntza batean bakarrik gertatzen direla eta ez bestean froga badaiteke, orduan zentzuzkoa litzateke hizkuntza bakoitza egitura neurofuntzional desberdinpean dagoela pentsatzea.

Zenbait autorek, Pitres, Penfield, Pötzl, Minkowski, Veyrac, Ombredane, Gloning eta Gloning besteak beste, eleaniztunen hizkuntza bakoitzari zehazki bereiztutako guneak dagozkiela diote. Beste batzuren ustetan, Segalowitz kasurako, harrigarria litzateke elebiduntasunak eraginik ez izatea garunaren antolaketa. Lecours, Branchereau eta Joanne-k, elebakarren hizkuntzaren garuneko adierazpena ez dela eleaniztunetan denaren berdina diote. Lebrun-en ustetan (1976.ean), baliteke zirkuito neuronal berdin berdinak ez izatea elebidun jakin baten bi hizkuntzak zuzentzen dituen; are gehiago, baliteke modu desberdinean lateralizaturik izatea.

Zenbaiten ustetan, eleaniztunaren hizkuntza bakoitza, garuneko hizkuntzaren eremu bereko leku anatomiko desberdinetan isladatzen da. Beste ikuspuntu baten arabera, elebidunaren bi hizkuntzak hemisferio nagusiaren baina maila batean desberdinak diren eremuetan isladatzen dira, gainezarpen maila batez.

Vaid eta Genessee-ren ustetan¹¹, elebidunaren hizkuntza bakoitzaren antolaketa neurolinguistikoa, bestearen berdina da nahiz eta disoziazio kasu batzua agertu. Disoziazio kasu hauen arrazoiak, hizkuntzari dagozkionak dira batetik eta bestetik, jabetza ingurumariari dagozkionak.

Ikus dezagun orain nola islada daitezkeen bi hizkuntza garun berdin batean eta honen inguruan sortu diren hipotesi desberdinak. Gutxiarik lau hipotesi har daitezke haintzakotzat; hala nola:

1.- Sistema hedatuaren hipotesia, non hizkuntzak, desberdindu gaberik diren adierazpen mailan. Biak bat izango balira bezala har daitezke.

2.- Binako sistemaren hipotesia: hizkuntza bakoitzaren elementuak, banaturik gordetzen dira.

3.- Hiruparteko sistemaren hipotesia: bi hizkuntzatan berdinak diren itemak, bientzako berdina den egitura neural bakar batean adierazten dira, eta bakoitzarentzat desberdinak direnak, banaturik.

11- VAID, J.: GENESEE, F. (1980). "Neuropsychological Approaches to Bilingualism: a Critical Review". *Canadian Journal of Psychology*, 34, 417-445.

4.- Azpimultzoaren hipotesia: bi hizkuntzak modu berean gordetzen dira sistema kognitibo bakar batean, nahiz eta hizkuntza bakoitzaren elementuak konexio sare banatu bat osatu, eta sistema handiago batean, azpisistema bat.

Galloway-ren ustetan¹², gutxienez bi aldagai ortografiko lotzen zaizkio tratamendu hemisferiko diferentzialari: batetik, idazketa jakin batekin subjektuak duen erabilera eta bestetik idazketa mota. Aipatu beharra dago ortografia, mintzairaren bigarren mailako ikus-adierazpena dela eta idazketa jakin bat eskuineko hemisferioan kokatzeak ez du esan nahi inola ere hizkuntza hori horrela koka daitekeenik; izan ere, pentsamendu hedatuenari atxekiz ezkerreko hemisferioa nagusi bait da mintzairaren entzun-ahozko oinarritzko sisteman.

Baina dudarik gabe, eztabaidatuena izan den arazoa, oinarritzko lateralizazio bereizgarriaren hipotesiaren birformulazioarena izan da; elebidunen hizkuntzen isladapen edo/eta prozesamentuan partehartze handiagoa duela alegia, nagusia ez den hemisferioak. Hala ere, eskuineko hemisferioaren partehartzea zein eta nolakoa den ez dago erabat frogatuta oraindik. Ikus ditzagun bada, honen inguruan biltzen diren iritzi desberdinak.

3.1. Eskuineko hemisferioaren partehartzea elebidun /eleaniztunen hizkuntzen isladapen eta prozesamentuan

Ikuspuntu klasikoari jarraituaz, eskuin hemisferioak ez du eskumatiengan ahalmen linguistikorik. Bestelako eritzi bat da eskuineko hemisferioaren ahalmena, birtualki ezkerrekoarenaren berbera dela, baina ezkerreko hemisferio funtzionalak indargetzen duena. Ezkerreko hemisferioa gai ez denean, eragotzita gelditu delako, orduan hartzen ditu eskuinekoak bere gain ezkerrekoaren funtzioak. Hau honela izanez gero, legezkoa da orduan partehartze honen natura aztertzea. Egoera oraindik ere konplexuagoa bilakatzen da, elebidunen hizkuntzen garun lateralizazioa aztertzerakoan. Autore batzuren ustetan, bigarren hizkuntzaren prozesamentuan eskuineko hemisferioaren partehartzea handiagoa da. Beste batzuk berriz, elebiduntasunak garun nagusitasunaren garapena indartzen duela diote. Hirugarren batzuk aldiz, ez dute inolako desberdintasunik ikusten elebakar eta elebidunen artean, hizkuntzaren lateralizazioari dagokionean behintzat.

Hemendik abiatuta, M. Paradis-ek¹³, eskuineko hemisferioaren partehartzearen izaeraren inguruan egun arte bildu diren hipotesiak jaso ditu. Ikus ditzagun bada:

12- GALLOWAY, L. (1983). "Etudes cliniques et expérimentales sur la repartition hémisphérique du traitement cérébral du langage chez les bilingues: modèles théoriques". *Langages*, 42, 79-113.

13- PARADIS, M. (1989). *Evaluación de la afasia en los bilingües*. Masson.

1.- Heinberekoko partehartzearen hipotesia da lehena, eta honen arabera, bi hemisferioek informazioa modu berean prozesatzen dute, nahiz eta ezkerreko hemisferioaren partehartzea kuantitatiboki handiagoa izan daitekeen. Eskuineko hemisferioaren prozesamentua orduan erredundagarria litzateke.

2.- Bigarren hipotesia **kuantitatiboki osagarria den partehartzearena** litzateke. Honen arabera hemisferio bakoitzak estimulu berdinak modu berean prozesatzen ditu, ezkerreko hemisferioak partehartze handiagoa izanik. Lehenengo bi hauetan, enuntziatuaren alderdi berdinek, prozesamentu bera dute.

3.- Hirugarrena, **kualitatiboki paraleloa den partehartzearen** hipotesia genuke, estimulu bera hemisferio bakoitzak kualitatiboki modu desberdinean prozesatzen duela diona. Eskuineko hemisferioak lesioren bat jasanez gero, enuntziatuaren alderdi guztietan izango du eragina. Enuntziatuaren alderdi berdinek, prozesamentu desberdina dute.

4.- Laugarren hipotesia, **kualitatiboki bereizgarria den partehartzearena** izan daiteke. Honetan azaltzen denez, hemisferio bakoitza bere barruko ahalmen funtzionalen arabera estimulu konplexu baten alderdi desberdin baten prozesamentuan bereizten da. Eskuineko hemisferioak lesioren bat jasanez gero, enuntziatuaren alderdi batzuei eragin liezaieke. Enuntziatuaren alderdi desberdinek, prozesamentu desberdina dute.

Oraintsu, eskuineko hemisferioaren partehartzearen izaera ikusi dugu eta hemendik abiatuta ondoren, Paradis eta Lebrun-ek¹⁴ bilduta, eskuineko hemisferioak elebidunen hizkuntzen prozesamentuan duen partehartzearen inguruan sortutako hipotesi desberdinak azaltzeari lotzen gatzazkio:

1.- Batzuren ustetan, bigarren hizkuntza eskuineko hemisferioan isladatzen da;

2.- Beste batzurentzat berriz, bigarren hizkuntza bi aldetan isladatzen da;

3.- Hirugarren iritzi bat da bigarren hizkuntza, nahiz eta nagusiki ezkerreko hemisferioan lateralizaturik egon, lehenengo baina maila txikiagoan dagoela eta beraz konparatiboki partehartze handiagoa duela eskuineko hemisferioak bigarren hizkuntzan;

4.- Laugarrean ustea da bi hizkuntzak gutxiago lateralizaturik daudela;

14- PARADIS, M.; LEBRUN, Y. (1983). "La neurolinguistique bu bilinguisme". *Langages*, 72.

5.- Jasotako bostgarren iritzia, bi hizkuntzak ezkerreko hemisferioan berdin isladaturik daudenarena da eta beraz, ez dagoela desberdintasunik elebakar eta elebidunen artean.

4. ELEBIDUN/ELEANIZTUNEN HIZKUNTZEN ADIERAZPEN MODUA GARUNEAN

Elebidun/eleaniztunei buruz egiten den beste galderetako bat, adierazpen modua elebidun guztientzat berdina ote den da.

Alor honetan eginiko saiakera berri bakoitzak gero eta gehiago mugatu eta zehaztu du populazio elebiduna, honako aldagai hauek kontutan hartu beharrekoak direla frogatu delarik:

- Adina: honen arabera, nerabezaro ondoren ikasitako hizkuntza bat, ez dago lehenago ikasitakoa bezainbeste lateralizaturik. Hauxe bera diote Texas-eko Unibertsitateko Sussman, H.M.; Franklin, Ph. eta Simon T.-k¹⁵. Beraiek burutako azterketaren ondoren, elebidun goiztiarrek bi hizkuntzetan ezkerreko hemisferioa nagusia dela diote bai eta elebidun berantiarren jatorrizko hizkuntzan; ez aldiz bigarreanean.

McGill Unibertsitateko Vaid, J. eta Lambert W.E.-k¹⁶ berriz, gizonezko elebidun goiztiarren informazioaren prozesamentua aldebikoa dela diote, eta gizonezko elebidun berantiarrek bai eta emakume elebidunek ere (goiztiar zein berantiar), arinago prozesatzen omen dute informazioa eskuineko hemisferioan.

Boston-eko Unibertsitateko Walters, J. eta Zatorre, R.J.-k¹⁷ bestetik, elebidunek dituzten bi hizkuntzetatik zeinetaz jabetu diren lehenik ez duela halako garrantzirik diote, biak ere ezkerreko hemisferioak prozesatzen bait ditu.

- Garapenaldia: bigarren hizkuntza nagusitzen doan neurrian gradualki ezkerreko hemisferioan lateralizatzen doa. D.F. Sewell eta L. Panou-ren¹⁸ ustetan, jatorrizko hizkuntza bigarrena baina lateralizatuagoa omen dago.

15- SUSSMAN, H.M.; FRANKLIN, Ph.; SIMON, T. (1982). "Bilingual speech: bilateral control?". *Brain and Language*, 15, 125-142.

16- VAID, J. ; LAMBERT, W. (1979). "Differential cerebral involvement in the cognitive functioning of bilinguals". *Brain and Language*, 8, 92-110.

17- WALTERS, J.; ZATORRE, R.J. (1978). "Laterality differences for word identification in bilinguals". *Brain and Language*, 6, 158-167.

18- SEWELL, D. F.; PANOU, L. (1983). "Visual field asymmetries for verbal and dot localization tasks in monolingual and bilingual subjects". *Brain and Language*, 18, 28-34.

- Elebiduntasun mota: honen arabera, elebidun koordinatuen hizkuntzen adierazpena bereiztuta dago: eskuineko hemisferioa, elebidun konposatuak baino gehiago erabiltzen dutelarik.

- Testuingurua: honen bitartez azaltzen dena, eskuineko hemisferioak bigarren hizkuntzaren ingurumarian lehenengoan baino partehartze handiagoa duela da. H.G. Gordon-ek berriz¹⁹ lateralizazioa ohizko aldagaietatik (erabilera, irakurketa, sexua,...) askea dela dio.

- Modalitatea: irakurketa eta idazketaren bidez burutzen den bigarren hizkuntzaren irakaskuntzak, ezkerreko hemisferioaren partehartzea bultzatzen du; entzumenaren bitartez burutzen denean aldiz, eskuineko hemisferioaren partehartzea indartzen du.

- Hizkuntzaren berezitasuna: honen arabera, hizkuntza baten ezaugarri jakin batzuk, eskuineko hemisferioaren partehartzea indartu dezakete. B. Shanon-ek²⁰ alabaina, hebraiera eta ingeles hizkuntzen jabe ziren elebaker eta elebidunekin azterketa burutu ondoren, elebidunek hizkuntzak elebakarrek baino lateralizatuagoak dituztela dio. M.I. Barton; H. Goodglass eta A. Shai-k²¹ hebraiera ingeles hizkuntzen jabe diren elebidunekin hiru-hizkiko hitzen berrezagutzari buruzko azterketa burutu ondoren, honako ondorio honetara iritsi ziren: bai ingeles zein hebraierako estimulu alfabetikoak hemisferio nagusiak prozesatzen dituela.

- Egitura-arteko distantzia: badirudi oso egitura desberdina duten bi hizkuntza oso antzekoa dutenak baino modu banatuagoan isladatzen direla eta honetaz gain, oso gertu dauden bi hizkuntzetan baino parte handiagoa hartzen duela eskuineko hemisferioak.

Desberdindu beharra dago, hizkuntzaren adierazpen modua eta honen erabilera. Zantzu klinikoan arabera, eskumatien hizkuntzaren adierazpen guztia ia, ezkerreko hemisferioan ematen da (%95ean gutxienik), eskuineko hemisferioak ere hizkuntzaren erabilera normalean dudarik gabe parte hartzen duelarik. Zenbaitek

19- GORDON, H. W. (1980). "Cerebral organization in bilinguals. I. Lateralization". *Brain and Language*, 9, 255-268.

20- SHANON, B. (1982). "Lateralization effects in the perception of hebrew and english words". *Brain and Language*, 17, 107-123.

21- BARTON, M.I.; GOODGLASS, H.; SHAI, A. (1965). "Differential recognition of tachistoscopically presented english and hebrew words in righth and left visual fields". *Perceptual and Motor Skills*, 21, 431-437.

proposatzen duten bezala, eskuineko hemisferioa dela eta elebakar eta elebidunen artean desberdintasunik badagoela onartuz gero, badirudi desberdintasun hauen kakoa, estrategien erabileran legokela.

Orain arte ikusi dugun bezala eta literaturaren arakaketa egiterakoan ikusten denez, elebidun/eleaniztunei buruz aldagai berriak sartzen zaizkigu jokoan, hizkuntza desberdinak alegia. Eta hau dela eta, hipotesiak eta iritziak ere ugaltu egiten dira azaldu daitezken aukera desberdinak proposatuz. Honela, nahiz eta oraindik egiten diren zenbait baieztapen zientifikoki frogatu gabe egon erabat, proposamen modura behintzat mota askotako iritziak azaltzen dira. Hauetako batek diona da, ezkerreko hemisferioak ez duela partehartze bera elebidunaren hizkuntza guztietan. Paradis-en²² ustetan berriz, ezkerreko hemisferioaren partehartzea bera da bi hizkuntzetarako, kontutan hartzen badugu behintzat norbanakoen artean zein bakoitzaren baitan egon daitekeen eta dagoen aldakortasun maila, bai eta eskuragarri dagoen zantzu klinikoek adierazten dutena.

Iritzi hau bera azpimarratzen dute Alexander, Benson eta Stuss-ek (1989.ean). Beraien hitzetan, eskuineko hemisferioko gaitzek ere mintzaira, hizkuntza eta komunikazioan nahasteak sortzen dituela dakigun neurrian, elebidunek ere hizkuntzaren/en nahasketa sintoma hauek berak agertuko dituzte, baina elebakarren modu eta neurri berean. Gertatzen dena, elebidunek, elebakarrek ez bezala, bi hizkuntzen jabe direla da eta honexek, nahasketa sintomen aniztasun eta aldakortasuna eragin dezakeela, baina azken urtetan ageri diren iritzi sendo eta arrazoituenak jarraituz, hau bi hizkuntzen jabe izateak eragiten du hain zuzen ere, bakoitzean modu desberdinean agertu bait daitezke sintoma hauek; baina lehen aipatu bezala, elebakarren modu eta neurri berean, hizkuntza desberdinei lotuta eta ez elebidun izateagatik.

Hari honi beroni jarraituz eta psikologia kognitiboaren ekarpenak kontutan harturik bai eta zenbait azterketen emaitzak ere, subjektu bakoitzak berezkoa bakarrik duen garunaren funtzio antolaketa berezia duela esan daiteke. Bestetik, betebeharrak bateko eginkizunak ez du, halaber, aterabide edo estrategi bera ekartzen; izan ere, hiztunen arteko aldakortasun zabala behatu izan bait da. Badirudi erabilitako estrategiak adinaren arabera ere aldatzen joaten direla bakoitzaren baitan eta hau eginbeharraren naturari eta zailtasun mailari lotzen zaio noski, ezin bait dugu inor ezagukera bakarrarekin lotu²³.

22- PARADIS, M. (1989). "La lateralización cerebral diferencial en los bilingües: ¡Basta, por favor!". *Investigaciones Psicológicas*, 7, 95-105.


23- JOANETTE, Y.; ROCH LECOURE, A. (1984). "Cerveau et langage: nouvelles perspectives". *Meta*, 29, 1, 27-35.

HIZKUNTZ-OROIMENA ELEBIDUNONGAN

*Lore Erriondo Korostola
Xabier Isasi Balanzategi*

Gure ikuspegiz *hizkuntz-oroimena* eta *oroimen orokorra* ez dira izatez izaera desberdinekoak. *Hizkuntz-orimena* ez da *oroimen orokorreko* aparteko informazio biltegirik, funtsean sistema bereko osagaiak dira. Orokorrean komunikazio-prozesuan norbanakoarengan ematen diren gertakizunak ondorengo diagraman beha daitezke¹:

1- PARADIS, M. (1986). "Sobre la representación de dos lenguajes en un cerebro". *Rev. Logopedia Fon. Audiol.*, VI, 4, 178-203.



4. Irudia: Enkodaketa mnemonikoa eta hizkuntz-dekodaketa

Ahozko komunikazioa gauzatzen denean gure baitako sisteman ia aldiberean bi eragiketa diferente suertatzen dira: *enkodaketa mnemonikoa* eta *hizkuntz-dekodaketa*. Haserako momentu baten eta lipar batez soinuak *oihartzun-oroimenean* geratzen dira, horrela *berriz ere entzun daitezke*. Bigarren momentuan *hitzen dekodaketa* (esanahia) ematen da eta horren ondorioak (esanahia eta egitura) hurrengo eragiketetarako gordetzen dira epe laburrez. Hala ere, esaldia oso luzea denean, entzundako hitz guztietatik soilik bakan batzuk gordetzen dira *Epe Laburrerako Oroimen biltegian*.

Hirugarren momentuan esalditatik eratorritako *mezua* bere hartan gordetzen da, bere *euskarri* edo *egituretatik* bereizturik; azken buru, komunikazioa *informazio esanguratsuen trukean bait datza*. Segituan informazioa *Epe Luzerako Oroimen biltegian* sartzen da eta, orduan, lehen bildutako antzeko informazioari lotzen zaio bai eta geroan bil daitekeenari ere. Finean *Epe Luzerako Oroimen Kognitiboan* elkarri loturiko informazioak biltzen dira eta hortik, norbanakoaren aukeran, berreskura daiteke eta, nahi izatekotan, hitzetara ekarri ere.

Aurreko horrek komunikazio prozesurako dagozkion *barne-eragiketa* batzuk adierazten ditu orokorrean eta, bereziki, elebakarren hizkuntza bakar bat erabiltzen denean. Elebidunen kasuan, berriz, pentsa liteke badagoela halako *kontzeptu-oroimen* berezi bat. Izan ere, elebidunek *bi kode diferenteen* (bi hizkuntza) jabe direlarik, hizkuntzak bezainbeste *biltegi semantiko* bait ditu; elebidunen kasuan bi hain zuzen ere. *Biltegi* horien arteko lotura hizkuntza bateko eta besteko hitzen kontzeptuetan aurki daiteke².

Kolers-en ustetan (1968.ean), elebidunek garun-errepresentazio multzo bakar bat dute, baina pentsamentua modu desberdinean antolatzen dute, H1ean edo H2an ahoskatu.

Honi jarraikiz, elebidunak gutxienik hiru modutara antola ditzazke artxibu semantikoak (Weinreich-ek, 1953.ean; Paradis-ek, 1978.ean):


1.- Sistema koordinatua dela esaten da, bere bi hizkuntzak jatorrizko hitzunen modukoak direnean eta beraien artean interferentzirik agertzen ez denean.

2.- Sistema konposatua dela diote, bi hizkuntzetako esanahi unitateak berdinak baldin badira eta interferentziak bi norabideetakoak izan.

3.- Bigarren hizkuntzaren sistema lehenengoaren menpekoa dela diote, bigarren hizkuntzako esanahi unitateak lehenengoarenak direnean, norabide bakar bateko interferentziak agertzen direlarik.

Edozein hizkuntzetako hitz bakar batek testuingurutik isolaturik esanahi ugari adieraz dezake; hizkuntza berria ikastear gaudenean entzuten ditugun elkarrizketak ezin uler ditzakegu beren osotasunean, *hitzak* ulertzen ditugu baina, elkarrizketaren edukia ulertu ahal izateko, haien esanahi posibleen artean testuinguruari dagozkionak aukeratzen ditugu. Horrela, gazteleraz, “calle” bezalako hitzak, *bidea*, *herria*, *hiria*, ... eta antzeko kontzeptuak dakarzkigu gogora; euskaraz, sorburu bereko “kale” hitzak, lehen aipatu kontzeptuez gain *huts egitea*, *kale egitea* bezalako ideiak ekar diezaizkiguke, gazteleraz, ordea, beste ikuspegi batetik, *isildu* esanahiari lotu dakioke. Argi dago, beraz, zenbait kasutan halako eremu *amankomunak* eman daitezkeela baina, baita, hitz baliokideak izanagatik, elkarren artean inolako erlaziorik ez dutenak ere.

2- PARADIS, M. (1986). "Sobre la representación de dos lenguajes en un cerebro". *Rev. Logopedia Fon. Audiol.*, VI, 4, 178-203.




5. Irudia: Barne-eragiketak elebidunongan

5. irudi honetan, Paradis-en³ ereduari jarraiki, elebidunon *baitako eragiketak* adierazi nahi izan ditugu. Horretan, *komunikazio egoera* ematen denean, sarrera *-input-* desberdinak izan daitezke *igorlearen hizkuntzaren* arabera (H₁ ala H₂). Lehenbiziko pausoetan (1), *kodearen* identifikazioa ematen delarik, bigarren momentuan *identifikaturiko kodeari* dagozkion *dekodaketa arauak* -2. eta 3. urratsak- erabiltzen dira; aldiberean -5. urratsa- *elebidunaren oroimen semantiko biltegi*etan egituraturiko sistemak aurreko prozesuan eragiten du. Eta, azkenik, 6., 7. eta 8. urratsetan *komunikazioaren* azkenengo *barne-eragiket*etan gauzatzen dira, horietan, hain zuzen ere, elebidunak *mezuaren enkodaketarako hizkuntza* aukeratu behar du.

Aipatu bosgarren pausoan, *Oroimen semantikoko biltegi*etan, antzeman daiteke

3- PARADIS, M. (1986). "Sobre la representación de dos lenguajes en un cerebro". *Rev. Logopedia Fon. Audiol.*, VI, 4, 178-203.

elebidunen arteko diferentziak; hots, egitura horri dagokiarik elebidunak *konposatuak* edo *koordinatuak* izan daitezke. Norberaren *hizkuntz-garapenaren* arabera *barneko hizkuntzen arteko erlazioak* mota batekoak edo bestekoak dira, interakzioa eta menpekotasuna diferenteak izanik.



6. Irudia: Ulermenerako prozesuen eskema logikoa. (Arnau, Sebastian eta Sopena. 1982)

Ondoren, *Arnau, Sebastian eta Sopena*-k⁴ proposaturiko ulermen prozesuaren *eskema logikoa* laburtua eta egokitua ekartzen dizuegu. Autore horiek aipatu artikuluan honako hau esaten dute: *informazio biltze sistema bakarra darabilen eredia proposatzen dugu, baina biltegi horri heltzeko prozedura erabilitako hizkuntza naturalaren arabera gauzatzen da; horrela elebidunaren ezagutza bakar bat delarik hizkuntza jakin baten erabilpenak oroimenaren edukiak ekartzen ditu, zeintzuk beste hizkuntzaren bitartez, ekar badaitezkeen ere, ezin ekar bait daitezkeen horren modu zuzenean.*

4- ARNAU; SEBASTIAN; SOPENA. (1982). *Anuario de Psicología* 26. zkia., 19. or.

1. OROIMENA ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA

Badirudi hizkuntzen irakaskuntza metodo derberdinen arabera, bi funtzio zerebral mota leudekeela modu desberdinean inplikaturik⁵.

Ez-ageriko oroimena⁶ aipatzerakoan, norberak modu automatikoan eskuragarri dituen eta konszienteki jabetzen ez den ezagutzaz ari gara.

Ageriko oroimena⁷ aldiz, norberak nahi duenean gogora erazi ditzakeen ezagutzaz dihardugu.

Jabetza inplizitoen ondorioa, prozesu automatikoak lirateke, eitea edo forma guretzat ezezaguna duten arauak osatzen dute; ez gara konszienteki ohartzen erabiltzen ditugun arauak. Ageriko oroimenean aldiz, arreta derrigorrezkoa da oroitzeko orduan eta informazio explizitua gogora ekartzerakoan.

Ez-ageriko oroimena agerikoa baino oinarritzokoago eta ohizkoagoa da; agerikoa, ahalmen berezia bezala har daiteke kontutan.

Badago galdetzerik ea konszienteki ikasitako egiturak automatikoak bilakatzen diren praktikaren poderioz edo eta inoiz ere automatikoki erabiltzea ezinezkoa izango den sistema mnesiko desberdin bat osatzen duten.

Badirudi berez jasotakoa, oroimen inplizito modura jasotzen dela eta ezin dela azalerazi jokabidearen bitartez ez bada. Bestetik, badirudi ikasitakoaren zenbait alderdi piskanaka piskanaka automatiko bilaka daitezkeela iharduera luze bati esker. Hizkuntzari dagokionean berriz, erantzuna desberdina izan behar duela pentsa daiteke, alderdi fonologiko edo morfosintaktikoak kontutan hartuz gero. Artikulazio keinuak adibidez, automatiko bilakatzen dira praktikaren poderioz.

Automatiko bilakatzen dena, ez da arauaren ezagutza explizitua, formulazioa, baizik eta bere aplikapena; hau da, hitz ilada zuzena modu zuzenean ekoizteko ahalmena da automatizaturik gelditzen dena. Guk ez ditugu gure perpaus gehienen oinarrian dauden arauak ezagutzen. Hizketan ikasten ari den haurraren argi eta garbi ikus dezakegu ageriko gramatikaren aztarnarik ere gabe ikasten duela hizketan.

5- PARADIS, M. "Implication de mécanismes mnésiques cérébraux différents selon les méthodes d'apprentissage". Communication présentée au *1er Congrès International Mémoire et Mémorisation dans l'Acquisition et l'Apprentissage des Langues*. Bruxelles, le 22 novembre 1991.

6- "Ez-ageriko oroimena", inplizitua dena adierazteko erabiliko dugu gure lanean

7- "Ageriko oroimena", explizitua dena adierazteko erabiliko dugu.

Hizkuntzen irakaskuntzan eginiko zenbait azterketek azaldu duten bezala, eta hau ederki dakite Herri honetan euskalduntzearen inguruan dihardutenek ere, zenbait ikaslek nahiz eta oso emaitza onak jaso eskolako galdeketa eta ariketetan, ez direla inguru naturalean elkarrizketari lotzeko gai. Honek erakusten diguna zera da, eskolan edo eskola inguruan hizkuntzen irakaskuntzarako ohizko metodoetan oinarrituta jasotako gaitasun gramatikala edo linguistikoa, hutsaren hurrena dela hizkuntzaren benetako ikaskuntza bermatu nahi izanez gero; eta kalean jasotako gaitasun komunikatiboa aldiz, behar-beharrezkoa dela, funtzio hau betetzen bait du eta honi eman behar zaiola beraz nagusitasuna. Hau honela izanik, bidean agertzen zaigun hurrengo oztopoa, jasaten dugun egoera diglosikoa bera da. Izan ere kalean maizago entzungo du gazteleraz hizketan euskaraz baino. Hontaz gainera, zenbait egoera jakinetan gainera behartuta egongo da gaztelera erabiltzera. Gertatu ere agian gerta dakioke (eta ez litzateke berria izango), ikasitakoa praktikan jartzeko asmotan jendeari euskaraz zuzendu eta hauek gazteleraz mintzatu euskaraz ez dakitelako edota antzeko egoeratan gazteleraz mintzatzea dagoelako ondo ikusita. Honela bada, hizkuntza normalizatuta dadukan herri batean gomendagarri dena ikusi, egoera diglosikoan ez da hain xamurra.

2. ITZULPENA ELEBIDUN/ELEANIZTUNENGAN

Badirudi itzultzeko gaitasuna eta bi hizkuntza hitzegitearena neuropsikologikoki behintzat askeak direla elkarren artean. Itzultzailearen gaitasunaz inplizitoki jabetu daiteke edota konszienteki ikasi.

Elebidun jakin batek zailtasunak edukiz gero hizkuntza batetik bestera eskatutako zerbaiten parekoa ekoizteko, hiru arrazoi eduki ditzake, lehena jatorri linguistikoa duena eta gainontzeko biak neuropsikologikoak. Lehenengoa, jatorri linguistikoari dagokio. Gerta daiteke hizkuntza bateko adierazpen batek ez izatea parekoa bestean, edo oso zaila izatea behintzat parekoa den adierazpen bat topatzea. Hau ez da gehienetan gertatzen dena zeren eta hurbilagoko edo urrutiagokoa baina gehienetan behintzat aurki daiteke pareko erantzuna. Hala ere askotan, subjektu elebidunak ezin du erantzun a proposa aurkitu. Batzutan badirudi zenbat eta gehiago bilatu, orduan eta urrutiago dagoela, topagaitza bilakatzen da. Beranduxeago aldiz, berez ateratzen da.

Honek baditu haseran esan bezala gutxienik bi erantzun neuropsikologiko. Batetik, pentsa daiteke hiztunak bere bi hizkuntzetako bat erabiltzen duenean bestea automatikoki indargetzen dela interferentziarik ez gertatzeko. Honen bitartez azalduko lirateke berreskuraketa selektiboak, segidazkoak eta aurkakoak⁸.

8- PARADIS, M.; LECOURS, A.R. (1979). "L'aphasie chez les bilingues et polyglottes". A. Lecours, F. Lhermitte et al. *L'aphasie-n*. Flammarion, Paris, 605-616.

Nahiz eta hizkuntza batean mintzatzen ari den bitartean bestea indargeturik egon, hizkuntza honen ulermena ez da inoiz ere indargetzen. Izan ere elebidunak ezin aukera bait dezake ez-ulertzea. Hau dela eta hain zuzen ere, zenbaitek pentsatu du, bi sistema zirela: bata ulermenerako eta bestea adierazpenerako⁹.

Bapateko itzulpenak ez du azken arau hau betetzen, une berean bi hizkuntzak ari bait dira erabiltzen eta parekoak batetik bestera eskaintzen etengabe; beraz ezin esan dezakegu kasu honetan hizkuntza batetan ari den bitartean bestea indargeturik dagoenik. Badirudi zaila gerta daitekeela bapateko itzulpenean pareko esaldi bat aurkitzea, itzuli beharreko esaldia epe laburrerako oroimenean (ELO) gordetzen den bitartean (hau da, bai esanahia zein forma edo eitea). Hau gainditu ahal izateko estrategia bat, epe laburrerako oroimenetik (ELO) jatorrizko hizkuntzatik esaldia aldentzea izan daiteke eta esanahia bakarrik gordetzea; honela, mezua bigarren hizkuntzan lehenengoaren interferentziarik gabe eman daiteke.

Pentsa daiteke beraz, hizkuntza batetik bestera itzultzeko gaitasuna eta hizkuntza bat edo bestea berezko jariorako aukeran izatea elkarrengandik askeak direla. Honekin jarraituz, esaldi baten bapateko itzulpenean dirudienez hiru sistema neurofuntzional daudela inplikaturik dio Paradis-ek¹⁰: batetik, iturri den hizkuntza edo H1-i eusten dion sistema; bigarrenik, itzuli beharrekoa edo H2-ri eusten diona eta azkenik iturri eta helburu diren hizkuntzen arteko konexioei eusten diena (H1etik H2ra). Laugarren sistema bat ere egon daiteke itzulpena beste norabidean egin behar izanez gero zeren eta kasuren batean (H2tik H1ra); hain zuzen ere Paradis eta lankideek 1982.ean¹¹ aztertutako subjektu batek, H1etik H2ra itzul zezakeen baina ez aldiz H2tik H1era. Honek adieraz dezakeena beraz, itzulpenari bi konexio sareek eusten diotela da, bat norabide bakoitzarentzat. Badirudi lau sistema hauek autonomoak direla elkarren artean baina selektiboki indargetzeko aukera ere badutela.

9- ALBERT, M.; OBLER, L.K. (1978). *The bilingual brain*. Neuropsychological and Neurolinguistics Aspects of Bilingualism. Academic Press, New York.

10- PARADIS, M. (1984). *Aphasie et traduction*. Meta, 29, 1, 57-67.

11- PARADIS, M.; GOLDBLUM, M.C.; ABIDI, R. (1982). "Alternate antagonism with paradoxical translation behavior in two bilingual aphasic patients". *Brain and Language*, 15, 55-69.

HIZKUNTZEN IKASKUNTZA

Lore Erriondo Korostola

1. HIZKUNTZEN IKASKUNTZA ETA BEREZKO GARAPENA

Orain arte, hizkuntzaz, bere jabetzaz, kokapenaz etab. ihardun dugu, gizakiok hizkuntza berezkoa izango bagenu bezala; gizakiaren izaera biologikoan oinarrituz berorren garapenari darion dohaia izango balitz bezala hain zuzen ere. Baina jakin badakigu ez dela horrela, gizakiaren egitura neurologikoa ezinbestekoa izanagatik, ez dela nahikoa hizkuntza bereganatzeko. Hizkuntza ezinezkoa da aipatu egitura neurologikoa ematen ez bada, baina gizakiongan hizkuntza agertzeko, egitura honetaz gain, funtsezkoa da gizakien arteko hizkuntz harremana. Hizkuntzarik gabeko gizartean ez litzateke inolako gizaki hiztunik garatuko. Horrela, hizkuntzaren berezko ikaskuntza aztertzerakoan argi eta garbi bereiztu beharko genuke egitura neurologikoari dagokiona eta kultura eta giza-harremanei dagokiena. *Naturala eta kulturakoa edo naturala eta historiakoa zein biologikoa eta soziala haurraren garapen psikologikoen azterketetan nahasteak ezinbestean gertakizunen interpretazio okerrak eta gaizki ulertzeak baino ez dakartza (Vygotsky, L.S-k. 1930-1991)*

Mintzairaren azterketek, zenbaitetan alboratuta egon den subjektu hitzuna berreskuratu du piskanaka eta gure asmoa hau kontutan edukitzea da; beraz, ez

genuke mintzairaren edukiaz bakarrik aritu behar baizik eta honen erabilera ere aztertu, duen garrantzia emanaz¹.

Kontutan hartu beharko genuke zer den egitura neurologikoari lotuta dagoena eta zer kultura garapenari. Honexegatik ezinbestekoa deritzogu ondorengo lerrotan hizkuntz ikaskuntzaren ikuspegi teorikoa jorratzeari.

Hizkuntz ikaskuntzaren prozesua *hizkuntz-trebetasunen* arabera beha daiteke. Subjektu jakin baten hizkuntz-gaitasuna ebaluatzerakoan, bere hizkuntz-trebetasunak neurtu ohi dira. *Ulermena, mintzamena, irakurmena eta idazmena* neurtuaz, subjektuen hizkuntz-gaitasunaren berri izan dezakegu. Bestalde, *berezko garapenaren* azaleko azterketa egiten badugu, ondorengo esan dezakegu:


1. Gizakiaren berezko garapenari darraion hizkuntz ikaskuntzan hizkuntz-trebetasunen artean erabateko hurrenkera beha daiteke; hots, hizkuntz-egoera normalizatuan eta berezko garapenari dagokiolarik hizkuntz-trebetasunak adierazitako hurrenkerari darraio.

2. Hurrenkera horri atxekiz, batetik bestera igarotzeko aurreneko hizkuntz trebetasunaren *nahikotasun maila izatea* ezinbestekoa da.

Agian honek aparteko azalpena beharko luke. *Nahikotasun mailak* ez du adierazten dagokion trebetasunean alderdi guztiak ezagutu eta menperatzen direnik; horren esanahia bestelakoa da. Ez daukagu jakiterik norbanakoaren "nahikotasun maila" zein den zehaztasun osoz; izan ere, norbanakoaren garapenean aldagai anitzek eragiten bait du. Onartzen dugu, oster, Vygotsky-ren ikuspegi genetiko-sozialari jarraiki, epealdi desberdinetan banatzen dela berezko ikaskuntza. Hau da, hitzegiten dela ulertzen hasia izan eta gero; irakurtzen dugula mintzatzen dakigunean eta idazten irakurtzeko gauza garenean, eta ez aldrebes.

Horiek horrela, ondorengo irudia proposatzen dugu:

1- DEL RIO, M.J.; VILASECA, R. (1988). "Sobre la adquisición y el desarrollo del lenguaje". Peña Casanova, J. *Manual de Logopedia-n*. Masson, Barcelona.




7. Irudia: Hizkuntzaren berezko garapena. Eredu normalizatua.

Abzisen ardatzak, haserako egoera adierazten du; abiapuntua alegia. Abiapuntu hau, norbanakoaren gaitasunak, inguruko hizkuntza, hizkuntz-giroa eta baldintza sozio-kulturalen funtzioa da.

Ordenatuen ardatzan, funtsezko hizkuntz-trebetasunak agertzen dira, esandako hurrenkeran; hala nola: ulermena, mintzamena, irakurmena eta idazmena. Batetik bestera pasa ahal izateko, nahikotasun maila gaiztatea ezinbestekoa da.

Ardatzek definituriko eremuan, norbanakoaren garapen funtzioa eraiki daiteke; beraz, garapen funtzioa, marra lerromakurra izaten da kasu guztietan.

Hizkuntz trebetasunen arabera bereizturiko barruti desberdinetatik igaro behar delarik, batetik bestera emandako denborak, subjektuen arteko diferentziak adierazten ditu. Abiapuntu okerrenetik hasten direnek (1 zenbakiz adierazten dena irudian), luzeago eman behar dute barruti batetik bestera; hori espero dezakegu bederen. Ikus dezagun ondorengo grafikoan, nolakoa izan daiteken bakoitzaren bilakabidea, abiapuntu desberdinetatik abiatuz gero. Esan bezala, marra lerromakurrak dira guztiak eta honetaz gainera, zenbat eta abiapuntu hobeia izan, orduan eta zuzenagoa da lerro hau, ondorengo adibidean ikus dezakegun bezala. Bestetik bertan ere grafikoki antzeman daiteke zenbat eta makurragoa izan marra, hainbat luzeagoa dela, eta honek, denbora gehiagoren beharra adieraziko luke. Ikus dezagun bada:




8. Irudia: Berezko garapenaren bilakabideak (Kurbak).

Hirukiaren goi-mailara iristen direnak, hiztun osoak izango lirateke; hau da, beheko hizkuntz trebetasun guztiak menperatzen dituzte (ulermena, mintzamena, irakurmena ete idazmena). Baina behe-mailan daudenak, ez dituzte goiko hizkuntz trebetasunak menperatzen, ezin dugu esan beraz hiztun osoak direnik

hurrenkera honi jarraikiz goi mailaraino iritsi artean. Honetarako, bakoitzak bere bide propioa egingo du, azkeneko grafikoan agertu ditugun adibideen modura; hau da batzu besteez baino denbora gehiago beharko dute puntu berera heltzeko aipatutako bakoitzaren abiapuntua markatzen duten aldagaiek eraginda.

Ardatz kartesianotan honela adieraz genezake orainarte esandakoa:



U= Ulermena
 M= Mintzamena
 IK=Irakurmena
 ID=Idazmena

9. Irudia: Berezko hizkuntz garapena.

2. BIGARREN HIZKUNTZAREN IKASKUNTZA ETA JABETZA PROZESUA

Hizkuntzen irakaskuntzan diharduten irakasleek ere gero eta maizago erabiltzen dute neuropsikologiari dagokion literatura gida modura, baina kontu handia eduki behar da, bertan azaltzen diren zenbait eragiketa teoriko hizkuntzen ikaskuntzako metodologiari aplikatzerakoan hauek gehienetan eta guk egindako literaturaren berrikusketan ikus ahal izan dugun bezala, hipotetikoak bait dira eta behin baino gehiagotan ere, kontraesan ugari dituztenak².

Lenneberg-ek (1967.ean) eskuineko hemisferioak lehenengo hizkuntzaren jabetzan duen partehartzea azpimarratu zuen. Antzerako moduan Brown-ek (1977.ean) ezkerreko hemisferioan hizkuntzaren mailakako lateralizazioaren hipotesia azaltzen du.

Ondoren Albert eta Obler-ek³, bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan eta elebidunengan orokorrean, eskuineko hemisferioak partehartze handiagoa duela diotela ere ikusi dugu dagoeneko.

Gordon eta Weide⁴ ere iritzi berekoak dira; hau da, indoeuropear hizkuntzetako hiztun elebakarrek mintzamina, ulermena eta irakurketarako beharrezkoak dituzten garun-prozesuak, ezkerreko hemisferioan daudela kokatuta; baina beste hizkuntza bat/batzuren ezagutzak, garunaren bi hemisferioen inplikazioa eskatuko lukela.

Kokapenari dagokionean beraz, pentsa daiteke, bigarren hizkuntza bat lehenengoaz jabetu ondoren ikasten hasten denean, bigarren hizkuntza honen ikasketak ez diola jatorrizko hizkuntzaren prozesu berari jarraitzen. Batetik, garun-garapena une desberdinean aurkitzen da eta bestetik dagoeneko lehen ez zeuden elementu kognitibo berriek hartzen dute parte. Adibidez, nabarmena izaten da nerabezaroa baino lehen edo ondoren ikasitako hizkuntzen arteko ahoskera desberdintasuna⁵. Hemendik abiatuta, bigarren hizkuntza irakasterakoan bai eta hizkuntza/k berreskuratzeko plangintzatan erabilitako egitarau eta metodologiaren

2- PARADIS, M. (1989). "La lateralización cerebral diferencial en los bilingües: ¡Basta, por favor!". *Investigaciones Psicológicas*, 7, 95-105.

3- ALBERT, M.; OBLER, L.K. (1978). *The bilingual brain*. Neuropsychological and Neurolinguistics Aspects of Bilingualism. Academic Press, New York.

4- GORDON, H.W.; WEIDE, R. (1983). "La contribution de certaines fonctions cognitives au traitement du langage, à son acquisition et à l'apprentissage d'une langue seconde". *Langages*, 73, 45-56.

5- GORDON, H.W.; WEIDE, R. (1983). "La contribution de certaines fonctions cognitives au traitement du langage, à son acquisition et à l'apprentissage d'une langue seconde". *Langages*, 73, 45-56.

barnean erabilgarri gisa proposatu zituzten haur errimak, musika, dantza edota ikus-espazial trebetasunetan oinarritutako teknikak⁶. Adibide modura, guztiok gogora dezakegu irakaskuntza mailan ere (bigarren zein modernoak deituriko hizkuntzatan) bolada batean abesti zaharren doinu ezagunak erabili zirela irakatsi beharreko edukien hitzak beraiei egokituz; honela, errazago sartuko omen ziren buruan segurtatzen omen zen. Baina ikus ditzagun ondoren, honen inguruan sor daitezken zalantza edo kontraesanak:

1. Ez dago segurtatzerik, “eskuin hemisferioko estrategiak” erabiliz gero, honi dagozkion ariketa bitartez ikasitakoa nahitanahiez eskuineko hemisferioak prozesatuko duenik.

2. Ez dirudi pedagogikoki ez eta psikologiaren ikuspegitik begiratuta ere egokia denik hurbilpen edo estrategia bera erabiltzea ikasle guztiekin; izan ere, ikasleek ezagukera⁷ desberdinak eduki ditzaketela kontutan harturik, batzurentzat baliagarria izan bait daiteke, ez ostera besteentzat.

3. Bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan eskuineko hemisferioa inplikaturik egoteak, ez du esan nahi eskuineko hemisferioa erabiltzea denik bigarren hizkuntza ikasteko modurik onena edo biderik errezena.

4. Ezkerreko hemisferioaren nagusitasun ezak batzuren ustetan hitzmoteltasuna sortarazten duela kontutan harturik (Sommers eta Brady-k, 1975.ean; Shenker-ek, 1979.ean), eta hauxe bera dela hain zuzen ere azalpen bezala erabiltzen dena hizkuntzaren trebetasunen jabetzan haurtzaroan gertatzen diren atzerapen kasuak azaltzeko (Le May eta Geschwind-ek, 1978.ean); hau aintzakotzat hartu beharko da bigarren hizkuntza irakasteko erabili beharreko estrategien plangintza egiterakoan. Hauek, ezker lateralizazioaren aldekoak izatea zaindu beharko da alegia (baina honek ez du esan nahi, lehen eskuineko hemisferioarekin ikusi dugun bezala, derrigorrez, erabilitako estrategiek ezkerreko hemisferioa inplikatzen dutenik). ***Honela bada, mota guztietako ariketa kognitiboak erabil daitezke, ustez alde eta hemisferio desberdinak*** (bai ezker zein eskuinekoa ere) ***kontutan dituenak***, baina hauek burutu ahal izateko hizkuntza (gramatikaren erabilera hain zuzen ere, fonologia, morfologia, sintaxia, semantika) ezkerreko hemisferioak prozesatzen du.


Bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan eskuineko hemisferioa inplikaturik egoteak beraz, eta hala da, ez du esan nahi eskuineko hemisferioa erabiltzea, bigarren hizkuntza ikasteko modurik eraginkorra denik (Paradis-ek, 1989.ean).

6- ALBERT, M.; OBLER, L.K. (1978). *The bilingual brain*. Neuropsychological and Neurolinguistics Aspects of Bilingualism. Academic Press, New York.

7- Ezagukera hitza erabiliko dugu lan honetan “estilo kognitiboaz” ulertzen duguna adierazteko.

Dagoeneko ikusi dugu eskuineko hemisferioak lehenengo hizkuntzaren prozesamentuan ere parte hartzen duela normalean; neurri honetan berean bada hartuko du parte bigarren hizkuntzaren prozesamentuan ere, baina ez gehiago. Eta honi loturik, elebidun batzu, hizkuntzaren prozesamentuan eskuineko hemisferioan oinarritutako estrategien erabileraz ari bagara, (Gordon eta Weide-k, 1983.ean; Vaid-ek, 1983.ean) ez gara ari elebidunek bakarrik (edo elebidun taldeek) berezkoa duten ezaugarri bat aztertzen baizik eta elebakar batzu ere berea dutena; zeren eta lehen esan bezala, hau, bakoitzaren ezagukeraren baitan dago eta ez dago frogaturik estilo hau elebidunengan elebakarrengan baino maizago ematen denik (Paradis-ek, 1989.ean).

Hizkuntzaren berezko garapena aztertzerakoan proposatutako hiruki bera erabil dezakegu orain esandako hau argiago adierazteko. Hara:



- Hizkuntzaren berezko garapena
- Kulturazko hizkuntz-garapena

10. Irudia: Hizkuntzaren berezko garapena / Kultura bidezko hizkuntz-garapena.

Oraingo hiruki honetan ikus dezakegun bezala, gainjarri dugun kultura bidezko hizkuntz-garapena adierazten duen hirukiaren abiapuntua, irakurmenean oinarritzen da. Honekin zera adierazi nahi dugu: hizkuntza ikasteko ohizko metodoak, irakurmenean oinarritzen direla; eta beraz, grafikoki nabarmen gelditzen dena, ulermena eta mintzamina ez direla lantzen da eta beraz, ez-hiztunen eremuan jarraitzen dute. Irakurmenean oinarritutako metodoen bitartez hizkuntzaz jabetzen saiatzen denak, puntu batetik aurrera lortuko du irakurtzen duena maila batean ulertzea, baina beti ere lortuko duena, irakurketaren ulermena izango da eta ez hizkuntzarena, zeren eta hizkuntza hau ez du entzun, ez ulertu ez eta mintzatu ere.

Honekin ikustarazi nahi duguna, gaitasun gramatikala komunikatzeko nahikoa ez dela da eta helburua komunikatzea baldin bada behintzat, berezko garapenaren hirukian agertzen den bidea urratu behar dela hiztun osoa bilakatu ahal izateko. Hitztunaren hirukian sartzen hasten denean bakarrik lortuko du hau, aurrekoarekin batera ulermena eta mintzamina lantzearen bitartez. Honekin beraz ez dugu ukatzen bigarren abiapuntu honetatik hasten den norbait hizkuntzaz jabetuko denik, baina hau ezagutzaren arlo guztiak landu ondoren lortuko luke. Honela beraz, kultur bidetik abiatzen denak, abiapuntua edozein izanda ere, ezingo du hiztun oso bilakatu irakurmen eta idazmenaren bitartez soilik baizik eta gainontzekoak ere –ulermena eta mintzamina alegia– landu beharko ditu. Ordurarte ezingo du bere burua hiztun osotzat hartu.

Ohizko hiztun batek ekoiztutako edozein perpausek, zerbait adierazi nahia agertzen du. Lehenengo hizkuntzaren ikaskuntzan ere, gauza bera gertatzen da: haurrak motibazio handia du adierazi nahi duena esateko eta esaten zaiona ulertzeko. Hau da hain zuzen ere bigarren hizkuntzen ikaskuntzako gaur egun arteko metodo guztien hutsunea, eta honi heldu behar zaio hizkuntzen irakaskuntzan zein hauen berreskuraketan ere, ahalik eta eraginkorrena izatea nahi badugu behintzat.

Bigarren hizkuntza bat zeharkako metodoen bitartez (deduktibo, analitikoa) eta gramatikazko itzulpenean oinarrituta ikasi edota metodo zuzenaren bitartez (induktiboa, egoerari lotutakoa, ikusentzunezkoa eta egitura osokoa), ikasitako hizkuntzaren isladapenak desberdina izateko aukera guztiak ditu, bakoitzean inplikaturik dauden trebetasun kognitiboak direla medio.

Bigarren hizkuntzaz metodo zuzenaren bitartez jabetzeko prozesuak, lehen hizkuntzaren jabetzaren ezaugarria den ikasketaren antza du. Bertan, subjektuarentzat garrantzitsuena esanahia da batetik eta mezua komunikatzeko (edo jasotzeko) intentzioa bestetik. Honela, jabetzen da egituraz, moduz ere jabetzen da baino ia-ia ondorio bat bezala, helburua beti ere komunikazioa delarik.

Esan beharrik ez dago ikasgelan ez dela honela gertatzen, gehienetan behintzat. Bertan esaldiak, bere izaera galtzen du; hau da, komunikatzearen intentzioa, egoera errealitatetik nahiko urrun bait dago.

Beraz, badirudi ikasteko modurik onena, eraginkorrena behintzat, baldintza naturaletara ahal bezainbeste hurbiltzea litzatekeela eta dagoeneko teknika batzu honetan saiatu dira.

Ikusentzunezko metodoak adibidez, errepikaketan oinarrituta dauden metodo audiolingualetako elkarriketei zentzua eman die eta inguru jakin batean kokatu ditu. Azken hauek, *audiolingualak* alegia, egituraz arduratu bait dira, egitura ariketei garrantzi nagusia emanez.

Estrukturoglobal eta ikusentzunezko metodoak, alderdi semantiko eta pragmatikoa gehitu dute, egoerari indarra emanaz; hau da, azaltzen den esaldia, kontextu baten barruan agertu behar duela adieraziaz, eta hau, irudi batez hornitzen delarik gainera. Era guztietara, azken hauetan ere lehen esan bezala mezua komunikatzeko intentzioaren hutsunea agertzen zaigu berriro, gainontzeko metodo guztietan bezala. Hutsune hau bete nahiean sortu zen *hurbilpen komunikatiboa* deritzan irakas-metodoa. Azken honek garrantzia mezuari ematen dio eta ez hainbeste formari. Bertan ikaslea komunikatu beharreko egoeran jarri behar dela proposatzen da; zerbait komunikatu nahi/behar izatea eragin behar zaio.

Orainarte ikusitako guzti honek metodorik onena zein den erabakitzearen bidean jartzen gaitu, baina ezin da besterik gabe honelako afirmazioarik egin. Ezin dugu esan honako edo halako metodoa denik bigarren hizkuntza ikasteko metodorik onena baizik eta kasu bakoitza banaka aztertu beharra dugu (berreskuraketan batez ere), honako aldagai hauek kontutan hartu behar ditugularik:

- *Adina*: 6 urte beherakoa den edota 15 urtetik gorakoa. Lehenengo kasuan garuna heltzen ari da oraindik eta bigarreanean aldiz, ikasketa garunaren heldutasuna burutu ondoren ematen da. Kasu batean edo bestean egon, maila kognitiboa ere desberdina izango da.

- Aurretik duen *esperientzia*: *heziketa maila, alfabetakuntza maila, idazketa sistema*.

- Bakoitzaren *ezagupena*: analitikoa, ezagutza zehatzetan oinarritzen dena, edo globala, estrategia inplizitoetan oinarritzen dena.

- **Helburuak:** ulertu, hitzegin irakurri edo/eta idatzi, zeren eta gaitasun desberdinak garun-azaleko eremu desberdinak ere inplikitzen dituzte.

- **Gelako ikasle kopurua:** ez bait da gauza bera 6 ikaslerekin edo 30ekin aritzea. Testuinguru komunikatiboa ez da 30 pertsonen artean gauzatzen, talde txikietan baizik.

- **Ikastaroaren iraupena**
- **Ikastaroaren trinkotasuna**
- **Bitartekoak** erabiltzeko aukera etab.

Guzti hauek kontutan eduki beharrekoak dira irakaskuntzan arrakasta lortu nahi izanez gero.

3. HIZKUNTZEN ARTEKO UKIPEN EGOERAKO IRAKASKUNTZA

Euskaldunak edo Euskaldukoa edota antzerako hitzak erabili izan badira ere, hizkuntz egoera kontutan harturik *Euskararen hiztun taldeaz* aritzea zehatzagoa delakoan gaude. Azken finean edozein ikerketa edo azterketa egiten dugunean zehaztasuna eskatzen dugu; hau da, kontzeptuen interpretapenarik argiena, sinpleena eta onartuena izatea. Hori horrela, hizkuntza (Euskara) erreferentzia delarik zein erizpide hizkuntza bera baino hoberik? Hortaz euskararen hiztunak sailkatzeko bi aldagai erabili ditugu: jatorrizko hizkuntza eta beste hizkuntza baten ezagupena, erdararena alegia. Proposatutako sailkapena eta kode adierazleak ondorengoak izango lirateke:

3. Taula: Euskararen hiztun taldeak jatorrizko hizkuntzaren arauera.

JATORRIZKO HIZKUNTZA


HIZTUN TALDEAK	Euskara soilik	Euskara lehen	Euskara eta erdara batera	Euskara bigarrena
ELEBAKARRAK	Euskaldun hutsak	—————	—————	—————
ELEBIDUNAK	—————	Jatorrizko euskaldun elebidunduak	JATORRIZKO ELEBIDUNAK	Jatorrizko erdaldunak elebidunduak
HIZKUNTZEN ARTEKO ERLAZIOA	Euskara hizkuntza bakarra	$H_1 = \text{Euskara}$ $H_2 = \text{erdara}$	$H_a \ \& \ H_b$ Euskara zein erdara	$H_1 = \text{erdara}$ $H_2 = \text{euskara}$

Aurreko taula horretan ikus daitekeenez lau hiztun talde diferente dago. Ez dugu esango hiztun osoak diren ala ez, une honetan ikerketa eta azterketetan erabili behar den terminologia zein den adieraztea interesatzen bait zaigu. Honela, bada, euskalduntzen diren helduen artean Euskara beti bigarren hizkuntzatzat (H_2) jotzen dugun bitartean, elebidunen artean Euskara, lehenengo, bigarren edo aldibereko hizkuntza izan daiteke, hurrenez hurren, H_1 , H_2 eta H_a/H_b .

Eskolaz ari garenez gero, berari dagozkion subjektuen azterketari ekingo diogu. Oso bereizketa sinplea eginez, jaiotzeko hizkuntzen arabera, hiru hiztun talde osa ditzakegu:

- * Euskaldunak (euskaldungoa)
- * Elebidunak (elebidungoa)
- * Erdaldunak (erdaldungoa)

Kasu bakoitzean eskolarako **abiapuntua diferentea** dela begibistakoa da eta eskolan diferentzia horiek desagertu edo aregotu daitezke; honetaz, aurrerago mintzatuko gara. Orain, behin hiztungoaren sailkapena definiturik, nola banatzen diren ikus dezagun:



11. Irudia: (1989) 1.986 Urteko Erroldaren araberako Euskal Autonomi Elkarteko Azterketa Demolinguistikoa. Soziolinguistikazko Mapa. Eusko Jaularitza, Lehendakaritza Sailak. Gasteiz. 47. orrialdea.

Goiko irudian agertzen denez, euskaldungoa urtez urte txikituz doan bitartean, elebidungoa handituz doa. Joera hori gure ustez azken urteotako daturik aipagarrienetarikoa bat izango litzateke. Euskara orain artean, gizartean zatikaturiko gertarea bezala definitzen zen; egun, zatikatze hori euskaldunenganaino ailegatu da: ia ez dago euskalduna izaterik, elebiduna baizik. Horrela omen da Euskal Herriko hizkuntz errealitatea eta horren baitan lehen aipatutako *abiapuntuaz* zeozer gehiago esan nahi dugu:

Hiztun taldeak elkarren artean diferenteak direlarik, ez da berdina euskalduna, elebiduna edo erdalduna izatea. Arestian euskararen euskarri sozialaz mintzatu garenean, horri dagozkion ezaugarriak aipatu ditugu eta horiek beroriek dira euskaldungoa definitzen dutenak. Oraingo honetan ez gara populazio helduaz ari baina ume euskaldunei, aipatutako zenbait populazio-ezaugarri dagokielakoan gaude; hala nola, baserri girokoa, klase sozialari begira erdi mailakoa eta guraso alfabetugabeak (euskaraz jakina).


Izatez, euskaldungoa da ongien definiturik agertzen zaigun giza taldea, alderdi batetik hizkuntzagatik eta, bestetik, hizkuntzari loturik dauden faktoreengatik (kultura, gizarte-maila,...). *Hizkuntzak definitzen du geroko ikaskintzaren oinarria*; hots, edozein umeren ikaskintza, hizkuntza jakin baten eremuan gauzatuko delarik, haurren oinarrizko hizkuntza zein den kontutan hartu behar izango da⁸.

Elebidungoa definitzea zaila suertatzen zaigu, ez bait dakigu horri dagozkion faktoreak, zehaztasun osoz bederen, zeintzu diren, hizkuntzena kenduta. Erdaldungoaren kasuan ordea denetarik dagoenez, gizatalde “normalizatua” denez, ez dugu uste definitzeak merezi duenik ere. Dena den ondorengo adierazpide grafikoan hizkuntz ukipen egoeran hiztun tade diferenteen definizioak ematen saiatuko gara.

8- .../..., ce n'est pas la bilinguïté qui est responsable des échecs scolaires, mais les facteurs socio-structuraux, socioculturels et socio-psychologiques qui conduisent à une bilinguïté soustractive.

.../... nous avons montré que pour créer une situation additive dans le cas d'une bilinguïté soustractive, il fallait que l'éducation valorise L1 dans la société entière et encourage son emploi dans le plus grand nombre de fonctions possibles à l'école et à la maison.” (Hamers & Blanc 1.983, *Bilinguïsmes et Bilinguïté* 333. orr.)

HIZKUNTZ-UKIPENA, EUSKARAREN EGOERA



- A. Hizkuntza normalizatuari (gaztelaniari) dagokion hiztun-multzoa. Ulertu eta hitz egiten dutenak.
- B. Hizkuntza nagusiaren hiztun multzoa (ulertu, hitz egin eta irakurri).
- C. Hizkuntza nagusiaren hiztun multzoa (ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi) –Hiztun osoak–
- K. Elebidun Pasiboak (2. hizkuntza ulertzen dutenak).
- L. Elebidun Aktiboak (Ulermena eta Mintzamina).
- M. Elebidun Aktiboak (Uler, Mintza eta Irakurmena).
- N. Elebidun Osoak. Bi hizkuntzatan HIZTUN OSOAK.

12. Irudia: Hizkuntz ukipena. Euskararen egoera.

Sasoi batean genetistei kasu egin izan bagenie, ikastetxe pribatuko neska-mutilak *berez* azkarragoak direla esango genukeen baina, zorionez, egun badakigu jakin ere, kasu baterako, aldagai ekonomiko eta kulturalak, adimenaren garapenean eragiten dutela eta, sorburua (genetika) funtsezkoa izanagatik, ez dela *berez* geroko adimena definitzen duena.

Era berean guk ez dugu esango haur euskaldunak besteak baino bizkorragoak direnik, ezta gutxiago ere, bai ostera ume euskaldun gehienek (guztiak ez esatearren) gutxienik bi hizkuntza ikasi behar dituztela eta gehienetan (guztietan seguruenik) ikasten dituztela ere. Gauzak horrela, bada, haurtzaroko hizkuntzen ikaskintzan, *egoerak* eragiten duela esan dezakegu; are gehiago, *egoera* erabakikorra delarik, berorrek behartuta ikasten dutela bigarren hizkuntza.

Dena den, horiek dira Euskal Herrian dauden hiztun taldeak, garrantzitsuenak bederen. Eta esandako *egoeraren* alderdia den Hezkuntza Sistema jakin bateko subjektuak horiek direlarik, azter ditzagun bada, batera hiztun taldeak eta eskola.

1979. urtean sartzten da euskara irakaskuntza sisteman. Elebitasun Dekretuaren bitartez⁹.

Hala ere, bereziki zaintzen da gaztelaniak ez dezan honegatik erasorik edo aurkako eraginik jaso¹⁰.

Hauek horrela, hurrengo urratsa euskara eskolatan sartzeko bidea finkatzea izan zen eta hau A, B eta D ereduaren bitartez gauzatu zen¹¹.

9- REAL DECRETO 1.049/1979, de 20 de Abril, por el que se regula la incorporación de la lengua vasca al sistema de enseñanza en el País Vasco (B.O.C.G.P.V. nº 27, de 25 de Mayo de 1979)

La diversidad de las lenguas habladas en España es un patrimonio cultural de valor inapreciable que, en conformidad con lo dispuesto en el artículo tercero de la Constitución, ha de ser objeto de especial respeto y protección. Tal fundamental precepto constitucional conduce a la necesidad de incorporar la enseñanza de cada una de dichas lenguas al sistema educativo, dentro de los marcos territoriales de las respectivas Comunidades Autónomas, con el fin de hacer efectivo el derecho de cada ciudadano al conocimiento y uso de su lengua materna, así como al de poder recibir las enseñanzas en la misma. Todo ello sin perjuicio de que el sistema educativo ha de procurar lograr que los escolares adquieran el pleno dominio del castellano, lengua oficial del Estado, que todos los españoles tienen el deber de conocer y el derecho a usar. (Gure hizkuntz-egoera dela eta, legeak eta aginduak jatorrizko hizkuntzan agertzea erabaki dugu. Izan ere gaztelera bait da legearen indarra dakarrena eta ez euskara).

10- ORDEN del Ministerio de Educación y Ciencia, de 3 de Agosto de 1979, que desarrolla el Real Decreto 1,049/1979, de 20 de Abril, por el que se regula la incorporación de la Lengua Vasca al sistema de enseñanza del País Vasco (B.O.C.G.P.V. nº31, de 16 de Noviembre de 1979)

2. La enseñanza de la Lengua Vasca o el desarrollo de programas escolares en la misma no supondrán, en ningún caso, disminución de los niveles que los alumnos deban alcanzar, de acuerdo con los programas vigentes, en el dominio oral y escrito del castellano, lengua oficial del Estado.

Tampoco excluirán la obligación de impartir la enseñanza de un idioma extranjero, tal y como determinan los planes de estudio de cada nivel educativo.

11- Ikus dezagun legeak nola definitu zituen oraindik ere indarrean jarraitzen duten eredu hauek:

DECRETO 138/1983, de 11 de Julio, del Departamento de Educación y Cultura, por el que se regula el uso de las lenguas oficiales en la enseñanza no universitaria en el País Vasco (B.O.P.V. nº 108, de 19 de Julio de 1983).

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco establece que el euskara, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y que todos los habitantes tienen derecho a conocer y a usar ambas lenguas.

DISPONGO:

CAPITULO I

Actividades docentes

Artículo primero- El uso en la enseñanza de las lenguas oficiales en los niveles educativos de Preescolar, E.G.B., F.P., B.U.P. y C.O.U. en los Centros Docentes sitos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el presente Decreto.

Artículo segundo- La enseñanza del euskara y del castellano serán materias obligatorias en todos los Centros de los niveles a que se refiere el artículo primero.

Artículo tercero.-1. El uso de las lenguas oficiales en la enseñanza no universitaria se hará tomando como referencia los modelos de enseñanza bilingüe A,B y D descritos en los Anexos I y II del presente Decreto.

2. En todo caso se garantizará la continuidad del proceso de euskaldunización de los alumnos que ya lo han iniciado.

3. El Departamento de Educación y Cultura procederá a la implantación de los modelos de enseñanza bilingüe B y D a que se refiere el párrafo primero, previa petición o aceptación de un número de padres o tutores de los alumnos del Centro suficiente para que éstos puedan formar al menos un grupo de acuerdo con los ratios establecidos por el Departamento para el nivel correspondiente y teniendo en cuenta las posibilidades de profesorado y el plan de euskaldunización que establezca dicho Departamento.

ANEXO I

Para Preescolar y E.G.B.

Modelo A.- Todas las materias -exceptuando el euskara- se impartirán básicamente en castellano. El euskara se impartirá como cualquiera de las otras materias comunes, dedicándosele semanalmente las horas que establezca el Departamento de Educación y Cultura. Cuando los alumnos hubieran adquirido una buena práctica en la utilización del euskara, en los niveles superiores de E.G.B. se podrán impartir en euskara algunos de los temas de otras materias.

Modelo B.- Tanto la lengua castellana como el euskara se utilizarán para impartir las otras materias. La lengua castellana se utilizará, en principio, para materias tales como la lectura y escritura y las matemáticas. El euskara para las demás materias: las experiencias, plástica y dinámica sobre todo. Además el euskara y el castellano se trabajarán como materias de aprendizaje dedicándoseles por semana las horas que el Departamento de Educación y Cultura establezca.

Modelo D.- Todas las materias - exceptuando la lengua castellana- se impartirán básicamente en euskara, trabajándose este también como materia de aprendizaje, dedicándosele para ello por semana las horas que establezca el Departamento de Educación y Cultura.

Hizkuntza ofizialek irakaskuntza ez-unibertsitarioan izango duten erabilera, jarraian deskribatzen diren **irakaskuntza elebiduneko A, B eta D eredu**en arabera izango da. X ereduaren izenaren pean, gaur egun euskara ikasten ez duen ikasle goa bernesartzen da. Ez da irakaskuntza elebiduneko eredu bat.

Eskolaurre eta O.H.O.rako

A. Eredua: **Irakasgai guztiak** -euskara bera izan ezik- **gaztelaniaz** emango dira funtsean. Euskara ikasgai-modura beste edozein gai bezala emango da, Hezkuntza Sailak erabaki dezakeen ordu kopurua eskainiz astero eginkizun horri. O.H.O.ko goimaletan beste irakasgaietako zenbait gai ere **euskaraz landu ahal izango dituzte, baldin eta ikasleak beren euskara-mailan nahiko trebatuak baleude.**

B. Eredua: Bai gaztelania eta bai euskara, biak beste irakasgaiak lantzeko erabiliko diren hizkuntzak dira. **Gaztelania, berez, irakurketa-idazketa eta matematika bezalako irakasgaietarako erabiliko da. Euskara beste arloetako gaiak lantzeko: esperientziak, plastika eta dinamika bereziki.** Euskara eta gaztelania irakasgai-eran ere landuko dira, astero, eginkizun horri Hezkuntza Sailak erabaki dezakeen ordu-kopurua eskaini beharko zaiolarik.

D Eredua: **Ikasgai guztiak** -gaztelania ezik- **euskaraz** landuko dira funtsean. Euskara bera ere irakasgai-moduan landuko da, astero eginkizun horri Hezkuntza Sailak erabaki dezakeen ordu kopurua eskaini beharko zaiolarik. **Gaztelania, eskolako beste edozein irakasgai bezala emango da eskolaketaren hasieratik.**¹²

La lengua castellana se impartirá desde el inicio de la escolarización como cualquiera de las otras materias escolares.

ANEXO II

Para B.U.P.-C.O.U. y F.P.

Modelo A.- Todas las materias excepto la Lengua y Literatura Vasca y las Lenguas Modernas se impartirán básicamente en lengua castellana. El euskara tendrá tratamiento de materia común y obligatoria, dedicándosele por semana las horas que establezca el Departamento de Educación y Cultura. Con grupos de alumnos que hayan adquirido buen conocimiento del euskara se podrán trabajar algunos temas también en euskara.

Modelo D.- Todas las materias, exceptuando la Lengua y Literatura Castellana y las Lenguas Modernas, se impartirán básicamente en euskara, impartándose este también como materia de aprendizaje al igual que la lengua castellana, siguiendo para ello los programas y horarios que establezcan por el Departamento de Educación y Cultura.

12- Euskal Estatistika-Erakundea (EUSTAT) (1989) Irakaskuntzaren Estatistika Estadística de la Enseñanza. Bilbao (guk azpimarraturik)

Goiko paragrafoetan agertzen denari jarraituz, Legeak *subjektuei* hizkuntz eskubideak bermatzen dizkiela jakin eta gero, O.H.O.-rako hizkuntz ereduak definitzen dira. *Irakaskuntza elebiduneko hizkuntz ereduak*, jakina denez hiru dira, hots definitutako hiztun taldeak beste. Agian lehenengo pausoa *irakaskuntza elebiduna* zer den azaltzea izan beharko litzateke eta horretarako definiziorik zabalena hartuko dugu: bi hizkuntza aldiberean zein elkarren segidan, une edo aldi jakin batean eta proportzio desberdinetan erabiltzen dituen edozein Hezkuntza Sistema, irakaskuntza elebiduntzat joko dugu¹³, hizkuntza biak irakaskuntzarako erabiltzen dira eta haietariko bat normalean ikaslearen lehenengo hizkuntza izaten da.

Horiek horrela hiru irakaskuntz klase posible izan daitezke:

1. Bi hizkuntza batera inolako erizpide eta mailakatze prozesuari jarraitu gabe erabiltzen direnean.

2. Hasieran ikasleagoaren lehenengo hizkuntza (H1) erabiliar bigarren hizkuntza (H2) ikasgai bezala ematen dena harik eta ikasleek, bigarren honetan, behar den hizkuntz gaitasuna lortu arte, gero, aurreragoko ikasketak bigarren hizkuntzan jaso ahal izateko.

3. Hasieratik eta hein handi batean irakaskuntza gehiena ikasleagoaren bigarren hizkuntzan ematen da, lehenengo hizkuntza geroxeago ikasgai eta hezkuntz-hizkuntza bezala sartzan delarik¹⁴

Ikusten denez tipologia horretan ez dira sartzan ez A ez eta D hizkuntz ereduak ere, izan ere hizkuntz eredu horietan bigarren hizkuntza (euskara edo gaztelera) ez bait da irakaskuntzan erabiltzen.

Legeak definituriko hizkuntz ereduak aztertzerakoan hiztun talde diferenteak erreferentzi ditugula gogorarazi nahi genuke, hots, hasieratik ikasle bakoitzaren *curricula* edo hezkuntz-bilakaera berez diferentea dela, familiaratik Hezkuntz Sistemara dagoen aldea alegia (Ikus Eranskinean doazen A, B eta D ereduak)

13- "... Par education bilingue nous entendons tout système d'enseignement dans lequel, á un moment variable et pendant un tmepe et dans les proportions variables, simultanément ou consécutivement, l'instruction est donnée dans aux moins deux langues, dont l'unew est normalement la première langue de l'élève." (ibidem. 301. orr. -haiek azpimarkaturik)

14- "Compte tenu de notre définition, la plupart des programmes d'éducation bilingue peuvent se reduire à trois grands types:

1. L'enseignement est donnée parallèlement dans deux langues, avec ou sans décalage dans l'emploi de ces langues;


2.L'enseignement est d'abord donnée dans la L1 de l'élève qui reçoit des cours de seconde langue jusqu'à ce qu'il soit en mesure de poursuivre ses études dans cette deuxième langue;

3. La plus grande partie de l'enseignement se fait initialment dans la seconde langue des élèves, leur première langue étant introduit ulterieurment d'abord comme matière scolaire, ensuite comme moyen d'instruction." (ibidem 301. orr.)

euskararen helburu eta edukiei buruzko Aginduak). Zeinak eskolaratzean senditaratean ikasitakoa oinarri dakarte eta horrek neurri batean behintzat haien arteko diferentziak zehazten ditu.

Gure aztergaiari gagozkiolarik A eta D ereduak zein bere aldetik, erdaldungo eta euskaldungoaren *beretzko* hizkuntz ereduak direla esango genuke. Nahasketak berriz B ereduan antzeman ditzakegu; batetik, gaztelania irakurketa eta idazketarako hizkuntzatat aukeratzen da eta, bestetik, hizkuntzen erabilpena ikasgaien arabera proposatzen da, gure ustez, *ikasgai teknikoak* gazteleraz eta *giza alorrekoak* euskaraz, *nolabaiteko balorazioa edo hizkuntzekiko aurreritzia sortaraziz*.

Hariari lotuz horri buruzko aipamenak gero egingo ditugu eta orain Hezkuntz Sistemak hiztunek egin ditzaketen ibilbide diferentek aztertuko ditugu.



13. Irudia: Hizkuntz ereduak eta hiztun taldeak.

Guk aipaturiko ereduak (A eta D) hizkuntz murgiltze eredutzat hartuko ditugu; hau da, hiztun talde jakin batenganako hizkuntz-murgiltze ereduak. Horrela, aurreko orrialdean grafikoki adierazi nahi izan dugu hiztun talde desberdinek (euskaldunak/erdaldunak) egin dezaketen ibilbidea, eta jakina, definizioz O.H.O.tik Ertainetara *Murgiltze Eredutik* jotzen dutenak, elebidun bilakatuko dira.

Irudian ikus daitekenez, hasierako hiztun klaseetatik amaierako beste hiztun klaseetara pasatzen da. Nabarmena bada ere esan dezagun: Hezkuntz Sistemak hizkuntzen egoeran eragiten du. Hortaz irudian agertzen denari ñabarduraren bat edo beste egin behar zaio:

-Hezkuntza Sistemak hiztun taldeetan duen eragina diferenta da; ***euskaldunen kasuan, edozein eredutan (-A-n, B-n zein D-n-) emaitza berdina (ez bera) izango da: ELEBIDUNDUKO DIRA, baina haien “elebiduntasuna” diferentea izango da hizkuntz ereduaren arauera. Egindako ikerketen arauera ELEBIDUN OREKATUAK D EREDUKOAK DIRELA esango genuke, gainontzeko kasuetan elebiduntasun kenkorra izan daitekeelarik. Antzerakoa gerta dakioke (hasierako tipologiako) elebidungoari.***

-Erdaldunek Hezkuntz Sistemako ereduari jarraiki, elebidunduko dira D ereduan, B ereduak benetako sasi-elebidunak izango lirateke eta A ereduan elebidunduko balira jakin behar izango genuke euskarari hizkuntza moderno horietako baten izan den; hau da, gure aburuz, ez dago bigarren hizkuntza bat *menperatzerik* horrelako hizkuntz ereduari jarraituz. Lortzen dena, ez dago ukatzerik, zera da, euskararenganako hurbiltasuna eta ezagutza minimoa.

- B ereduari buruz ere zeozer esan behar dugu, *B* hizkuntz ereduari “irakasmunduan euskararen erabilera zuzena bideratu eta **sustatzeko**” sortu dutelakoan, horko ikasleak O.H.O. amaitzean *D* edo euskal eredura joko duela suposatzen dugu (agian gehiegi). Errealitatean B.B.B. edo L.H. (Ertainetan) jarraipenik ez duenez O.H.O. mailan aztertu behar dugu eta horri lotuko gaitzaizkio.

Gure irudian elebidungoak edozein hizkuntz eredura jo dezake, ondorioak diferentek direlarik. Baina agian gogoetarik aipagarriena B hizkuntz ereduan izaten den hizkuntz tratamendu diferenteei buruzkoa izan daiteke. Nonbait hori egin dugunez azkenengo aipamenean horri buruzko epaia emango dugu.

3.1. Hizkuntz murgiltze ereduak

“Murgiltze sistema” iharduera pedagogiko bezala ulerturik eta besterik ezean, edozein umeri ezar dakiok. Edonolaz ere erreferentziatzen beti eta beti ere hizkuntzak hartuko dira, hots, “murgiltze” izateko, iharduera pedagogikoaren hizkuntza eta umeen hizkuntza diferentek izan behar dira. Beraz eta hitz zehatzez edozein iharduera pedagogikoa “murgiltze” ereduak izan daiteke baldin eta ikaslearen lehenengo hizkuntza bestelakoa bada.

Hortaz egun “Eskola Publikoa” deritzen hori orain artean euskaldungoarentzako murgiltze eredutzat jo dezakegu, gaztelarako murgiltze ereduak, alegia. Salbuespenak salbuespen, murgiltze sistema horretatik pasaturiko haur euskaldunek O.H.O. amaitu eta gero lortzen dute gaztelaraz erdaldunen pareko hizkuntz gaitasuna. Esan behar da lehenengo eskola publikoan (eta orain “X” ereduak) euskaldunenganako hizkuntz murgiltze sistema bortitza erabiltzen dela, izan ere hiztunen (euskaldunen) hizkuntza ez baita sartzen ezta ikasgai bezala ere.

Bi hitzetan esanda hau izango litzateke egungo egoera. Unibertsitate mailan sartuz gero, egoera okerrera aldatzen da. Egundak, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean, eta honetan bakarrik dago zenbait gai euskaraz ikasteko aukera, baina ez gehiago.

Eskola utzi eta ez dugu helduen euskalduntze eta alfabetatzea ahazten. Gizartea euskalduntzeko ahaleginetan sortu ziren, Ikastolen modura, helduak alfabetatu eta euskalduntzeko mugimenduak, herriaren behar bati erantzunaz.

Batetik, euskararen aurka garai batean izandako erasoengatik euskara galdu zuten gazteak eta bestetik sortu berriak ziren Ikastoletara beren seme-alabak bidaltzen zituzten gurasoek bai euskaldun zein erdaldunek ere, euskarak zuen garrantziaz ohartu eta 1965. urtean ekin zitzaion Alfabetatze kanpainari lehenik eta 1967-68an, euskalduntzearenari. Honetarako 1968an Euskaltzaindiak Alfabetatze Batzordea sortu zuen. Alfabetatze eta euskalduntzearen zereginari ekiteko sortu zen A.E.K. (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea). Beranduago, euskalduntzea eta alfabetatzea zabaltzen eta sendotzen joan zen heinean sortu zen H.A.B.E. (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundea) Elkarte Autonomoan.

Baina guzti hauekin ere, eskola da (zentzu zabalean) momentu honetan euskalduntzeaz arduratzen den bakarra, ez du inolako kanpo-laguntzarik. Honekin esan nahi duguna zera da, eskolak bakarrik, ingurua, gizartea, balioak, motibapena, erabileraren beharra etab. kontutan hartu gabe, ezin duela euskaldundu. Eskolatik

kanpo euskara erabiltzeko beharrik sortzen ez den bitartean alegia, eskolak bakarrik ezingo du hau lortu. Iñaki Larrañagak (1990.ean) dioen bezala, gizarte bati ezin esan dakioke ibil dadila, hankak moztuta dituenean, edota pertsona edo gizarte bati ezin eska dakiokela normaltasunez bizi dadila, aurre-baldintza edo bitartekoak finkatu gabe dituenean.


Murgiltzearen azalpen hariari lotuz, gogoratu beharko genituzkeen irakas-prozedura honi dagozkion funtsezko ardatzak: *adina, trinkotasuna eta iharduera*. Jakinaenez, murgiltzetaren faktore definigarri bakarra, ikaslegoaren ez den beste hizkuntzan aritzean datza. Baldintza hori betetzen ez denean, ezin esan zentzu estuan murgiltze eredua denik. Hորratio, murgiltze ereduetan hezkuntz-hizkuntza ikaslegoaren hizkuntza arrotza edo bigarren hizkuntza behar du ezinbestean.

HIZKUNTZAREN MURGILEAN, MURGILTZE SISTEMA, MURGILTZE PROGRAMA. Hizkuntzen arteko ukipen egoeran, Murgiltze Sistema Eskolaldian HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAREN berreskurapenerako tresna bezala uler badaiteke ere, funtsean Bigarren hizkuntzaren ikaskuntzarako iharduera berezia baino ez da. Kasu honetan ikaskuntz-iharduerako hizkuntza HIZKUNTZA GUTXIAGOTUA DA.

ADINA



TRINKOTASUNA



14. Irudia: Murgiltze ereduen oinarriko ardatzak.

Aipatu ardatzak, irudian agertzen direnak hain zuzen ere, hurrenez hurren azaltzen ditugu.

3.1.1. Adina

Ikaslegoaren adinak definitzen du aurreneko murgiltze mota. Horrela, eskolaldia hasi eta sei urte bitartean ezartzen denean, *murgiltze goiztiarra* esaten diogu. 6-12 urte bitartean denean berriz, *erdi-mailako murgiltzea* deritzogu, eta azkenik, 12 urtetik aurrera, *murgiltze berantiarra*.

Haseratik eta etengabeko murgilketa denean *erabateko murgiltzeaz* hitz egin behar dugu eta azken hau, hain zuzen ere, adinari dagokion eredurik eraginkorrena daukagu. Izan ere, urterik urteko iraunkortasuna ikaskuntzaren faktorerik erabakiorrena baita. Hortaz, aukeran jarrita, hauxe izango litzateke gomendaturiko eredu. Horrek ez du esan nahi besteak, besterik gabe baztertu behar ditugunik, are zehatzago, *murgiltze goiztiarra*, *erdi-mailako murgiltzea* edota *murgiltze berantiarra* ezartzerakoan, plangintza bereziak burutzeari ezinbestekoa deritzogu; hots, murgilketa prozedura horiek hizkuntza arrotza edo bigarren hizkuntzaren ikaskuntzarako, behin-behineko eredu bezala ulertu behar ditugu.

Adierazi behar ez bagenu ere, hizkuntza jakin baten eskola-orduek, ez dute berez, murgiltze eredu definitzen. Bigarren edo hirugarren hizkuntzaren irakaskuntzarako berezko iharduera pedagogikoa eta murgilketa ez datoz bat. Adibidez, ingelesaren irakaskuntza gure eskolatan, kontrakoa frogatu ezean, ez da inolako murgilketa, gauza bera esan dezakegu gaztelearen edo euskararen irakaskuntzari buruz dagozkion hizkuntz ereduetan.

3.1.2. Trinkotasuna

Trinkotasunaz ari garenean, egoeran indarrean dauden bi hizkuntzen erabileraz ari gara. Bi hizkuntza horiek, ikaslegoarena eta hezkuntz-iharduerarena eskolak ematerakoan nola banatzen diren, definitzen dute murgiltze ereduaren *trinkotasun maila*. Hobeto ulertzeko, hezkuntz-hizkuntza (ikaslegoaren hizkuntz arrotza) baino besterik erabiltzen ez denean, *murgiltze erabatekoa* ezartzen dela diogu. Ikaslegoaren hizkuntzaren erabilera zabala denean, aurreneko ikas-mailatan bereziki, *murgiltze leunaz* hitz egin behar.

Trinkotasuna denboraren banaketari lotzen bazaio ere, geroxeago ikusiko dugunez, ez dagokio bakarrik denboraren banaketari, aipatu bi hizkuntzen erabilera estratigiari baizik.

3.1.3. Iharduera

Aurrekoan esan dugun moduan, behin adina eta trinkotasunaren auziak ebatsi eta gero, hizkuntzen erabileraren denbora banaketak definitu behar ditugu. *Iharduera trinkoa* dela esango dugu, hizkuntzen arteko banaketa oso modu zehatzean gauzatzen denean, bai denboran, irakaslegoan zein espazio fisikotan egiten denean. Honetan nolabait, *murgiltze goiztiarra*, *erdi-mailako murgiltzea* edota *murgiltze berantiarra* adibide gisa jar litezke. Aurreneko hiru hilabetetan hizkuntza bakar bat, murgiltze ereduaren hezkuntz-hizkuntza esaterako, eta ondorengo hilabetetan haren erabilera *leuntzeari*, *iharduera trinkoa* esango genioke. Hizkuntzen banaketa eskola-orduen edo ikasgaien arabera egiten denean, “B” hizkuntz ereduarena kasurako, *iharduera banatua* dela esan dezakegu.

Jakina denez, *banatua* edo *trinkoa* izatearen artean, anitz aukera dago. Hala ere, orokorrean, *iharduera zenbat* eta *trinkoagoa* izan, orduan eta eraginkorragoa dela frogatuta dago.

Laburbilduz, murgiltze eredu zenbat eta *goiztiarrago*, *iraunkorrago*, *trinkoago* eta *iharduera trinkoagoaz* izan, orduan eta eraginkorragoa dela berresten dugu. Dena den, gogoan izan, faktore guzti horiek manipularriak direla murgiltze ereduak behar duen plangintza egiterakoan.

ELEBIDUNTASUNAREN NEURKETA

Xabier Isasi Balanzategi

Lambert-en zenbait ideiatan oinarriturik elebiduntasunaren neurketarako tresna bat prestatzeari ekin diogu. Hizkuntzen arteko ukipen egoera ematen denean elebidunen artean dauden diferentziak aztertzeko tresna baliagarria izan daiteke.

Hamers & Blanc (1983) ikertzaileek beren *Bilingualité et bilinguisme* liburuan *elebiduntasunaren* neurketarako prozeduraz idatzitakoaren haritik honela laburbilduko genuke:

1. Hizkuntzen arteko erkaketei buruzko neurketak.
2. Hizkuntz-gaitasunei buruzko testak.
 - 2.1. Hizkuntz-gaitasuna jatorrizko hizkuntzan.
 - 2.2. Hizkuntz-gaitasuna bigarren hizkuntzan.
 - 2.3. Hizkuntz-portaeraren neurketak.
 - 2.3.1. Ahozko enkodaketa eta dekodaketa eginkizunetan erantzunerako denbora.
 - 2.3.2. Hizkuntza bateko edo besteko osatu gabeko hitzak osatzea denbora neurtuz.
 - 2.3.3. Hizkuntzen arteko oreka/menpekotasuna neurtzeko frogak. Froga hauen sorburua hitzen arteko loturan datza. Subjektuek, elebidunek, hizkuntza bateko hitz batzuei, denbora tarte mugatu batean, beste hizkuntzan ahalik eta ordain gehien eman behar dute; hizkuntza batean eta bestean emandako hitz-kopuruen arteko diferentziak hitz-jarioratasun handiko hizkuntza zein den adieraziko digu. Hortaz *hitz-jarioratasunaren* adierazle bat izan daiteke.
 - 2.3.4. Erlojupeko itzulpen frogak.
 - 2.4. Konposatu/koordinatu dimentsioari buruzko testak.
 - 2.5. Hizkuntz-historiari buruzko galdesortak.

Dena den edozein neurketarako prozedura hautatzerakoan elebitasunaren egoera zein den kontutan hartu behar izango dugu.

Elebidunok, bereziki hizkuntzen arteko ukipen egoeran murgildurik bizi garenok, bi hizkuntzatan ihardun behar izaten dugu. Hizkuntza jakin bat zein neurritan erabiltzen dugun aldagai edo faktore anitzen menpe dago, batipat, ingurune soziolinguistikoak eta norbanakoaren hizkuntz-gaitasunak definituko dute une jakin batean eta tokian tokiko erabiltzen den hizkuntza.

Lan honetan hizkuntz-egoera zehaztea baino, jakin nahi dugu norbanakoaren joera zein nolakoa den dakizkien bi hizkuntzen artean. Ez da gure asmoa subjektuen hizkuntz-gaitasuna neurtzea; izan ere neurketa hori luzea eta neketsua izateaz gain anitz aldagaien menpe bait dago. Esandako joera antzemateko oso oinarri sinplea jarri dugu: *subjektuen elebiduntasuna*, hizkuntza batean eta bestean iharduteko gaitasuna alegia.

Euskal Herriko elebidunak bi hizkuntzatan mintzo daitezke; hau da euskaraz esaten dutena erdaraz, neurri batean edo bestean, esateko gauza dira, eta, aitzitik, erdaraz adierazten dutena euskaraz, neurri jakin batean, adierazteko gauza dira.

Gakoa hau da, zein da elebidun jakin batengan bi hizkuntzen arteko erlazioa. Beste era batera esanda, hizkuntza bateko hitz baten aurrean beste hizkuntzako zenbat ordain emateko gauza den. Badakigu honetan subjektuen oroimenak eragiten duela, baina, elebidun bat hizkuntza batean oroimen onekoa bada bestean ere izango da. Hortaz ez da *oroimen alorreko* froga bat, hizkuntzen arteko erlazioei buruzkoa baizik.

1. ELEBIDUNTASUN INDIZEA

Elebiduntasunaren adierazle bezala honako neurri hau hartu dugu:

$$E.I. = \frac{H_1 - H_2}{H_1 + H_2}$$

Elebiduntasunaren Indizeak (E.I.) hizkuntza batekiko edo bestearekiko oreka/desoreka adierazten du. Demagun H_1 eta H_2 , hurrenez hurren, euskarari eta gaztelerari dagozkion elebidun baten *hizkuntz-gaitasunak* direla, orduan horrela kalkulaturiko puntuazioak batekotan emanda agertuko litzaizkiguke. Horrela, adibide gisa, hiru kasu aipa ditzakegu:

1.- $H_1 = 0$ (euskararen *hizkuntz-gaitasuna*) zero denean:

$$E.I. = \frac{0 - H_2}{0 + H_2} = \frac{H_2}{H_2} = -1$$

Kasu hau *erdaldun elebakarrena* da. Euskararen hizkuntz-gaitasuna zero delarik haien *elebiduntasun Indizea* minus bat da.

2. $H_1 = H_2$ Hizkuntza bateko eta besteko *hizkuntz-gaitasunak* baliokideak direnean:

$$E.I. = \frac{H_1 - H_1}{H_1 + H_1} = \frac{H_2 - H_2}{H_2 + H_2} = \frac{0}{2H_1} = \frac{0}{2H_2} = 0$$

Honako *Elebiduntasun Indizea* elebidun *orekatuei* legokieke, zero alegia. Izan ere ez bait dago inongo *hizkuntz-gaitasunik* ez duen hiztunik.

3.- $H_2 = 0$ (gazteleraren *hizkuntz-gaitasuna*) zero denean:

$$E.I. = \frac{H_1 - 0}{H_1 + 0} = \frac{H_1}{H_1} = 1$$

Hau da lehenengoaren kontrakoa, *euskaldun elebakarrena* alegia. Euskararen hizkuntz-gaitasuna edozein izanda ere, gaztelerarena zero delarik haien *elebiduntasun Indizea* bat da.

Ondorioz *Elebiduntasun Indizeak (E.I.)* minus bat eta plus baten arteko balioak har ditzake. Batekotan baino ehunekotan eman izan nahi bagenu honela utziko genuke *Elebiduntasun Indizearen* formula:

$$E.I. = \left(\frac{H_1 - H_2}{H_1 + H_2} \right) \times 100$$

Hau da, erabiltzen ditugun puntuazioak - 100 *erdaldun bakarraren* kasuan eta 100 (*euskaldun elabakarrarena*) artekoak dira. Honetan ere *zero erabateko orekaturiko elebiduneei* dagokie.

2. ELEBIDUNTASUNARI BURUZKO TESTA (EBT)

Elebiduntasunari Buruzko Testa (EBT) bi hizkuntzen (Euskara/gaztelera) arteko erlazioa neurtzeko tresna bezala eratuta dago. Funtsean, emandako *hitz estimuluen* aurrean hitz *erakarpenean*¹ datza; hau da, hizkuntza bateko eta besteko ekoizpena. Haserako froga pilototarako unibertsitateko ikasleak hartu baditugu ez da bakarrik hurbiltasunagatik, funtsezko arrazoiak beste batzuk izan dira, besteak beste, *euskaldun gaituak* izatearena. Elebidun hauek unibertsitate aurreko ikasketa guztiak edo gehienak euskaraz eginak dituzte.

Beste alderditik edozein gauza egin baino lehen jakin nahi izan dugu zeintzu hitz dira *maizen* erabiltzen direnak. Horretarako eta subjektuei (Zorroagako *Euskal Adarreko 45* ikasle) *inolako azalpenik eman gabe* BOST MINUTUTAN ZEHAR bururutzen zitzaizkien EUSKARAZKO hitzak idaztea eskatu genien, jarraian ondoko ikaskideekin bateriko orriak trukatu, buelta eman eta ONDORENGO BOST MINUTUTAN ZEHAR gauza bera eskatu zitzaien baina GAZTELERAZ. Horrela **taldearen** bi hitz zerrenda lortu ditugu, euskaraz eta gaztelera. Subjektu kopuru bera eta, hizkuntza batean eta bestean emandako denbora tarte berdina izan denez, **taldeak** hizkuntza batean eta bestean duen hitz-jarioa neur dezakegu emandako hitz kopuruak zenbatuz. Kontrakoa espero bazitekeen ere hitz-jarioa askozaz zabalagoa eta oparora izan da gaztelera euskaraz baino. Hau da gaztelera hitz diferente gehiago eta kalitate handiagoko hitzak eman dituzte.

Hala ere haserako momentu honetan ez da gure helburua hitz-jarioaren azterketa egitea *maiztasun handieneko hitzak* bilatzea baizik. Hitz horiekin, hain zuzen, eratu nahi dugu *ELEBIDUNTASUNAREN NEURKETARAKO FROGA*, beraz funtsezko erizpidea **hitzik arruntenen** erabilpenean datza; hots, elebidunen berezko hitz-jarioan, hizkuntza batean eta bestean, gehien erabiltzen diren hitzak. Oinarria hori delarik hitzen aukeraketan hizkuntza diferentetako antzerako eremu semantikoko baina hizkuntzen arteko distantziarik handieneko hitzak bilatu nahi izan ditugu.

Ondorengo orrialdeetan *birritan edo gehiagotan* agerturiko hitz zerrendak jarri ditugu, lehenengo euskaraz eta gero gaztelera. Hitzen aurrean agertzen den zenbakia *maiztasunari* dagokio; hau da zenbat pertsonak idatzi du ondoan agertzen den hitza. Ikus daitekeenez maiuskulaz idatzi ditugu ordenagailutan

1- Hitz erakarpina: emandako estimuluak norberari dakarkiokeen hitz multzoari dagokio. Estimulurik ez dagoenean hitz erakarpen askea esaten diogu; emandako estimulari estuki lotu behar zaionean, ostera, hitz erakarpen bideratua. Gure kasuan ez da askea ez era bideratua ere, tarteko bat baino. Jarrirako hitz estimulua kinada moduan ulertu behar da; hots, abiapuntu eta lana errazteko hitza.

analisiak egin ahal izateko, baina ortografiari dagokionez erabilitakoa, akatsak barne, bere hartan ekarri ditugu hona.

Hitz estimuluak Unibertsitateko *Euskal Adarreko* 45 ikaslek buruturiko *hitz erakarpen askeko* frogatik atereak dira. Ikasleek tutik ere jakin gabe, hiru minututan lehenengo Euskaraz eta gero Gazteleraz ahalik eta hitz gehien idatzi behar zituen. Helburua ez zen, jakina, pertsona baten *hitz ekoizpen maila* neurtzea, hitzen maiztasuna aztertzea baizik. Horrela taldean birritan edo gehiagotan ageturiko hitz zerrenda plazaratzeari interesgarria deritzogu.

EUSKARAZ

40 ETXEA	12 SAGARRA	8 GALTZERDIA	6 AITONA
32 MAHAIA	12 NESKA	8 EGUNA	5 ZUTABEA
31 AULKIA	12 LAINOA	8 BESOA	5 ZAPIA
29 ZUHAITZA	12 ITSASOA	8 BASOA	5 TELEFONOA
29 MENDIA	12 IRRATIA	8 ATERKIA	5 TEILATUA
27 ARKATZA	12 GELA	8 ANAIA	5 SUKALDEA
26 TXAKURRA	12 GALTZAK	8 AITA	5 PERTSONA
26 EGUZKIA	11 URA	8 KALKULAGAILUA	5 PAPERA
24 BEGIA	11 MUTILA	7 ZIGARROA	5 OSABA
24 ATEA	11 LIBURUA	7 ZERUA	5 OINA
23 ZAPATA	11 LEHIOA	7 POLTSA	5 LEIHOA
23 ILEA	11 EDALONTZIA	7 ORRIA	5 KLARIONA
21 LOREA	11 BURUA	7 ORDENAGAILUA	5 ITURRIA
19 TELEBISTA	11 BETAURREKOAK	7 OGIA	5 HOTZA
18 ESKUA	10 HONDARTZA	7 LURRA	5 HOSTOA
17 BELARRA	10 HERRIA	7 ELURRA	5 GEZURRA
16 KATUA	10 ERAZTUNA	7 DENDA	5 ESNEA
16 ARGIA	10 BOLIGRAFOA	7 BIZIKLETA	5 EMAKUMEA
15 ZALDIA	10 AMA	7 BEROKIA	5 BIGOTEA
15 EURIA	9 LAGUNA	7 BELARRITAKOA	5 BIDEA
14 SUDURRA	9 KARPETA	7 BEHIA	5 BELARRIA
14 OHEA	9 ILARGIA	7 AUTOBUSA	5 BEHATZA
14 KOTXEA	9 HARRIA	6 TRENA	5 ARGAZKIA
14 ERLOJUA	9 GIZONA	6 PRAKAK	5 ARDOA
14 ARBELA	9 AHOA	6 PLATERA	5 AMONA
14 ALKANDORA	8 TXERRIA	6 MOTORRA	5 ALABA
13 JERTSEA	8 TABERNA	6 HODEIA	4 PILOTA
13 HANKA	8 KALEA	6 AXOTA	4 PARETA
12 TXORIA	8 IBAIA	6 ALKONDARA	4 ORDUA

4 MAKILA	3 METXEROA	2 UDA	2 IZEBEA
4 MAILUA	3 LOTSA	2 TXOKOLATEA	2 IPURDIA
4 LEPOA	3 KUADERNOA	2 TXIMISTA	2 ILUNTASUNA
4 LEHOIA	3 KAZADORA	2 TXIMELETA	2 ILOBA
4 LARANJA	3 KALKULADORA	2 TXAPELA	2 IKASTETXEA
4 KLASEA	3 KAIOLA	2 TXAMARRA	2 IDAZTORTZA
4 KAMIOIA	3 ITSASONTZIA	2 TINTA	2 HOSPITALA
4 JANARIA	3 IRAKASLEA	2 SEMAFOROA	2 HONDARRA
4 IZARRA	3 IGELTSOA	2 SAGUA	2 HIZKUNTZA
4 IKASTOLA	3 HORTZA	2 SAGARDOA	2 HITZAK
4 IKASLEA	3 HIZKIA	2 PULSERA	2 HEGAZKINA
4 HORMA	3 HERIOTZA	2 PRAKA	2 HATZAMARRA
4 HAURRA	3 GURASOAK	2 PLAZA	2 HARITZA
4 HAIZEA	3 GOXOKIA	2 PELIKULA	2 GURPILA
4 GOSARIA	3 GORPUTZA	2 PEGATINA	2 GOZOKIA
4 GALTZERDIAK	3 GIZAKIA	2 OTSOA	2 GORROTOA
4 GALTZA	3 GAUA	2 ORDULARIA	2 GONA
4 ESKOLA	3 GARAGARDOA	2 OLATUA	2 GOMA
4 EGIA	3 EGURRA	2 ODEIA	2 GOILAREA
4 BORRAGOMA	3 EDARIA	2 NEGARRA	2 GERRIKOA
4 BOLTSA	3 DISKA	2 MUNDUA	2 GELTOKIA
4 BEROA	3 BOTILA	2 MUKIZAPIA	2 GAIA
4 BEGIAK	3 BONBILA	2 MINUTUA	2 FUTBOLA
4 BASERRIA	3 BELTZA	2 MINGAINA	2 FRAKAK
4 AUTOA	3 BELDURRA	2 MAITASUNA	2 FRAKA
4 AURPEGIA	3 BELAUNA	2 MADARIA	2 FOLIOA
4 ARMAIRUA	3 BALOIA	2 LUMA	2 FLAUTA
3 ZUBIA	3 AZKAZALA	2 LOGUREA	2 FILMEA
3 ZINEMA	3 ARRATOIA	2 LIMOIA	2 EUSKERA
3 ZEZENA	3 AMODIOA	2 LARROSA	2 ESTUTXEA
3 ZELAIA	3 ALDAPA	2 LAPIKOA	2 ERREGELA
3 ZAPATAK	2 ZOROA	2 LAKUA	2 ERLEA
3 UMEA	2 ZENBAKIA	2 KRISTALA	2 ERDERA
3 UDALETXEA	2 ZAPATILLA	2 KOLETA	2 EMAKUME
3 TXALUPA	2 ZAPATILAK	2 KAMISETA	2 DISKETEA
3 SUGEA	2 ZAPATILA	2 KALIMOTXOA	2 DENBORA
3 SUA	2 ZAKARRONTZIA	2 KAKA	2 BUFANDA
3 SEMEA	2 ZAHARRA	2 KAFESNEA	2 BOTEILA
3 PULTSERA	2 XAGUA	2 IZOTZGAILUA	2 BIZITZA
3 ORDENADOREA	2 URTEA	2 IZOTZA	2 BIHOTZA
3 OINETAKOAK	2 UNTZIA	2 IZENA	2 BEROGAILUA
3 MUSIKA	2 UDAREA	2 IZEKOA	2 BEREKILA

2 BEHORRA	2 AZERIA	2 ARIMA	2 AHIZPA
2 BEDARRA	2 ARREBA	2 ARDIA	2 AFARIA
2 BASURDEA	2 ARRAINA	2 ANIMALIA	2 ABEREA
2 BASTOIA	2 ARKAITZA	2 AMAMA	

Talde bera, egun berean eta frogak elkarren segidan eginak izanagatik Gaztelera-zko zerrendan antzeman daiteke hitzak ez direla maiztasun berekoak. Adibidez Euskaraz *etxea* 40k idatzi zuzen bitartean bere erdal ordaina *casa* 29k baino ez zuten idatzi. Hala ere gaiak edo hitz multzoak oso antzekoak direla esan daiteke.

GAZTELERAZ:

37 MESA	15 GATO	10 PANUELO	7 TIO
29 SILLA	15 AUTOBUS	10 DEDO	7 SOFA
29 CASA	14 MAR	10 ANILLO	7 PUEBLO
28 PELO	14 HOJA	10 AMIGO	7 PAN
25 COCHE	14 CARPETA	9 TREN	7 NIÑO
24 PANTALON	14 CALCULADORA	9 PLAYA	7 ESTRELLA
23 RELOJ	13 LLUVIA	9 PARED	7 COLLAR
22 ZAPATO	13 FLOR	9 ORDENADOR	7 COCINA
21 PERRO	12 TELEVISION	9 LUZ	7 CIGARRO
21 JERSEY	12 RADIO	9 LUNA	7 CALLE
21 CAMA	12 OJOS	9 LAMPARA	7 BRAZO
20 NARIZ	12 GAFAS	9 CUCHARA	7 AVION
20 MONTE	12 CIELO	9 CUADERNO	7 ABUELA
20 LAPIZ	12 CAMION	9 CAZADORA	6 ZAPATOS
20 BOLIGRAFO	11 SUELO	9 CABEZA	6 TECHO
20 AGUA	11 PIERNA	8 VINO	6 SABANA
19 PUERTA	11 PIE	8 RIO	6 ROSA
19 MANO	11 PENDIENTE	8 PLUMA	6 NIEVE
18 VENTANA	11 PADRE	8 PLATO	6 MECHERO
18 SOL	11 MADRE	8 PEZ	6 MANZANA
18 NUBE	11 GOMA	8 MOTO	6 MADERA
18 CALCETIN	11 FUEGO	8 ESTUCHE	6 LORO
17 LIBRO	11 CABALLO	8 DISCO	6 HIERBA
17 CAMISA	11 BOCA	8 CUADRO	6 FRIGORIFICO
16 PIZARRA	11 BAR	8 COMIDA	6 FALDA
16 ARMARIO	10 UÑA	8 BICICLETA	6 ESPEJO
16 ARBOL	10 TENEDOR	8 ALFOMBRA	6 ESCALERA
15 PAJARO	10 PULSERA	7 TORMENTA	6 CUCHILLO
15 OJO	10 PAPEL	7 TIZA	6 CINTA

6 CARRETERA	4 TELEFONO	4 CEBOLLA	3 NIKI
6 CABRA	4 SOMBRERO	4 BUTACA	3 NEGRO
6 BARCO	4 SIRENA	4 BOTELLA	3 METRO
6 ABRIGO	4 SEMAFORO	4 BOLSO	3 LENTEJA
5 ZAPATILLA	4 SAL	4 BOLSA	3 LECHUGA
5 VASO	4 RAYO	4 BLANCO	3 LECHE
5 TRUENO	4 RATON	4 BEBIDA	3 LAGRIMA
5 TINTA	4 PLATANO	4 BALCON	3 JIRAFÁ
5 TIERRA	4 PISCINA	4 ARENA	3 JABON
5 TIENDA	4 PIERNAS	4 ARAÑA	3 IGLESIA
5 TIA	4 PERIODICO	4 AIRE	3 HIJO
5 SUEÑO	4 PELICULA	3 ZORRO	3 HABITACION
5 PROFESOR	4 PATATA	3 ZAPATILLAS	3 GRANIZO
5 PRIMO	4 NARANJA	3 VIOLIN	3 FUSIL
5 PIEDRA	4 MUSICA	3 VERDE	3 FREGONA
5 PERA	4 MUJER	3 VACA	3 ESTOMAGO
5 PENDIENTES	4 MESILLA	3 UÑAS	3 ESTACION
5 PANTALONES	4 MELON	3 TIMBRE	3 ESCUELA
5 OREJAS	4 MELOCOTON	3 TABACO	3 ESCOPETA
5 OREJA	4 MEDICO	3 SOBRINO	3 ENEMIGO
5 MANTA	4 MEDIAS	3 SILLON	3 ELEFANTE
5 HERMANO	4 LIMON	3 SERVILLETA	3 DISCOTECA
5 CHAQUETA	4 LEON	3 SACAPUNTAS	3 DINERO
5 CORDON	4 LADRON	3 RODILLA	3 DEDOS
5 CONEJO	4 HOSPITAL	3 RELAMPAGO	3 CHAMARRA
5 CINTURON	4 HORMIGA	3 PRIMA	3 CURA
5 CINE	4 HOMBRE	3 POSTER	3 CUERDA
5 CERDO	4 HERMANA	3 POLLO	3 CUELLO
5 CENICERO	4 GANCHO	3 PLAYERA	3 CORTINA
5 CAMISETA	4 FOLIO	3 PLATA	3 COLOR
5 CALCETINES	4 ESCOBA	3 PISTOLA	3 COLETA
5 BOTAS	4 DIENTE	3 PINTURA	3 CIUDAD
5 BOTA	4 DESPERTADOR	3 PIJAMA	3 CERVEZA
5 BIGOTE	4 CHIMENEA	3 PIANO	3 CAZADOR
5 BALON	4 CHICO	3 PERSONA	3 CASTAÑA
5 AMOR	4 CHICA	3 PERSIANA	3 CASERIO
5 AJO	4 CRISTAL	3 PEREJIL	3 CARTEL
5 ABUELO	4 CORBATA	3 PARAGUAS	3 CARCEL
4 VIENTO	4 CORAZON	3 OSCURIDAD	3 CARA
4 UVA	4 COLCHON	3 ORO	3 CAMINO
4 TRAPO	4 CLASIFICADOR	3 ODIO	3 CALOR
4 TOMATE	4 CLASE	3 NOTA	3 CAJON

3 CAFE	2 SANDALIAS	2 OBEJA	2 GENTE
3 BOSQUE	2 SALUD	2 NUBES	2 GARBANZO
3 BOMBILLA	2 SALTO	2 NOVIA	2 FUNDA
3 BOLI	2 SALIR	2 NIQUI	2 FRUTERO
3 BIBLIOTECA	2 SALA	2 NIÑA	2 FRIO
3 BATA	2 ROTULADOR	2 NIDO	2 FRENTE
3 BARRO	2 ROPA	2 MUSLO	2 FLORES
3 BARBA	2 ROJO	2 MURCIELAGO	2 FIGURA
3 BALLENA	2 ROCA	2 MUÑECO	2 FELICIDAD
3 AZUCAR	2 RIFLE	2 MOTOCICLETA	2 EXAMEN
3 AVESTRUZ	2 RIDICULEZ	2 MONTAÑA	2 ESTUDIANTE
3 AUTOPISTA	2 RIA	2 MONJA	2 ESTROPAJO
3 ANIMAL	2 REVISTA	2 MOCHILA	2 ESTANTERIA
3 ALUMNO	2 REUNION	2 MIEDO	2 ESPERANZA
3 ALMOHADA	2 RESTAURANTE	2 MENTIRA	2 ESPADA
3 AGUJERO	2 RANA	2 MENTE	2 ENFERMERA
3 AGUILA	2 RAMA	2 MEDIA	2 EDIFICIO
2 ZUMO	2 QUESO	2 MARMOL	2 DUCHA
2 VERDURA	2 PUPITRE	2 MARIPOSA	2 DIBUJO
